



# Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak

Hegoaldeko Mugaren  
analisi feminista



# Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak

Hegoaldeko Mugaren  
analisi feminista

**Amanda Andrades Gonzalez, Itziar Gandarias Goikoetxea  
Ana Ferri Yañez eta Beatriz de Lucas Larrea**



Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea

Kristo kalea 9B, 5 48007 Bilbo  
Tel: 944248844

[info@cear-euskadi.org](mailto:info@cear-euskadi.org)

[www.cear-euskadi.org](http://www.cear-euskadi.org)

Jarrai gaitzazu



Argitalpen hau Creative  
Commons lizentziapean dago.

[https://creativecommons.org/  
licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es\\_ES](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es_ES)



**Edizioaren urtea eta lekua:** 2020, Bilbo

**Itzulpena:** Aiaraldea Ekintzen Faktoria

**Lege-gordailua:** LG BI 01252-2020

**Diseinua, maketazioa eta ilustrazioak:**  
Señora Milton

**Inprimaketa:** Erreka Multimedia S. Coop

**Finantzaketa:**



**Laguntzailea:**



Dokumentu hau proiektu honen baitan kokatzen da: *"Hegoaldeko Muga isilarazitako indarkeriak: igarobidean dauden emakume errefuxiatuen aldeko aliantza feministak"*. Proiektu horren eta ikerketa-lanaren ondorioz sortu da txosten hau, baita kontakizun-liburu bat ere: *Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea*. Bertan, Hegoaldeko Muga gurutzatu duten edo gurutzatzen saiatu diren emakumeen bost lekukotza jaso dira.

Txostenaren egileak Amanda Andrades Gonzalez, Itziar Gandarias Goikoetxea, Ana Ferri Yañez eta Beatriz de Lucas Larrea (koordinatzailea) dira. Berrikuspen juridikoa Paloma Favieres Ruiz eta Patricia Barcena Garciak gauzatu dute. Testuen berrikuspena Ane Garay Zarraga eta Raquel Celis Sanchezen esku egon da.

Ikerketaren prozesua hiru ardatzetan oinarritu da: dokumentazio bibliografikoa, Hegoaldeko Muga lan egiten duten antolakunde eta adituekin elkarrizketa sakonak egitea eta landa-lana.

# AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	08
1 // MUGAK ESTERNALIZATZEAREN INPAKTUA, IGAROBIDEAN DAUDEN EMAKUMEEN BIZITZETAN .....	14
2 // NORTZUK GURUTZATZEN DUTE, GAUR EGUN, HEGALDEKO MUGA?.....	20
3 // INDARKERIEN <i>CONTINUUMA</i> .....	26
4 // ERAKUNDEEN JARDUNA MUGALDEKO ESPAZIOETAN.....	38
5 // SAHARAZ HEGALDEKO EMAKUMEEK NAZIOARTEKO BABESA ESKURATZEA .....	52
6 // AZALEKO BEGIRADA BAT BESTE KOLEKTIBO BATZUEN EGOERARI.....	60
7 // EPILOGOA.....	66
BIBLIOGRAFIA.....	72
ESKER ONAK.....	77



# AURKEZPENA

Espainiako Hegoaldeko Muga, urte askoan, mugen esternalizazio- eta militarizazio-politikekin esperimentatzeko erabili du Europako Batasunak. Hala, migratzaile eta errefuxiatuen giza eskubideen urraketa larriak gertatu dira bertan. Heriotzak eta desagertpenak itsasoan; Marokon, ez atzera ez aurrera, muga gurutzatzeko zain dauden pertsonak; nazioarteko zuzenbidearen aurkako praktikak; eta sei urte baino gehiagoko inpunitatea Tarajaleko heriotzengatik. Horixe da Hegoaldeko Mugaren irudia.

Mugaldeko espazio hau aztertzeko, itsasoan gertatzen denari erreparatu behar diogu nahitaez. 2018an, 30 urte bete ziren hildako migratzaile baten gorpua Espainiako kostaldean lehen aldiz agertu zenetik. Ordutik, Andalucía Acoge-ren txosten baten arabera (2019), 6.714 pertsona inguru hil edo desagertu dira Espainiara iristeko saiakeran. Basakeria horren aurrean, Europar Batasunak (EB) —Espainiako Gobernuaren rol sendoaren laguntzaz— kontrola eta iristen diren pertsonak murriztea erdigunean jartzen dituen migrazio-politikarekin jarraitzen du, migratzaile eta errefuxiatuen babesaren eta eskubideen gainetik.

2018an inoiz baino iritsiera gehiago egon ziren Hegoaldeko Mugatik, 2006an "kaiuko krisia" gertatu zenetik. Andaluziako Giza Eskubideen aldeko Elkartek (Asociación pro Derechos Humanos de Andalucía, APDHA) azken

balantzean salatu duenez, azken urtean askoz pertsona gutxiago iritsi dira: 64.120 2018an, eta 33.261 2019an. Iazko etorreetekin konparatuta, %48 gutxiago dira; badirudi datu horrek Europar Batasunak Marokori migrazioa kontrolatzeko ematen dion laguntza ekonomikoari erantzuten diola. Eta horrek eragin nabarmena izan du muga zeharkatu zuten emakumeen ehunekoaren jaitsieran. 2019an, emakumeak izan ziren gurutzatu zutenen %12,63; 2018an, %17.

APDHAren arabera, 2019an 585 pertsona hil ziren; horietatik 254 desagertu egin ziren. Datu horiek erakusten dute, etorrerak jaitsi diren arren, hildakoen kopurua ez dela jaitsi: 34 pertsona gehiago hil dira, aurreko urtearekin alderatuta. Heriotza eta desagertze kopuruari dagokionez, sexu eta jatorriaren araberrako daturik ez dagoen arren, garrantzitsua da adieraztea Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen emakume gehienentzako bide bakarra itsasoa gurutzatzea dela.

Tradizioz, begirada androzentrikoak markatu izan ditu mugaldeko espazio honi buruzko kontakizunak. Hala ere, giza eskubideen aldeko aktibista eta antolakunde lanari esker, azken urteotan, mugak kontrolatzeko politiken genero-inpaktuaren bereizgarriak eztabaidatzen eta aztertzen hasi dira.

CEAR-Euskadin 15 urte baino gehiago

daramatzagu herritarren desplazamendu behartuei ikuspegi feminista ematen, eta genero-arrazoiengatik jazarpenera asilo-eskubidearen agendan sartu dadin sustatzen. Jakin badakigu arlo horretan ikusezin bihurtu direla milioika emakumeren esperientzia bereizgarriak, eta tradizionalki babes-esparruetatik kanpo geratu direla. Horrela, ia-ia sortu ginetetik, lanerako gure lehentasunetako bat izan da genero-arrazoiengatik jazarpenera ihes egiten duten pertsonentzako nazioarteko babesa defendatzea. Gure beste ekintza-ardatzetako bat izan da ikertzea eta salatzea mugak militarizatzeak eta esternalizatzeak bide legal eta seguruen faltan duen eragina; izan ere, ondorioz, migratzaile eta errefuxiatuek gero eta bide arriskutsuagoak egin behar dituzte, eta bide horietan indarkeria heteropatriarkala indartu egiten da.

Horren ondorioz, Hegoaldeko Muga da migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideak gehien urratzen diren espazioetako bat. Errepresioaren, militarizazioaren, urraketa eta bizitzaren prekarizazioaren kokalekua.

CEAR-Euskadiren ustez, funtsezkoa da eztabaidaren erdigunean kokatzea gaur egun Hegoaldeko Muga zeharkatzen duten emakume beltzeekin gertatzen ari dena, eta migrazio-prozesu osoan pairatzen dituzten indarkeriak lantzea. Horrek esan nahi du aztertzea patriarkatua, arrazakeria,

klasismoa eta kolonialismoa nola elkarlotzen eta areagotzen diren mugaldeko eremu horretan, emakumeak oso egoera zaugarrian utziz indarkerien aurrean. Zaurgarritasun babesgabea eta indarkeria zigorgabea hazi egiten dira, migrazio-politikak gogortzearekin eta giza-eskubideen nazioarteko akordioen ageriko urraketekin batera.

Emakume beltzen joan-etorriak aztertzea mugak esternalizatzeko eta militarizatzeko politiken testuinguruan, ez da haien bizipenak, itxaropenak eta ametsak homogeneizatzea. Muga hori zeharkatzen duten emakumeak bezainbeste dira migrazio-proiektuak eta alde egiteko arazoak. Hala ere, badaude joan-etorrietan errepikatzen diren elementu jakin batzuk, eta berreskuratu egin daitezke ikuspegi orokor bat lortzeko, eta aztertzeko nolako eragina duten emakumeen bizitzetan mugak esternalizatzeko eta militarizatzeko prozesuek.

Azterketa hori egiteko, aldendu egin behar gara emakumeak biktimizatzen dituzten eta beren migrazio-erabakien eragile eta protagonista izaera kentzen dieten ikuspegietatik. Elsa Tyszler ikertzaileak (2019) adierazi bezala, emakumeen zaugarritasun kontzeptuak «emakume beltz migratzaileak beren migrazioaren biktima pasibo gisa baino ez ditu kokatzen, migrazioa berez ahula denean eta gizonezko beltzek menderazen dutenean, eta, beraz, askatuak izan behar dira. Kontzeptu horrek,

estatuaren politika patriarkal eta arrazistak ikusezin bihurtzeaz gain, emakume horiek daukaten eragiteko gaitasuna ere ezkutatzen du». Bide horretan, emakumeek hesiak, oztopoak, eta muga errealak zein sinbolikoak gainditzen dituzte. Bizirauteko estrategia pertsonal eta kolektibo ugari jartzen dituzte martxan, eta determinazioa eguneroko praktika bihurtzen dute. Baina ezin dugu erresilientzia idealizatu; indarkeriaz betetako joan-etorri horien zauriak ez ziratekeen inoiz gertatu behar.

Migrazio-bideak aldatu egiten dira, eta baita mugetan aplikatzen diren migrazio-politikak ere, Europako herrialdeen eta hirugarren herrialdeen interes politiko eta ekonomikoen arabera. Ondorioz, zaila da Hegoaldeko Muga gertatzen dena irudi finko baten bidez deskribatzea. Hala ere, muga gurutzatu duten emakumeei eta haiekin dauden antolakundeei galdetuta, informazio garrantzitsua atera daiteke muga militarizatzeko eta esternalizatzeko prozesuek emakumeen bizitzan eragiten dituzten inpaktuak ezagutzeko. Txosten honen helburua da argibideak ematea eraldatu beharreko praktika eta politikiei buruz, emakume migratzaile eta errefuxiatuen bideak seguruagoak izan daitezken.

## 1 // IKERKETAREN IKUSPUNTUA ETA METODOLOGIA

Ikerketa hau prozesu zabalago baten baitan

kokatzen da. Prozesuaren izena honakoa da: *“Hegoaldeko Muga isilarazitako indarkeriak: igarobidean dauden emakume errefuxiatuen aldeko aliantza feministak”* (Violencias silenciadas en la Frontera Sur: alianzas feministas en defensa de las mujeres refugiadas en tránsito), eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketa izan du. Ekimen honek eztabaidaren erdigunean jarri nahi izan du Hegoaldeko Muga esternalizatzeko eta militarizatzeko prozesuak eragina duela, eta indarkeria heteropatriarkala areagotzeko baldintzak sortzen dituela. Prozesu osoan, Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako emakumeen errealitateari erreparatu diogu.

## ZER GALDETU DIOGU GEURE BURUARI?

Ikerketa honen bidez, Hegoaldeko Muga igarotzen diren Saharaz hegoaldeko emakumeek jasaten dituzten indarkeriak ikusarazi nahi izan ditugu, hiru analisi-dimentsio eta hainbat elementu kontuan hartuta:

### A // SEXU-INDARKERIA

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du sexu-indarkeria: “Sexu-ekintza oro, sexu-ekintza bat gauzatzeko ahalegina, nahi ez diren sexu-iruzkinak edo -proposamenak, edo pertsona baten sexualitatea merkaturatzeko edo beste



edozein modutan erabiltzeko ekintzak, pertsona horrek biktimarekin duen harremana edozein dela ere, eta edozein esparrutan, etxea eta lantokia barne". Bortxa askotarikoa izan daiteke: indarra maila askotan erabiltzea, larderia psikologikoa, estortsioa eta mehatxuak.

Sexu-indarkeriaren baitan, sexu-esplotazioa helburu duen salerosketa gehitu dugu. Palermoko Protokoloaren arabera, "pertsonek salerosketa" honela ulertuko da: pertsonak atzematea, garraiatzea, lekualdatzea, hartzea edo jasotzea, eta, horretarako, mehatxuak edo indarra erabiltzea edo bestelako bortxa-mota batzuk erabiltzea, hala nola bahiketa, iruzurra, botere-gehiegikeria, zaugarritasun-egoera bat baliatzea, edota ordaintzea edo onurak ematea edo jasotzea beste norbaiten gaineko agintea duen pertsona baten adostasuna lortzeko, esplotazioa helburu. Esplotazio horrek barne hartuko ditu, gutxienez, besteren prostituzioaren esplotazioa edo sexu-esplotaziorako beste modu batzuen, lan edo zerbitzu behartuak, esklabotza edo antzeko praktikak, morrontza edota organoen eruzketa.

Analisirako dimentsio honen elementu hauek hartu dira kontuan:

- Igarobidean pairatutako sexu-indarkeria ezaugarritzea:

- O hiko errealitateak

- Indarkeria gauzatzen duten pertsonak
- Erasoak gauzatzen diren tokiak

- Hegoaldeko Mugako testuinguruan gauzatzen den sexu-esplotaziorako salerosketa ezaugarritzea.

- Hegoaldeko Muga igarotzen duten emakume errefuxiatuek egoerari aurre egiteko dituzten estrategiak, indibidualak zein kolektiboak.

- Hegoaldeko Mugan sexu-indarkeriari arreta ematea (prozedura zehatzak, prestakuntza espezializatua, salerosketaren biktimak identifikatzeko prozesua, etab.)

#### B // UGALKETA-ASKATASUNAREN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeek haundunaldien kopurua edo jaiotzen arteko tartea askatasunez eta erantzukizunez erabakitzeko duten eskubidea urratzen duen indarkeria da. Hegoaldeko Mugatik sartzen diren emakume askoren igarotze-prozesuan amatasunak (desiratua izan ala ez) duen pisuaz jabetuta, dimentsio honetan, emakume errefuxiatuen seme-alabek prozesuan duten rolari buruzko azterketa-atalak txertatu ziren.

- Hegoaldeko Muga igarotzen duten emakumeek pairatzen duten ugalketa-askatasunaren kontrako indarkeria ezaugarritzea:

- Nahi gabeko haundunaldiak
- Abortu arriskutsuak
- Antisorgailuak eskuratzeko aukera

- Hegoaldeko Muga igarotzen duten emakume errefuxiatuek egoerari aurre egiteko dituzten estrategiak, indibidualak zein kolektiboak.

- Hegoaldeko Mugan ugalketa-indarkeriarekin lotutako elementuei arreta jartzea.

- Sexu-esplotaziorako salerosketa-egoeran dauden eta ama diren emakumeen eta haien seme-alaben aurkako indarkeria espezifikoak.

#### C // NAZIOARTEKO BABESA ESKURATZEKO ZAILTASUNAK

Azterketaren dimentsio honetan, pertsona orok bere jatorrizko herrialdetik edo ohiko bizilekutik kanpo babesa bilatzeko duen eskubideaz ari gara, eta horretaz gozatzeko eskubideaz, baldin eta arraza, erlijio, nazionalitate, iritzi politikoagatik edo gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik jazarria izateko beldur oinarrituna badu. Genero arrazoiengatik jazarpena —aukera sexualak eta genero-identitateak eragindakoa barne—, eskubide hori aitortzen duten jazarpen-arrazioen barruan sartzen da.

- Afrikaz hegoaldeko emakumeek nazioarteko babesa eskuratzeko, Ceutan, Melillan eta kostaldean.

- Sexu-esplotaziorako salerosketa-egoeran dauden emakumeak identifikatzea eta nazioarteko babesa eskuratzea.
- Hegoaldeko Mugatik sartzen diren emakume errefuxiatuen nazioarteko babesa hobetzeko elementuak.

## D // BESTELAKO INDARKERIAK

Nahiz eta ikerketaren helburua indarkeria matxistarekin eta nazioarteko babesa eskuratzearekin lotutako elementuak aztertu ahal izatea zen, diseinu metodologikoaren prozesuan ikusi genuen beharrezkoa zela Saharaz hegoaldeko emakumeek Marokon duten zaugarritasun ekonomikoko egoerarekin lotutako galderak sartzea.

Analisirako dimentsio eta elementu hauek baliatuta, elkarrizketak egoteko gidioak prestatzeari ekin genion.

## NORI GALDETU DIOGU?

Dimentsio horiei buruzko informazioa biltzeko, elkarrizketa sakonak egin genizkien migrazioetan adituak diren emakume feministei eta estatu-mailako antolakundeei, errefuxiatuen harreran lan egiten dutenak edo Hegoaldeko Mugari buruz ikertzen ari direnak. Halaber, 2019ko otsaila eta martxoa bitartean, landa-lana egin genuen Melillan, Ceutan eta Marokoko iparraldean. Guztira, 46 elkarrizketa gauzatu ditugu, kolektibo sozialei zein adituei. Antolakunde

askok txosten honetan aipatuak ez izateko eskatu dute, beren lanean izan ditzakeen ondorioengatik. Hori dela eta, ikerketa-taldeak erabaki du elkarrizketatutako antolakunde guztiak ez aipatzea, ezta informazio-iturri asko ez aipatzea ere.

Hegoaldeko Muga zeharkatu duten bost emakume elkarrizketatu ditugu, Nigeriatik, Boli Kostatik eta Kamerundik etorritakoak. Bestalde, Saharaz hegoaldeko zortzi emakumerekin topaketa bat egin da Tangerren, elkarrizketatutako antolakunde baten laguntzarekin antolatua. Horrez gain, gaiari buruzko bibliografia sakona landu da, azken atalean kontsultatu daitekeena.

CEAR-Euskadirentzat egindako txosten honen egileak dira: Amanda Andrades Gonzalez, Itziar Gandarias Goikoetxea, Ana Ferri Yañez eta Beatriz de Lucas Larrea (koordinatzailea). Silvia Piris Lekuonak metodologiaren diseinuan lagundu du. △

Bidea



# MUGAK ESTERNALIZATZEAREN INPAKTUA, IGAROBIDEAN DAUDEN EMAKUMEEN BIZITZETAN

## 1 // SARRERA

Mugak esternalizatzeko eta militarizatzeko politikek elkarlanean aritzeko bi kide dituzte: Espainia eta Maroko. Europako Batasunak eta estatu kideek babestu eta erreproduzitu egin dituzte Hegoaldeko Mugan, azken 30 urteetan, abian jarritako politika eta ekimen asko: hesiak eta labanak instalatzea, itsasoa zelatzeko sistemak, berriz hartzeko akordioak, migrazio-fluxuak kontrolatzeko laguntza baldintzatzea, etab.

Sekurizazio prozesu horretan, Helena Maleno (2016) ikerlari eta ekintzaileak salatu duenez, «mugak 'gatazka gune' gisa definitu dira, eta 'gerretan' dena da posible; diskurtso horri esker, giza eskubideak bermatzen dituzten lege-esparruetan salbuespen-eremu bat egon dadin utzi da».

*Ez-leku* horiek igarotzen diren pertsonen heriotzaz eta haienganako indarkeriaz lepo daude. Algeciras Acoge antolakundeko

Encarna Marquez eta Rocio Sierraren hitzetan, «mugak esternalizatzek indarkeria handia eragiten du, milaka pertsona hiltzen ditu. Ez gara soilik itsasoa gurutzatzeaz ari, baizik eta basamortuaz ere, bertan hiltzen baita, ziur asko, itsasoan baino askoz jende gehiago».

Mugak zabaltzen eta lekualdatzen joan dira, sinbolikoki zein geografikoki. Gaur egun, mugak, jada ez datoz bat Europako lurraldeen mugekin (Hegoaldeko Mugaren kasuan, Andaluziako kostaldea, Ceuta eta Melilla). Aitzitik, gero eta lurralde zabalagoak hartzen dituzte, non abian jartzen diren Europako Batasunak sustatutako eta finantzatutako migrazio-kontrolerako politikak.

Hegoaldeko Mugaren kasuan, Human Rights Watchek (2014) adierazten duen bezala, «ezin dira bereizi, batetik, Marokoko segurtasun-indarrek giza eskubideen aurka egindako gehiegikeriak

eta, bestetik, EBk eta estatu kideek migratzaile irregularrak irits ez daitezten egiten dituzten ahaleginak. Asiloa eta migrazioa esternalizatzeko estrategiaren funtsezko elementua da hori. Helburua da migratzaileen, asilo-eskatzaileen eta errefuxiatuen karga eta haiekiko erantzukizuna EBtik kanpo desbideratzea; inguruko estatuetara, alegia».

Eta horretan laguntzen du *igarobideko migrazio* kontzeptua bera erabiltzeak. Autore batzuek adierazten duten bezala, kontzeptu hori modu interesatuan erabiltzeak lagundu egiten du «mugaldeko eremuetan (Argelia-Maroko, Maroko-EB) paperik gabeko migratzaileen aurka egindako indarkeria estaltzen, erraztu egiten baitu tartean dauden herrialde guztiek eta EBk berak ekintza horiekiko duten erantzukizuna baztertzen eta mugaren beste aldeko herrialde baten gain jartzen, eta herrialde horrek, aldi berean, gauza bera egin dezake jatorrizko

herrialdeekin. Testuinguru horretan, [migratzaileen] biktimizazioak Europako Auzotasun Politikaren “albo kaltea” dirudi kasik: ez dira kontuan hartzen politika horren babesa ezta erantzuna ere, eta migratzaileen osasuna ez da giza eskubidetzat hartzen, are gutxiago osasun publikoko gaitzat (...). Haien bizitzek ez dute garrantzi politikorik, ez beren burua tokiko agintaritzat hartzen dutenentzat, ez Marokorentzat, ez EBrentzat, ezta mundu-mailan ere».

Esternalizazio-politikekin batera, mugak sekuritizatu eta militarizatu egiten dira, eta enpresa handiek irabaziak lortzen dituzte. Pribatizazio horrek ondorio larriak ditu, hala nola ikertzea, salatzea eta erantzukizunak eskatzea oztopatzen duen opakutasuna dagoelako. Horrek eragina du, halaber, emakume migratzaile eta errefuxiatuen bizitzan, nahiz eta zaila den hori kokatzea esternalizazio-prozesuaren egituraren baitan.

«Zenbat eta gehiago kostatu jarraipen eta monitorizazio hori egitea, analisi hori egitea, orduan eta ikusezino bihurtuko dira praktika horiek eta emakumeengan dituzten ondorio espezifikoak» dio Maria Solerrek, Ekintza Ez-biolentoko Nazioarteko Institutuko (Instituto Internacional por la Acción Noviolenta, NOVACT) kideak.

Migrazio-politika horiekin batera, diskurtso sekuritarioa sustatzen da, zeinak kontrola

eta «segurtasuna» legitimatzen dituen giza eskubideen bermearen gaitetik:

*«Gehiago hitz egin beharko genuke irabaziak lortzen dituzten enpresei buruz, eta migrazioa kontrolatzeko egiten ari diren kontratazio publikoei buruz. Funtsezkoa da. Baina garrantzitsua da ere eztabaidaren erdigunera ekartzea diskurtso sekuritarioa, eta aztertzea immigrazioa zerekin lotzen dugun; izan ere, diskurtso horren atzean, hedabideetatik iristen zaiguna dago, eta horrek elikatzen du iritzi publikoa eta migratzaileei buruzko imaginario kolektiboaren eraikuntza. «Oldarraldi masiboa» eta diskurtso militarra saltzen ditu. Horrela zilegitzen da diskurtso sekuritarioa mantentzea eta haren inbertitzea. Hala, horri aurre egin behar diogu giza segurtasuna —eta ez indarkeriatik ulertzen den segurtasuna— erdigunean jartzen duten diskurtsoak sortuta. Eta, jakina, aztertu egin behar dugu honek emakumeei zehazki nola eragiten dien».* (SOLER, ELKARRIZKETA).

Militarizazio testuinguru horietan, Malenoren (2016) arabera, «menderatze-sistema patriarkala indartu egiten da, dela migratzaile-komunitateen bidez, dela igarobide- eta harrera-jendarteetan, dela salerosketa-sareetan, dela segurtasun-eta kontrol-indarretan bertan, eta genero-desparekotasunak gehiago indartzen ditu. Horrela, bortxaketa sexual sistematikora iristen da, eta mugan beste arma baten

moduan erabiltzen da; gatazka guztien osagai endemikoa da».

## 2 // MAROKOREN ELKARLANA, MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUEN AURKAKO ERREPRESIOAN

2019ko urtarrilaren 18an, Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak onartu egin zuen Ceuta eta Melilla hiri autonomoetan mugako babes-sistema indartzeko eta modernizatzeko neurrien plana, 32 milioi eurokoa. Plan horren helburua da «migrazio irregularren aurkako prebentzioa areagotzea, Estatuako Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideen eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzea, eta giza eskubideen errespetua ziurtatzea». Jasotako neurrien artean, honako hauek nabarmentzen ziren: Ceutako mugako perimetroan telebista-zirkuitu itxiko (TZI) sistema berria instalatzea, Melillako mugako perimetroko zuntz optikoko sarea hobetzea eta TZIko sistema zabaltzea, zenbait zatitan hesia hamar metrora igotzea, eta Tarajaleko (Ceuta) eta Beni Enzar-eko (Melilla) mugetako pasabideetan aurpegia ezagutzeko azpisistema ezartzea. Bestalde, 2019an, Espainiako Gobernuak hesietako labanak erretiratzen hasi zen, giza eskubideen aldeko antolakunde ugari salatuz zituztelako.

Aldaketa horiek egiten hasi ahala, Marokoko Gobernuak ere abian jarri zituen migrazio-kontrolerako ekintzak, Europako

Batasunak emandako 140 milioiren bidez, Afrikarako duen Larrialdietarako Funtz Fiduziaroaren baitan. Diru horrekin, mugako perimetroetan presentzia militarra indartzeaz gain, 2019an, hobi bat eta labanak dituen hesi bat eraiki dituzte. Hortaz, hesietako labanak Espainiako hesietatik desagertzen hasi ziren, eta Marokoko mugako perimetroan kokatzen hasi ziren. Bestalde, Europako funts horiek ibilgailu, txalupa eta dron kopurua handitzeko baliatu dira, baita migrazio-kontrolerako ekipamendu teknologikoa hobetzeko ere. 2019ko abenduaren 11n, Europako Batzordeak jakinarazi zuen Afrikako iparraldeko hainbat herrialderi laguntzeko neurri-sorta berria onartu zuela. Horren bidez, Marokori 101,7 milioi euroko laguntza emango zaio, «pertsonek salerosketari aurre egiteko eta migrazio irregularra kudeatzeko».

Kontsultatutako entitate guztiak diote 2018ko udatik gora egin duela migratzaileen aurkako jazarpenak eta indarkeriak, uztailako Ceutako hesiaren jautzia eta gero, non 600 pertsona inguruk gurutzatzea lortu baitzuten.

Nahiz eta indarkeria- eta errepresio-egoera berria ez izan, eta giza eskubideen aldeko hainbat erakundek duela urte batzuetatik salatzen badute ere, egoera honek are ezaugarri kezkarriagoak ditu: atxiloteta arbitrarioak, baita egoera administratiboa erregularizatuta duten pertsonenak ere;

miaketak eta sarekada bortitzak, auzo osoetan eta etxe partikularretan; baldintza osasungaitzak dituzten zentroetan atxilotzea; eta deportazio masiboak hegoaldera, Saharaz hegoaldeko migratzaileak urruntzeko. Hori guztia ez da aldizkako kontua, sistematikoa baizik.

Atzerritarren eta Migratzaileen akonpainamendu eta defentsarako talde antirrazistako (Groupe antiraciste d'Accompagnement et de Défense des Etrangers et Migrants, GADEM) kide Camille Denisen hitzetan, oso kezkatuta daude; izan ere, «aldizkako desplazamenduak [pertsonek mugako perimetrotik urruntzeko egindako joan-etorriak] erregearen bisiten ostean, eta halakoan ostean gertatzen zirenak, ohiko praktika bihurtzen ari dira». Antolakunde honek 6.500 atxiloteta (batez ere Tangerren) eta «desplazatu» baino gehiago zenbatu zituen, 2018ko uztailetik irailera bitartean<sup>2</sup>. Kopurua handiagoa da, zalantzarik gabe, kontuan hartzen badugu operazio horiek ez zirela hiri honetan bakarrik egin, baizik eta lurralde osoan.

Marokoko iparraldean lan egiten duten antolakundeek salatzen dute polizia errepresioa egunerokoa dela:

*«Polizia egunero igotzen da. Dena erretzen eta suntsitzen dute. Hau berria da 2018ko abuztutik. Iaz, EBk diru asko eman zion*

*Marokori, eta akordio horretatik aurrera areagotu egin da polizia errepresioa. Dirurik ez duen jendea kanpalekuetan egon behar da. Polizia egunero igotzen da; horregatik, kanpalekuetako jendea goizeko lauretan jaikitzen da, muinoan gora igo eta ezkutatzeko. Tortura psikologikoa da, eta antsietatea, larritasuna eta tristura sortzen ditu. Haurrak dituzten emakumeak hirira joaten hasi dira, edo etxeak alokatzen dituzte kanpalekuen inguruan. Egunero daude itzulketak hegoaldera. Ez diete atsedean hartzen uzten, lasai bizitzen. Denda itxi dute, janaria erostera jaitsi ez daitezten. Lapurtu egin diete. Kanpaleku osoa erre diete. Motxilarekin ibiltzen dira egun osoan, daukaten gauza bakarra kendu ez diezaieten».* (MAROKOKO IPARRALDEKO ANTOLAKUNDEKO KIDEA, ELKARRIZKETA).

GADEMeko txostenen arabera, eta beste antolakunde batzuekin egindako elkarrizketek berrestendutenez, atxilotetak eta desplazamendu behartuak esparru juridiko orotik kanpo egiten dira, eta marokoarrak ez diren beltzei soilik aplikatzen zaizkie, haien egoera juridikoa edozein dela ere. Etxebizitzetan gertatzen dira, goizaldean, eta, batzuetan, polizia pisuak arpilatzen ditu, edo badaude gero etxe abandonatueta lapurtzen duten pertsonak ere. Leku publikoetan ere gertatzen dira: kalean, dendetan, hirietatik gertu dauden basoetan eta Melillatik eta Ceutatik gertu dauden mendietako

kanpalekuetan. Eskuburdirak jartzen dizkiete polizia-etxean, autobusetan sartu aurretik, edo atxilotzeko unean bertan.

Askotan, atxilotuei ez diete esaten nora eramango dituzten, eta ez dute amaiera arte jakiten. Gainera, lekukotasun batzuen arabera, ez dute ez urik ez janaririk jasotzen, eta joan-etorrietan ezin dira komunera joan.

Marokoko agintarien leku gogokoena Tiznit da, Tangerretik ia 900 kilometrora eta Nadorretik 1.100 kilometrora. Baina Agadir, Béni Mellal, Casablanca, Dakhla, Errachidia, Safi, Fès, Kenitra, Marrakech, Rabat, Settat eta Oujda hirietara ere eramaten dituzte behartuta. Aljeriarekin muga egiten duen azken herri horretan, Oujdan, legez kanpoko deportazioak frogatu dituzte. Atxilotuak hiri horietara urruntzeaz gain, hirietatik urrun samar ere uzten dituzte; batzuetan autobideetako irteeretatik kilometro dezentetara, ordainlekuetan... Maiz, bakarrik eta noraezean, non dauden jakin gabe.

2018ko udan hegoaldera egindako desplazamendu behartuen ezaugarri espezifikoetako bat da biktimak emakumeak eta haurrak<sup>3</sup>, ere badirela, aurreko urteetako sarekada eta kanporatzeetan ez bezala:

*«Uda honetan, Tangerren, jende guztia desplazatua izan da, nahiz eta bizileku-baimena izan. Desplazatu egiten dituzte, uste dutelako muga gurutzatu nahi dutela.*

*Bizileku-baimenean Tanger jartzen ez badu, Marokoko beste leku batzuetara ere deportatzen dituzte. Uda honetan kamioiak eta autobusak zeuden: emakumeak, haurrak, haurdunak... berdin zen. Lehen gizonak desplazatzen zituzten, baina orain jende guztia».* (KHADIJA ANANI, MAROKOKO GIZA ESKUBIDEEN ELKARTEA, AURRERANTZEAN AMDH, ELKARRIZKETA).

Mujeres en Zona de Conflicto elkarteak salatu duenez, beraiekin lan egin duten Saharaz hegoaldeko emakume gehienak, gutxienez behin, hegoaldera desplazatuak izan dira. Virginia Rodriguez Romo psikologoak adierazi duenez, «abuztua oso hilabete txarra izan zen. Polizia goizaldean sartzen zen etxeetara. Orain kalean atxilotzen dituzte, edo basora doaz, Tangerreko kanpoaldera. Izan ere, emakume asko bizi dira basoan, eta sexu-indarkeria handia jasaten dute».

Antolakunde batzuek zehaztu dute, ordea, lehenago hasi zirela emakumeen eta haurren atxilotetak eta behartutako joan-etorriak.

GADEMen txostenetan (2018) jaso egin dituzte sexu-indarkerien biktima edo lekuko izan direla dioten emakume batzuen testigantzak: «Emakume bat harrapatu eta arropa guztia kendu zioten». «Telefonoak hartu zituzten. Emakume batzuek kulerioetan gordetzen dituzte. Poltsikoan uzten baduzu gorputz osoa ukitzen dizute, ipurdia,

<sup>1</sup> Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariak (UNHCR) honela definitzen du pertsonen trafikoa: «Pertsona bat estatu batean legez kanpo sartzea erraztea, estatu horretako nazionalitatea izan gabe edo egoiliar iraunkorra ez bada, zuzenean edo zeharka onura finantzario bat edo bestelako onura material bat lortzeko».

<sup>2</sup> GADEM. *Coûts et blessures Rapport sur les opérations des forces de l'ordre menées dans le nord du Maroc entre juillet et septembre 2018 – Éléments factuels et analyse*. 2018ko iraila. Txosten hau eta beste ohar osagarri bat (*Expulsions gratuites Note d'analyse sur les mesures d'éloignement mises en œuvre hors tout cadre légal entre septembre et octobre 2018*) argitaratzeak, agintarien jomugan jarri du, are gehiago, antolakunde hori, eta oztopoak eta eragozpenak jarri dizkiote bere lanari. Adibidez, webguneak ia urte eta erdi darama erorita.

<sup>3</sup> Jasotako lekukotza eta informazioen bidez, GADEMeK 121 adingabe zenbatu zituen atxiloteta arbitrarioen eta desplazamendu behartuen biktima gisa, eta 151 emakume, horietatik 21 haurdun zeuden.



ipurmasailak, eskukatu egiten zaituzte, ere emakumeok ere, eta telefonoak hartzen dituzte. Kulerioetan badaude, ez dira ausartzen».

Errepresioaren eta migrazio-kontrolaren gorakadak, gainera, beste eragile batzuen aldetik sexu-indarkeria jasateko arriskuan jartzten ditu emakumeak:

«*Mugetara egiten diren desplazamenduak asko kontrolatzen dira. Beraz, helmugara iritsi aurretik, autobus gidariak migratzaileak jaisten dituzte, agintariekin arazorik ez izateko. Gizon eta emakumeak hirietara iritsi aurretik jaitsi behar dira, ezerezaren erdian. Eta hor, kate baten konplizitatea dago, mafia taxiaren konplizitatea; horiek eramaten dituzte kanpalekuetara. Eta une horretan, askotan, bortxaketak eta emakumeen bahiketak gertatzen dira, bizpahiru egunez. Taxi horietako gidariak, marokoaurrek, bortxatzen dituzte emakumeetako asko. Eta 10 emakumetik soilik bat da gai bortxatua izan dela esateko. Zaila da. Kasu asko izan ditugu».* (MAROKOKO IPARRALDEKO ANTOLAKUNDEKO KIDEA, ELKARRIZKETA).

Hainbat antolakundek salatu dutenez, Marokoko agintariak desplazamendu behartu horiek legitimatzen saiatzen dira, eta aitzakia gisa erabiltzen dute sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako borroka.

«*Salerosketa-sareak desegitea aitzakia da mugetara eta basoetara iristeko. Hain zuzen*

*ere, sareak desegiten ariko balira, biktimak babesteko sistema bat egon beharko litzateke, eta laguntza psikologikoa duten zentroetara eraman beharko liriateke... Baina ez dago halakorik; aitzitik, ustezko biktimak hegoaldera eta erdialdera deportatzen dituzte, mugetatik ahalik eta urrunen».* (AINANI, AMDH, ELKARRIZKETA).

Elkarrizketatutako beste kultur bitartekari batek, Marokoko iparraldean lan egiten duenak, hala dio: «Marokoko agintariak, kanpalekuak desegiteko, salerosketa-sareen aitzakia erabiltzen ikusi ditugu». Elkarrizketatutako batzuen arabera, biztanle zaurgarrienak salerosketa-sareetatik babesteko aitzakia erabiltzen ari dira, baina babes hori ez da inoiz gauzatzen; izan ere, «sareak desegiteko unean, mundu guztia deportatzen dute: haurdun dauden emakumeak, haurrak dituzten emakumeak eta bakarrik dauden adingabeak. Mugatik urrundu nahi dituzte».

Saharaz hegoaldeko herritarren aurkako errepresio-politika horrek eragin handia du Marokon dauden migratzaile eta errefuxiatuen osasun emozionalean. Saharaz hegoaldeko emakume askorentzat, diru-sarrerak izateko aukera bakarra eskean ibiltzea da, baina errepresio-egoera orokorra oztopo handia da:

«*Poliziak ez die limosna eskatzen uzten. Beldurrez daude, etxean, abuztuan etxeetako ateak bota zituztelako Saharaz*

*hegoaldeko jendearen bila, eta eraman egin zituzten, paperak izan ala ez, baita haurrak zituzten emakumeak ere. Emakumeak tentsio handiarekin bizi dira eta, gainera, haietako asko bakarrik daude. Lorik egin ezinik daudela diote».* (MAROKOKO IPARRALDEKO ANTOLAKUNDEKO KIDEA, ELKARRIZKETA).

lkerketa honetarako landa-lana egin bitartean bilera bat egin zen, Tangerangren bizi ziren zortzi emakumek eta hiru umek osatutako talde batekin. Bertan, guztiek, bizi zuten estres emozional handiaz eta poliziaren errepresioarekiko etengabeko beldurraz hitz egin zuten. Gauzez ezin zuten normaltasunez lo egin, eta auzoetan gerta zitezkeen atxiloketa edo sarekada baten aurrean alertan bizi zirela esan zuten guztiek.

### 3 // ESTERNALIZAZIOAREN INPAKTUA EMAKUMEENGAN

Bidaian zehar, emakumeek indarkeria-continuum bati aurre egin behar diote; mugak esternalizatzeko eta militarizatzeko politikek gero eta rol negatiboagoa dute, eta emakumeen autonomia gutxitzen eta beren zaurgarritasuna-egoera areagotzen dute. Horrela, txostena egiteko kontsultatu ditugun antolakunde guztiek nabarmendu egiten dute bide legal eta seguruen faltaren eta ibilbidean zehar dagoen indarkeriarekiko esposizioaren arteko lotura:

«2014an, Tangerangren egon nintzenean APDH Arako lekuan bertan eginiko ikerketa-prozesu batean, Senegalgo emakumeek ez zuten bidaiatzeko bisa aurkeztu beharrik, eta, beraz, askoz ere bide autonomo eta seguruagoetatik iristen ziren. Haiekin hitz egitean, ez ziren sareen bidez mugitu behar; aitzitik, nahiko igarobide autonomoa eta erraza izan zuten, askotan, autoz edo autobusez. Ondoren, Kamerundik edo Nigeriatik igarotzeko, bide legalen ordeko bideak behar dituzte eremu gatazkatsuagoak direlako, eta orduan aipatzen dute agente armatu edo uniformatuen indarkeria. Oro har, elkarrizketatu genituen emakume guztiak adierazi ziguten ezinezkoa dela joan-etorria bakarrik egitea; batez ere, bide legalik ez dutenentzat». (TALIA ARDANA, APDHA, ELKARRIZKETA).

Antolakundeek adierazten dute lotura dagoela mugen "sekurizazioaren" eta salerosketa-sareak indartzearen artean. Izan ere, emakumeek sareetara jo behar izaten dute bidaiarekin jarraitzeko eta Europara heltzeko:

«Ateratzen diren herrialdearen arabera, mendekotasuna dago jatorritik bertatik, dela dirua utzi dizun familiarekiko, dela bidaia errazten dizun sarearekiko. Faseak igaro ahala, mendekotasun hori areagotu egiten da, ez dagoelako estrategia edo alternatiba ekonomikorik. Bidea errazten dizun sarearekiko mendekotasuna; iristen

zarenean ostatua lortzeko mendekotasuna; edo, elkarrekin bizi den pertsona-taldean babesle bat izateko mendekotasuna, gatazkarik edo abusurik ez jasateko. Autonomia galtzeari dagokionez, gorantz doan zaugarritasun eta indarkeria zikloa da». (ARDANA, ELKARRIZKETA).

Sareen indarkeria, zaugarritasuna eta mendekotasuna areagotu egiten da, askotan, Europarekin muga egiten duten herrialdeetara iristean. Ardananaren hitzetan, emakume batzuentzat «indarkeria Tangerangren iristen da, baita mendekotasuna ere, itsasartea zeharkatzeko modua bilatzean, Tangerangren bizirauteko modua bilatzean, muga gurutzatzeko dirua irabaztean. Askotan, indarkeria hori ez dator beren jaioterritik, Tangerangren Espainiako Hegoaldeko Mugarekin sortzen den tapoitik baizik». Eragina du horretan migrazio-ibilbidearen zein Marokoko egonaldiaren kostua igo izanak, edota gora egin izanak itsasartea txalupaz edo pateraz gurutzatzeko prezioek; gero eta eskuraezinagoak dira. Prezioen igoerak lotura dauka Marokon areagotu den errepresioarekin.

#### **4 // ANTOLAKUNDE SOZIALEN LANA ERREPRESIOAREN TESTUINGURUAN**

Marokon migratzaileei laguntzen dieten antolakunde sozialek salatu dutenez, Saharaz hegoaldeko herritarren aurkako

errepresio-egoerak eragina du, halaber, haiek egiten duten laguntza lanean. Horietako askok zailtasun handiak dituzte migratzaileak eta errefuxiatuak artatzeko, atxilotuko dituzten beldur direnez ezin direlako antolakundeetara hurbildu. Azpimarratzekoa da, halaber, Marokon elkarrizketatutako zenbait antolakundek ez dutela aipatuak izan nahi txosten honetan, haien lanean izan ditzakeen ondorioen beldur direlako. △

# NORTZUK GURUTZATZEN DUTE, GAUR EGUN, HEGOALDEKO MUGA?

## 1 // NORTZUK GURUTZATZEN DUTE, GAUR EGUN, HEGOALDEKO MUGA?

APDHAren migrazio balantzearen arabera (2020), 2019an, Hegoaldeko Muga gurutzatu zuten pertsonen 12,5% soilik ziren emakumeak. Ezin da profil bakarrean homogeneizatu Espainiako kostaldera iristeko bizia arriskuan jartzen duten emakume bakoitzaren atzean dauden istorioen, baldintzen eta itzaropenen handitasuna. Hala ere, zenbait ondorio atera daitezke Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozen, eta, gaur egun, Hegoaldeko Muga gurutzatzen duten emakumeak nortzuk diren ulertzen laguntzeko.

### PROFILAREN ZIRIBORROA

Elkarrizketatutako antolakunde guztiek diote jatorrizko nazionalitateak aldatzen joan direla, baina nabarmentzekoa da azken hiru urteetan gora egin duela Ginea Konakrytik, Boli Kostatik eta Kamerundik datozen emakumeen kopuruak. Orokorrean, emakume gazteak izan ohi dira. Esan ohi dute 20 eta 22 urte artean dituztela, baina normalean gazteagoak dira, 17 eta 19 urte artekoak. Giza eskubideen aldeko hainbat

erakunde eta Nazio Batuek salatu dutenez, adina zehazteko probek errakuntza tarte handia dute. Elkarrizketatutako antolakunde batzuek ikusi dutenez, penintsulara adin nagusiko gisa identifikatuta sartzen diren neska gazteak adingabeak direla frogatzen da Frantzia berriz ere proba egiten dietenean.

Azken urteetan antolakundeek nabarmendu dute behera egin duela Nigeriako emakumeen kopuruak, eta hori bera berretsi du CEAREko Hegoaldeko Mugari buruzko 2018ko txostenak ere. 2016an eta 2017an aldatu egin zen Nigeriako emakumeen ibilbidea, eta Libiatik Italiarako ibilbidea aktibatu zen. Hala ere, Libiako muga 2018. urtearen amaieran itxi zutenez, Nigeriako emakumeak, berriro ere, Hegoaldeko Mugatik iritsi dira, nahiz eta oraindik oso nabarmena ez den.

Elkarrizketatutako antolakunde batzuen arabera, haietako askok hezkuntza-maila altua daukate, eta batzuk unibertsitatera joan ahal izan dira; hala da Ginea Konakrytik datozen emakumeen kasuan.

Aipagarria da 2019an Hegoaldeko Muga

igaro zuten emakume marokoar eta aljeriarren gorakada. Emakume horietako askok genero-arrazoiengatik jazarpenetik ihes egiten dute, normalean genero-indarkeriagatik, edota genero-identitateagatik edo sexu-orientazioagatik jazarriak izan dira.

Azkenik, zenbait entitatek ohartarazi dutenez, gora egin du penintsulara iristen diren haur adingabeen kopuruak, baita beren seme-alaba biologikoak ez diren haurrak dituzten emakumeen kopuruak ere. Horrek, halaber, APDHAren azken txosteneko (2019) datuak berresten ditu: 2018an %12,26 ziren, eta 2019an %30. Espainiako Gurutze Gorrian antzeman dute, Italiako eta Greziako Gurutze Gorrian bezala, gora egin duela haur adingabeen kopuruak. Besteak beste, salerosketarekin lotuta egon daitekeela uste dute. Era berean, kezka adierazi dute adina zehazteko prozesuekiko eta haurtzaroaren ikuspegiarekiko, salerosketa-eta adingabetasun-adierazleek bat egiten duten egoeretan.

Haienak ez diren adingabeekin bidaiatzen duten emakume kopuruaren gorakadari dagokionez, lheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariaren (UNHCR) arabera, adin

ertaineko haurrak dira, haurtxoak baino gehiago.

## ZERGATIK DOAZ BEREN HERRIALDETIK?

Alde egiteko arrazoiei erreparatuz gero, hainbat maila daude: egiturazkoak, komunitateari/familiari lotuak eta pertsonalak. Emakumeak ez dira beti arrazoi bakar batengatik joaten beren herrialdeetatik. Helena Malenoren arabera (2018), hiru maila horiek, askotan, gurutzatu eta korapilatu egiten dira emakumeen istorioetan.

*«Zentzu horretan, elkarrizketatutako antolakundeek bi profil mota bereizten dituzte, zeintzuetan maila horiek korapilatzen diren. Lehenik eta behin, helburu gisa Europara iristea, eta haien zentzu eta haien familientzat hobekuntza ekonomikoa lortzea duten emakumeak. Egiturazko desparekotasunak eta muturreko pobrezia nagusi diren herrialdeetatik datozen emakumeak dira, eta ez dute inolako aukerarik aurkitzen, ez haien zentzu ez haien seme-alabentzat. Izan ere, emakume askok haurrak senideekin uzten dituzte, Europara iritsi eta baldintza hobekak eskaini ahal izateko, hezkuntzari dagokionez bereziki».* (TYSZLER, 2018).

Ceutako Cruz Blanca Fundazioak adierazi duenez, gero eta ohikoagoa da batez ere Ginea Konakrytik datozen emakume gazteen profila. Beren herrialdeetan

ikasten ari ziren emakumeak dira, eta Europara joandako bere komunitateko bizilagun bat, paperekin itzuli, eta haiekin ezkontzen da. Kidea Europara itzuli, eta bidaia ordaintzen die emakumeei. Belgika, Frantzia edo Alemaniarako bidea egiten duten emakumeak dira, han bizi diren eta ia ezagutzen ez dituzten senarrekin elkartzeko. Beste batzuek ez dituzte gizonak inoiz ikusi, sare sozialetan ezagutu dituzte, Facebook bidez adibidez, eta haiekin joatea erabakitzen dute. Zentzu horretan, sare sozialen papera funtsezkoa da. Gainera, familiengandik presio sozial handia jasaten duten emakumeak dira, Europara joan eta ezkondu daitezten. Cruz Blanca Fundazioaren susmoa da, ezkontza horietako batzuen atzean, esplotaziorako salerosketa-kasuak egon daitezkeela:

*«Harreman horiek, ez guztiak, beste zerbait izan daitezkeela susmatzen dugu. Batzuk ezkontza-agiriekin datoz, pasaportearekin, senararen egoitzarekin; baina zenbateraino izango da salerosketaren biktima emakume hori? Benetakoa al da agiria? Arraroa iruditzen zaigu, Ceutatik atera eta hilabetera, emakume gehienak ezkondu egotea».*

Antolakundeek aipatzen duten bigarren profila honakoa da: beren herrialdeetan, komunitateetan eta familietan indarkeria anitzetatik ihes egiten duten emakumeak. Haien berehalako helburua herrialdetik

ateratzea da, Europara iristea baino gehiago. Indarkeria anitz horien artean, Boli Kostako gerra-gatazketatik eta Ginea Konakryko erregimen autoritariotik ihes egiten duten emakumeak daude. Halaber, emakume batzuek ihes egiten dute beren herrialdeetan finkatutako atzerriko erazketa-industriari sortutako indarkeriek komunitateetan duten eraginagatik; indarkeria horiek kalte espezifikoak dituzte emakumeen eskubideen urraketan (Maleno, 2018).

Emakumeak beren herrialdeetatik kanporatzen dituen beste indarkerietako bat genero arrazoiengatik jazartzen da; ezkontza behartuak eta emakumeen mutilazio genitala, besteak beste. Antolakundeen arabera, profil hori ohikoagoa da Ginea Konakrytik eta Boli Kostatik etorritako emakumeen artean. Emakumeek, halaber, ihes egiten dute beren bikotekideen genero-indarkeriatik; gertuko senideen sexu-indarkeriatik; senideen indarkeriatik, ezkondu aurretik haurdun geratzetik eta beren bikotekideek abandonutik; eta beren genero-identitatea eta sexu-orientazioagatik jazartzen izateagatik (Tyszler, 2018). Emakume askok ihes egitea eta migrazio-bideari ekitea erabakitzeke oinarria eta arrazoiak askotariko genero-indarkeriak dira. Emakumeek, beren ihesarekin, bizirik jarraitzeko estrategiak bilatzeaz gain, hautsi egiten dituzte beren jatorrizko jendarteetan errotutako kultura-ereduak, irudimen-ereduak eta genero-itxaropenak.

## ZEINTZUK DIRA BIDEAK?

Arestian azaldu bezala, APDHaren azken txostenaren arabera (2020), behera egin du emakumeen etorrerak: 2019an %12,63 izan ziren, eta 2018an %17. Beherakada horrek lotura estua du Saharaz hegoaldeko pertsonen Europako Batasunaren laguntzarekin Marokon garatzen dituzten errepresio-politikekin. Elkarrizketatutako antolakundeak ere bat datoz horrekin, eta adierazi dute errepresio-politika horien ondorioz aldatzen ari direla migrazio-bideak, sarbideak eta bideetako baldintzak.

Sarbideei dagokienez, Tyszlerrek zehazten du gizonak modu gehiago dituztela Hegoaldeko Muga gurutzatzeko, baina emakumeei itsasoa zeharkatzea dagokiela. Emakumeek ez dute hesia bitarteko gisa erabiltzen; emakumeek hesia saltatuz egindako bi saiakera baino ez dira ezagutzen. Emakumeek, nagusiki, bi bide erabiltzen dituzte: bata, lehorrekoa, auto-etan ezkutatuta muga-postua gurutzatuz, Ceutako mugatik gehiago erabiltzen dena; bestea, itsasokoa, Andaluziako kostalde-raino itsasoa zeharkatzen duena, nahiz eta azken urtean nabarmen handitzen ari den Kanariar Uharteetara jotzen dutenen kopurua (APDHA, 2020). Metodo bakoitzaren kostu ekonomikoa ezberdina da. Muga autoz gurutzatzea da garestiena, antolatzeko orduan dauden arriskuak eta eskakizunak direla eta. Izan ere, emakumeek pasaporte faltsu batekin

igaro behar dute. Hala ere, baliabide gehiago dituzten emakume migratzaileek nahiago dute ibilgailuetan ezkutatuta gurutzatu, itsas bidea arriskutsuagoa baita. Elkarrizketatutako antolakundeen arabera, emakume batzuk makillatuta doaz azalaren tonua argitzeko, eta zapi batez estalita, ezer ikus ez diezaieten. Pasaporte faltsu edo alokatuaren bidez pasatzen dira. Hala ere, bide hori ez da ohikoa Saharaz hegoaldeko emakumeentzat. Haientzat itsasoa gurutzatzea da ia aukera bakarra.

Itsasoz gurutzatzearen prezioa ontzi motaren arabera da. Elkarrizketatutako antolakundeen arabera, prezioa oso aldakorra izan daiteke; 150 eta 2000 euroren artekoa izan daiteke. Zenbat eta gehiago ordaindu, orduan eta seguruagoa da ontzia. Oro har, ordainketa banku-transferentziaren bidez egin ohi dute. Ez badute lortzen, berriz ere saiatzen dira, lortu arte. Ontzi prekarioenen prezioa 150 eta 200 euroren artekoa da. Kasu horietan, emakume asko bost edo sei aldiz saiatzera ere iritsi dira, eta bitartean, itsasoan galduta egunak ematen dituzten pertsonen kasu latzak entzuten dira, Marokora itzularazten dituztenak. Maiz, ontzietan doazen pertsonak erredura larriak pairatzen dituzte azalean, gasolinak eta itsasoko urak egiten duten erreakzioaren ondorioz.

Antolakunde guztiak azpimarratzen dute 2018. urte amaieratik gora egin duela Melillara Chafarinas uharteetatik iristen den

migratzaile eta errefuxiatuen kopuruak; horietako asko bakarrik dauden emakumeak edo adingabeak dira. Elkarrizketatutako entitate batzuen arabera, batzuetan, zodiak ontzien gidariak uharteetatik gertu uzten dituzte emakumeak, eta Marokorantz itzultzen dira, nahiz eta emakume askok igeri egiten ez jakin. Chafarinetara iristen direnean ez dituzte Marokora itzularazten; aitzitik, Etorkinak behin-behinean hartzeko Melillako zentzura (CETI) eramaten dituzte. Antolakunde batzuen ustez, etorrera horiek trafiko-sareen estrategia baten parte dira; sareek badakite ez dituztela emakume horiek itzularaziko. Azaltzen dutenaren arabera, arazoa honakoa da: emakume askok, estrategia zein den ez dakitenez, uste dute Chafarinetara hutsegitez heldu direla, eta ez dakite Melillako CETIra eramango dituztela, haien helburua penintsulara heltzea zelako.

Migrazio-bideak ere aldatu egin dira azken urteotan, batez ere errepresio-politikengatik eta mugetan gero eta kontrol handiagoa dagoelako. Gero eta zailagoa da, ezinezkoa batzuetan, Afrikako iparraldera iristea pertsonen trafiko-sareetara jo gabe. Marokoko hiri nagusietara, Rabat edo Casablancara, hegazkin bidez iristen diren emakumeen kopurua handitu egin dela adierazi dute antolakundeek. Elkarrizketatutako pertsonak berretsi dute Ginea Konakrytik datozen emakume gehienak fula etniakoak direla, eta hegazkinez Casablancara edo Rabatera iristen ari direla ibilbide laburragoak egiteko.

Aldiz, Kamerungo emakumeek, esaterako, lurreko migrazio-bideak erabili ohi dituzte. Normalean, bide horretatik behartuta daude basamortua zeharkatzera, Mali eta Aljeria igarotzera Marokora iritsi arte. Marokon sartzeko bi moduen artean —Mauritaniako eta Aljeriako mugak—, gehienak Aljeriatik sartzen dira, eta bertan indarkeria eta abusuak etengabeak dira.

Gurutze Gorriko Rosa Floresek adierazi bezala, bidaia-estrategiak etengabe aldatzen dira; gero eta pertsona gehiago iristen ari dira ibilbide segurua goetatik, hegazkinez. Hala ere, bidaia mota horrek beste ondorio batzuk izan ditzakeela uste du, zorra handiagoa baita. Bide horrek seguruagoa dirudi hasieran, baina zorra pilatuz gero, ondorio okerragoak izan ditzake epe ertain eta luzean.

Zentzu horretan, Marokoko egonlekuak ere aldatzen ari dira. Mugako perimetroen inguruko zonaldeetan kontrol eta zaintza handia dagoenez, eta migratzaileak Marokoko iparraldetik hegoaldera desplazatzen dituzten errepresio-politikak direla eta, elkarrizketatutako erakundeek azaldu dute trafiko-sareak hegoalderago joan direla, eta hala nola Casablancatik egindako bidaiak zuzenean kudeatzen dituztela:

*«Muga oso kontrolatuta dagoenez, eta hor bizitzea galarazten dutenez, jendea hegoalderago joaten ari da, baita mafiak*

*ere, Casablanca aldera. Casablancan daude eta bidaia prestatzen diete, eta Nadorrera igotzen direnean, ez dira Nadorren geratzen, baizik eta paterara doaz zuzenean. Casablancatik kudeatzen dute guztia».* (MAROKOKO IPARRALDEKO ANTOLAKUNDEKO KIDEA, ELKARRIZKETA).

Agintariekin arazorik ez izateko, hegoaldeko hirietatik —Casablanca kasu— sareek kudeatzen dituzten ibilgailuak, normalean, Nadorretik 20 km-ra gelditzen dira, eta bertan mafientzako lan egiten duten taxiak daude, jendea kanpalekuetara eramateaz arduratzen direnak. Emakumeak bananduta igo ohi dira taxiara eta, elkarrizketatutako antolakundeen arabera, batzuek bortxaketak kontatu dituzte. Emakume asko zeharo galduta iristen dira kanpalekuetara.

Marokoko egonaldiaren iraupenari dagokionez, erakunde guztiek uste dute 2018ko abuztutik aldatu egin dela joera, eta gero eta denbora gutxiago behar dutela penintsulara iristeko. Orain denbora gutxi ematen dute kanpalekuetan; batzuetan egun bakarra. Lehen lidergo-egitura egonkorra zeuden, barne-antolakuntza zehaztua zutenak. Egun, errepresio-politiken ondorioz, egoera aldatu egin da. Leku galduta ezkutatu behar dute.

Hala ere, adingabeak ardurapean dituzten emakumeen kasuan, Marokoko egonaldia

**1** Chafarinetara iristen diren Saharaz hegoaldeko emakume eta adingabeak normalean itzultzen ez badituzte ere, kasu batzuetan hala gertatu da. Hala, giza eskubideen aldeko hainbat antolakundek salatu dutenez, 2020ko urtarilaren 3an 42 pertsona —tartean 26 emakume eta lau urtetik beherako bi haur— itzuli zituen Marokora Espainiako Guardia Zibilak, Chafarinetako Congreso uhartera iritsi ostean.

luzatu egiten da, eta penintsulara sartzeko itxarongela bihurtzen da. Emakumeek nahiago dute hirietan egon, basoetan edo kanpaleuetan egotea baino. Beste emakume batzuekin eta beren komunitateko kideekin batera, gelak alokatzen dituzte hiri inguruko auzoetako pisuetan, nahiz eta gero eta zailtasun gehiago dituzten alokatu ahal izateko. Iparraldeko zonaldean, Tanger da emakume gehien biltzen dituen hiria, bertatik pateretara iristen direlako. Nadorreko zonaldean emakume gutxiago daude; izan ere, hortik patera batzuk irteten diren arren, sarbide nagusia hesia igarotzea da.

Bidaiaren helmugari dagokionez, antolakundeek adierazi dute herrialde frankofoetatik datozen emakume gehienak Frantziara doazela, horietako askok kontakturen bat dutelako herrialdean.

Tangerreko Migrazioen Elizbarrutiko Ordezkaritzak profil desberdinak bereizten ditu, kontuan hartuta emakumeek itxaronaldia nola bizi duten, estres emozionalaren arabera eta ez hainbeste metatutako egonaldiaren iraupenaren arabera. Genero-berezitasunik hauteman ez duten hiru profil aipatu dituzte. Lehenik eta behin, muga gurutzatzearekin obsesionatuta dauden pertsonak daude, nola edo hala gurutzatzearekin tematuta. Itxaropen horren inguruan bizi dira eta horri buruz pentsatzen dute. Horietako askok

inpaktu psikologiko handia pairatzen dute, porrot egin duten saiakera-kopuru handiagatik. Izan ere, sarritan, haien egonaldia muga gurutzatzean fokatzen ez diren pertsonena baino gehiago luzatzen da. Bigarrenik, beren etorkizunarekin kezkatuta dauden pertsonak daude; ez dute amore ematen, baina erabakitzen dute ez dutela berehalakoan gurutzatuko. Gurutzatzeko aukeraren zain dauden bitartean, dirua irabazten, beren seme-alabak eskolatzen edo, hala dagokien kasuetan, haurdunaldiaren jarraipena egiten saiatzen dira. Azkenik, tarte batez Europara joateari uko egiten dioten pertsonak daude. Antolakunde guztiek adierazi dute ez dutela inor ezagutu muga gurutzatzeko asmoa alde batera utzi duenik, nahiz eta urteak eman Marokon finkatuta. Hirugarren talde honetakoek entitate sozialekin lotura handiagoko prozesuak izan ohi dituzte: prestakuntza eta integrazio sozialeko proiektuetan parte hartzen dute, edo arabiera ikasten dute, moldatu ahal izateko.

Iparraldeko hirietan finkatzen direnean, jatorrizko herrialdearekin lotutako ezberdintasunak daudela azaltzen dute antolakundeek. Adibidez, Mujeres en Zona de Conflicto antolakundeak azaltzen duenez, Nigeriako emakumeen komunitate handi batek urteak daramatza Tangerren, eta bizi-baldintza hobeak lortu ditu hirian. Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeek diote

itsasoari beldur handiagoa diotela, eta hirietan denbora gehiago eman ohi dute. Hala ere, badirudi Boli Kostako eta Ginea Konakryko emakumeak etengabe saiatzen direla muga gurutzatzen, eta horrek frustrazio handia sortzen duela lortzen ez den kasuetan. △





# INDARKERIEN CONTINUUMA

Mugak esternalizatzeko eta sekuritizatze-ko politiken ondorioz, gogortu egiten da Saharaz hegoaldeko emakumeen aurkako etengabeko indarkeria. Hegoaldeko Mugako (ez)mugikortasunaren araubidea ulertzeko, beharrezkoa da aztertzea genero-araubideekin duen artikulazioa; izan ere, funtsezkoa da emakumeengana-ko sexu-indarkeriak jokatzeko duen rola, emakumeen mugikortasuna ahalbidetzen edo blokeatzen baitu. (Cortés, 2019).

Indarkeria ugariko *continuum* bat da, eta ez da bakarrik igarobidean gertatzen; jatorrizko lekuetan ere gertatzen da, eta ez da amaitzen penintsulara iristean. Jarraian, Saharaz hegoaldeko emakumeek jasaten dituzten indarkeria-mailak azalduko ditugu; ez beren artean baztertzailak direlako —izan ere, haien arteko aldiberekotasuna da ezaugarrietako bat—, baizik eta haien ezaugarri espezifikoa hobeto ulertzen laguntzen digutelako.

## 1 // SEXU INDARKERIA. EMAKUMEEN GORPUTZAK MIGRAZIO-ESTRATEGIAREN PARTE GISA

Europara iristeko bide legalik ez dagoenez, emakumeen gorputzak mugetara iristeko eta gurutzatzeko tresna bihurtzen dira. Genero-harremanek bete-betean eragiten dute mugak gurutzatzeko moduetan. Oso zaila da aurkitzea bidean zehar gutxienez behin sexu-indarkeriarik jasan ez duen emakumerik. Kasu horretan, klaseak ez du axola, ezta diru gehiago edo gutxiago izateak ere. Gizonek baino gehiago ordaintzen dute, bai garraioan eta baita mugan ere. Baina diruaz gain, emakumeek beren gorputzak ere jartzen dituzte.

*«Mugan emakume izatea botere ekonomikoaz harago doa: Hegoaldeko Mugan, diru asko dutenak, orokorrean, bizkor igaroko dira, eta indarkeria gutxiago pairatuko dute. Baina emakumea izanik, horrek ez du funtzionatzen. Izan ere, mugan, dirua izanda ere, gizonek kontrolatzen dituzten guneak igaro beharko dituzte: baxora eramaten dituztenak, kanpalekuak zuzentzen dituzten chairmanak, paterara eramaten dituztenak, marokoar agenteak eta, batzuetan, inplikaturik dauden espainiarrak. Igarobidea kontrolatzen duten pertsonen katearen alde batetik bestera,*

*denak dira gizonak. Dirua izan arren, xantxia sexuala dago».* (TYSZLER, ELKARRIZKETA).

Emakume askok igarobidean pairatzen duten sexu-indarkeria normalizatzerantz joaten dute. Bizirauteko estrategia da, argi eta garbi. Elkarrizketatutako antolakundeen arabera, emakumeei zuzenean galdetuta, oso zaila da adierazi dezaten; gehienek normala dela barneratzen dute, eta ez dute indarkeria gisa identifikatzen.

## INDARKERIA GAUZATZEN DUTENAK

Indarkeria hori gauzatzen dutenei erreparatuta, hainbat maila identifika daitezke: a) beren parekoak b) beste komunitate eta herrialde batzuetako gizonak eta c) polizia- eta segurtasun-kidegoak.

Lehenengo eta behin, beren komunitatearen baitan dauden indarkeriak topatzen ditugu. Beren bidaideek gauzatzen dituzten indarkeriak dira, esaterako, kanpalekuetan edo mugako zonaldeetan boterea duten gizonak. Areago, eramaten dituzten trafiko-sareen baitan ere, emakumeek indarkeria eta abusuak pairatu ditzakete sare bereko kideengan-

dik. Askotan testuinguru konplexu eta zalantzas beteak dira, non konfiantzazko espazioak sortu diren; hala ere, sexu-indarkeria presente dago, edo emakumeak indarkeriarantz eramaten dituzte nolabaiteko segurtasuna eskaintzearen truke.

Bigarrenik, emakumeen komunitateaz kanpoko eragileek gauzatzen duten indarkeria dago: beste herrialde batzuetako gizonak dira, kanpalekuetan daudenak, edo kanpalekuen inguruan dauden zibilak. Indarkeria horrek lotura estua du indarkeria arrazista eta matxistarekin, baita klase-indarkeriarekin ere; emakume beltzek pairatzen dituzten indarkeriak, alegia.

Azkenik, poliziak eta mugako agenteek gauzatzen duten sexu-indarkeria dago, Aljeriako mugan zein Marokoko mugan. Elkarrizketatutako erakundeek adierazi dutenez, kanpalekuetako eta basoetako sarekadetan ere ematen da poliziaren sexu-indarkeria, eta normalean oso zaila izaten da egiaztatzea eta salatzea. Ospitaletan, medikuek ez dute zehazten bortxaketarik izan den ala ez, eta ondorioz, emakumeek, azkenean, ez dute ez deklaratu ezta salatzen ere. Hortaz, Saharaz hegoaldeko emakume askoren egoera irregularra dela eta, ezinezkoa da bortxaketa horiek salatzea:

*«Kanpalekuetan erasoak daudenean, poliziaren sarekadak daudenean, emakumeek*

*arriskua daukate poliziaren aldetik sexu-indarkeria pairatzeko. Maiz, emakume bat kanpalekuan dagoenean eta polizia iristen denean, dirua kentzen diote (batzuetan bularretakoan ezkutatzatzen dutena), sarelakoa kentzen diote; hori ere indarkeria da. Emakume batek, sarekada batean, errepresiotik ihesi doala, erori eta haustura bat pairatzen badu, poliziaren presentziak eragindako indarkeriatzat jo dezakegu ere. Polizien bortxaketa kasuak ere izan ditugu, baina oso zaila da egiaztatzea. Izan ere, askotan, emakumea ospitalera iristen denean, medikuek azterketa ginekologikoa egin behar izaten diote, baina normalean ez dute zehazten bortxaketa egon denik, eta, azkenean, emakumeek ez dute deklaratu». (MAROKOKO IPARRALDEKO ANTOLAKUNDEKO KIDEA, ELKARRIZKETA).*

## **NON GAUZATZEN DA SEXU-INDARKERIA**

Tokiei dagokienez, nagusiki lau identifikatzen ditugu: a) kanpalekuak eta basoak, b) mugak edo kontrol-zonaldeak, c) igarotze dituzten herrialdeetako hiri handiak eta d) etxeak langile aritzen diren etxeak.

### **KANPALEKUAK ETA BASOAK**

Antolakundeak bat datoz adieraztean gero eta emakume gutxiago daudela kanpalekuetan; kanpalekuetan daudenak espazio hori zuzentzen duten legeen menpe egon behar dira. Entitateen arabera, emaku-

meak ez badoaz babesten dituzten gizon batez lagunduta, zaurgarritasun handiko egoeran daude kanpalekuko beste gizon batzuek haiekiko gauzatu dezaketen indarkeriaren aurrean. Segurtasun faltaz gain, Marokok migratzaileen aurka gauzatzen duen errepresioaren gorakadak indarkeriarekiko arrisku-maila oso altua eragiten du kanpalekuetan bizi diren emakumeentzat. Hori dela eta, horietako askok estrategia alternatiboak bilatu dituzte, hala nola, emakume askoren artean gelak edo etxeak alokatzea, mugatik gertuko hirietan.

Kanpaleku edo basoetako baldintzak oso latzak dira: baliabideak, higiene-baldintzak... urriak dira. Arrisku handiko testuingurua da. Emakumeek, bizirauteko, haien aurkako abusu eta indarkeria mota jakinak onartu behar izaten dituzte, Europara igarotzen ahalegintzen jarraitu ahal izateko.

Baina indarkeriarekiko arrisku-maila ez da kanpalekuetara mugatzen. Tradizioz, poliziaren errepresioa handiagoa izan da gizonen aurka; horregatik, emakumeak izaten dira hirietara atera eta janaria erosteko ardura dutenak, gero janaria prestatzeko. Normalean emakumeak dira merkatu-ara doazenak, eta hortaz, arrisku gehiago dute erasoak pairatzeko, marokoarren aldetik kasu.

Laburbilduz, Tyslerrek (2018) dioen bezala, «basoan emakume izateak esan nahi du pasabide klandestinoa kontrolatzen

duten gizonen borondatearen menpe egotea; *chairmana* horren kate-maila bat besterik ez da». Horren ondorioz, adibidez, emakume askok basoan itxaroteko denbora luzatzen dela ikusten dute, eta, ondorioz, arrisku handiagoa dute xantaia sexualak, sexu-indarkeria edo bortxaketak jasateko, bai basoan boterea duten gizon migratzaileen aldetik, bai noizean behin kanpalekuetan sartzen diren militar edo zibil marokoarren aldetik.

Garrantzitsua da zehaztea gizonen eta emakumeen arteko harremanak askotarikoak eta pluralak direla, eta aldatu egiten direla kanpalekutik kanpalekura. Hala ere, Tyszlerrek (2018) adierazten duen moduan, baieztatu dezakegu mugak itxi eta militarizatzearen ondorioz, indartu eta muturrera eramaten dela emakumeen feminitate zaugarria eta gizonen gizentasun maskulinoa. Ikertzailearen hitzetan, «Marokoko eta Espainiako soldaduen erreprezio bortitzaren aurrean, batez ere hesien inguruan, dirudenez, gizon migratzaileak beren buruaren autoekoizpenean babes-ten dira frontean bizia arriskuan jartzen duten "soldadu ausartak" balira bezala. Aldi berean, mugaldeko testuinguruaren ondorioz, muga gurutzatzeko antolakuntzaren baitan emakumeen gorputzak kontrolatzen dira».

#### MUGAK ETA KONTROL-ZONALDEAK

Mugen kontrola eta mugak igartzeko

sarbideen kontrola gizonen esku dago, izan Espainiako edo Marokoko Estatuko segurtasun indarretakoak, izan bitartekariak. Mugaldeko testuinguruak mugaren bi aldeetan erreproduzitzen den gizarte- eta genero-ordenan kokatzen dira (Cortés, 2019).

*«Entitate batzuek dioten moduan, mugaldeen «emakumeek gizonen bainto garestiago ordaindu behar dute, eta askotan, ordaintzeaz gain, haiekin oheratu behar izaten dute. Hortaz, konplexuagoa da».* (MUJERES EN ZONA DE CONFLICTO, ELKARRIZKETA).

Horri gehitu behar zaio gidariei, batzuetan, ez dituztela emakumeak eraman nahi, ez dutelako gizonen adina korrika egiten Marokoko eta Aljeriako mugako kontrol-eremuetan, eta taldea moteltzen dutelako. Ondorioz, askotan, denbora gehiago egoten dira mugan, inork ez duelako haietaz "arduratu" nahi, eta indarkeriak pairatzeko arrisku gehiago izan ohi dute.

Nabarmenezkoa da antolakundeek ohar-tarazten dutela gora egin dutela mugaldeen gertatzen diren bortxaketek. Lehen, Marokoko mugaldeen ez zegoen bortxaketarik; aitzitik, gaur egun bi aldeetan gertatzen dira, Aljerian zein Marokon. Are gehiago, emakumeen lekukotza batzuen arabera, bortxaketak egon dira Mali eta Aljeria arteko mugan eta Niger eta Aljeria arteko mugan, baita basamortuan ere.

#### HIRI HANDIAK

Saharaz hegoaldeko emakumeentzat, indarkeria, kalera irteten diren lehen unetik hasten da. Elkarrizketatutako antolakundearen arabera, Marokon, beltzen aurkako erreprezioaren gorakadarekin batera, hedatu egin dira Marokoko gizartean errotuz joan diren gezur eta estereotipo arrazistak. Horien arabera, emakume beltz gehienak zikinak dira, langile sexualak dira, etab. Ideia horiek jazarpena, txistuak eta erasoak eragiten dituzte, eta, beraz, kaleak segurtasunik gabeko guñe bihurtu dira haietzat.

Horri gehitu behar diogu emakumeen zaugarritasuna areagotzen dela ez dutenean non lo egin, ezin badute, adibidez, gelaren alokairua ordaindu. Elkarrizketatutako bitartekari kultural batek adierazten duen moduan, halako egoeretan, beren buruei galdetzen diete «non egingo dut lo?»:

*«Eta lotarako lekuren bat bilatzen badute, seguruena gizonen batzuen proposamenak jasoko dituzte, emakumeak sexualki behartzen saiatuko direnak: «nire etxean lo egin nahi baduzu, sexu truke egin behar duzu», eta, orokorrean, babesik gabeko sexua da. Gizonei ez zaie preserbatiboa erabiltzea gustatzen. Horrela hasten dira nahi gabeko haurdunaldiak [...]. Horrela, emakume horiek esplotatzen dituzte, eta etengabeko kate bat sortzen da, haurdun*

*utziko duen gizon batekin doalako, eta hori gertatzen denean gizona desagertuko delako... Batzuetan, etxean uzten du emakumea, eta desagertu egiten da. Emakumeak ez daki nora joan den. Azkenean, kalean geratzen da berriro».* (MAROKOKO IPARRALDEKO ANTOLAKUNDEKO KIDEA, ELKARRIZKETA).

#### ETXEKO LANGILE EGOILIAR GISA LAN EGITEN DUTEN ETXEAK

Saharaz hegoaldeko emakumeek oso aukera gutxi dituzte Marokon lan egiteko. Are gehiago beren egoera administratiboa irregularra bada. Gehienak eskean eta etxeko langile gisa aritzen dira, eta haietako batzuk sexu-langile gisa. Etxeko lanei dagokionez, lan-baldintzak oso prekarioak dira, ia esklabutzaren parekoak, ez dute apenas soldatarik jasotzen, eta Marokoko Emakume Migratzaileen Kolektiboak (aurrerantzean, COFMIMA) azaltzen duenez, enplegatzaileek pasaporteak atxikitzen dizkiete askotan. Testuinguru hori indarkeria eta eraso anitzentzako haztegia da:

*«Marokon dauden hegoaldeko Saharako emakumeentzat egoera konplexuagoa da; ez dute paperik, eta ezin dute egiazko lan bat izan. Berez, hasteko, Marokon ez dago lanik. Lana edukitzeko, modu klan-destinoan izan behar da. Badago etxeko lana, baina behartuta daude lanera joatera berdin dio zein soldataren truke, zerbait edukitzeagatik, ezin baitugu soldata deitu. Zer edo zer edukitzeko soilik. Batzuetan,*

*enplegatzaileak oso maltzurak dira, eta pasaporteak atxikitzen dizkiete. Egoera benetan zaila da emakume hauentzako».* (COFMIMA, ELKARRIZKETA).

Modu berean, Ardanaren (APDHA) arabera, etxeko lana ez da aukera bat Marokon dauden Saharaz hegoaldeko emakumeentzat, esklabutza baldintzetan egiten delako: «Nahiz eta emakume askok aukera izan duten familia marokoarren etxeetan lan egiteko, ia kasu guztietan esklabutza egoerak kontatzen zituzten: etxean giltzapetzen zituztela familia etxera itzuli arte, ez zietela adostutakoa ordaintzen, etab.».

Azkenik, Gurutze Gorriak eta Algeciras Acoge elkarteak diotenez, azken aldian lan-esplotaziorako salerosketak, Boli Kostatik Marokora, gora egin duela hauteman dute; etxeko langile aritzeko, Marokoko familiaren baten kontaktua aurrez daukaten neska gazteak izan ohi dira. Mota horretako salerosketak, zalantzarik gabe, ikerketa sakonagoa merezi du.

#### SEXU-ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETA: DENA AL DA SALEROSKETA?

Sexu-esplotaziorako salerosketari dagokionez, antolakunde gehienek uste dute errealitate aldakorra dela. Adibidez, azken urteotan ohartu dira Nigeriako emaku-

meen etorrerak behera egin duela, bidea aldatu delako, Libiatik Italiara.

Ezberdinak dira sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimaren profila eta Nigeriatik etorritakoena; Nigerian, herrialdean bertan atzematen dituzte biktimak. Gaur egun, nagusiki Boli Kostatik, Ginea Konakrytik eta Kamerundik datozen emakumeak beren baliabideei esker irteten dira beren herrialdeetatik. Horrek asko aldatzen du salerosketaren dinamika. Izan ere, ez da gauza bera jatorrizko herrialdean edo igarobidean atzematea emakumeak, bigarren kasuan ez dagoelako familiarenganako mehatxu zuzenik.

Horrek guztiak ez du esan nahi ez dagoela sexu-esplotaziora zuzendutako salerosketa sarerik. Antolakunde ugari bat datoz: Marokoko iparraldeko kanpalekuetan badago salerosketa, komunitate nigeriarrak zeudenetan. Hala ere, Iridiaren arabera, kanpaleku horiek dira, hain zuzen, antolakundeentzako sarbiderik zailena dutenak:

*«Nador-en lan egiten duten erakundeek hauteman egin zituzten salerosketa-egoeran zeuden emakumeen zantzuak, batez ere kanpalekuetan egun gutxi igarotzen zituzten emakumeen profilak; ezinezkoa zen haiengana hurbiltzea. Nigeriako komunitateetan antzematen zuten, baita Kamerungo komunitateren batean ere, baina, batez*

*ere, Nigeriakoetan. Antolakundeentzat oso zaila da komunitate horietan sartzea, baina osasunari lotutako kontuen bidez, azkeanean sartzea lortzen dute».* (ANDRÉS GARCÍA BERRIO, IRIDIAKO ZUZENDARIKIDEA, ELKARRIZKETA).

Komunitate frankofoneoi dagokienez, antolakundeek diote dinamika ezberdinak dituztela. Menderakuntza-harreman asimetrikoak daude, eta baita prostituzio behartua ere. Baina ez dago sexu-esplotaziorako salerosketa sarerik, nazioarteko protokoloetan definitzen den bezala. Women's Link Worldwide-ren ustez, mugak esternalizatzearen ondorioz, gero eta indarkeria gehiago eta segurtasun gutxiago dago migrazio-igarobideetan. Horrek erabat murrizten ditu migrazioarako bide segurua, eta ondorioz, migrazio irregularreko sareak are gehiago "profesionalizatzen" ari dira, eta indarkeria handiagoa sortzen ari da. Bidea modu autonomoan hasia zuten emakume askok, poliziaren sareak den eta bidean pairatzen dituzte erasoaren aurrean, sare horietan erortzen dira, eta, ondorioz, salerosketaren biktima izateko egoera zaurgarriagoan daude.

#### DISKURTSO BAZTERTZAILE ETA POLARIZATUAK

Egindako elkarrizketetan diskurtsoaren bi alderdi bereiz daitezke. Batetik, zenbait erakundeek diote sareak egon badaudela, baina aitortzen dute emakumeak birbiktimizatu egiten direla guztiak salerosketa-

ren biktima direla ontzat ematen denean. Bestetik, oso zabaldua dagoen diskurtsoa da Hegoaldeko Muga zeharkatzen duten emakume beltz guztiak, gaur egun, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima direla. Azken diskurtso hori daukate gurutzatzen duten emakumeei erakunde gisa arreta zuzena eskaintzen dieten antolakundeek. Zenbait kolektibo eta adituren arabera, ikuspegi horrek arazoak dakartza. Lehenik, profilak homogeneizatzen dituelako, eta ezkutatu egiten dituelako indarkeriak zein salerosketaz harago dauden errealitateak. Eta bigarrenik, diskurtso horrek migratzaileak kriminalizatu eta estigmatizatu ditzakeelako.

«Hortaz, analisi sinplista da desparekotasunen egiturazko gaii dagokienez», Tyszler-en arabera (2018). Ikertzailearen arabera, diskurtso horrek nahastu egiten ditu, eskuarki, prostituzioa eta sexu-esplotaziorako salerosketa, muga gurutzatzen duten Saharaz hegoaldeko emakumeen profil eta bizipen guztiak homogeneizatzen ditu, eta, azkenean, «bi irudi arrazista eta sexista ekoizten ditu: salerosketaren biktima den Saharaz hegoaldeko emakumea, eta Saharaz hegoaldeko gizon trafikatzailerak». Elkarrizketatutako antolakundeetako askok azpimarratzen dute kontuz ibili behar dela halako diskurtsoekin; izan ere, azken urteotan, salerosketa eta migrazio irregularren arteko lotura baliatzen ari dira migrazio mugimenduak kriminalizatze-ko eta mugak ixteko politika legitimatzeko.

Labur, ukatu gabe badaudela Europara iritsi ahal izateko Hegoaldeko Muga erabiltzen duten sexu-esplotaziorako salerosketa sareak, funtsezkoa da ohartaraztea, salerosketaren aurkako borrokaren diskurtsoa erabiltzean, arriskua dagoela mugen esternalizazioa eta militarizazioa legitimatzeko. Europako gobernuen gaur egungo diskurtso eta praktikek, komunikabide masiboen laguntzaz, salerosketa desagerraraztea baino gehiago, Hegoaldeko Mugako migratzaile komunitateak kriminalizatzen dituzte, eta haien aurkako kontrol-politikak legitimatzen dituzte, salerosketa sareen aurkako borrokaren diskurtsoa baliatuta. Bestalde, muga gurutzatzen duten emakume afrikar beltz guztiak edo gehienak salerosketaren biktima direla dioten diskurtsoek sinplifikatu eta homogeneizatu egiten dituzte emakumeen bizitzak zeharkatzen dituzten askotariko indarkeria egoerak, eta garrantzia kentzen diete. Ondorioz, ikusezin bihurtzen dira emakumeek igarobidean jasaten dituzten beste genero-indarkeria batzuk, salerosketaz aparteak.

## 2 // UGALKETA-ASKATASUNAREN AURKAKO INDARKERIA

Ugalketa-indarkeriari dagokionez, elkarrizketatutako antolakunde guztiek partekatzen duten gogoeta nagusietako bat da ez dagoela sexualitate aserik, hau da, emakumeen sexualitatea beste batzuek kontrolatzen dute etengabe. Baina

sexualitateaz gain, emakumeen ugalketa-gaitasuna ere hirugarrenen esku dago, kontuan hartuta noiz interesatzen den eta noiz ez emakume bat haurdun geratzea. Adibidez, muga gurtzatzeko unea hurbiltzean, sareak berak jarraibideak ematen dizkie emakumeei haurdun geratzeko edo ez geratzeko, sareei interesatzen zaienaren arabera.

## ABORTU ARRISKUTSUAK

Marokon, abortua baimentzen da soilik haurdunaldia etetea beharrezkoa denean emakumearen osasun fisikoa edo mentala zaintzeko, betiere ezkontidearen edo tokiko osasun-agintariaren baimena izanez gero (Women's Link Worldwide, 2011).

Ondorioz, Saharaz hegoaldeko emakumeek abortatzeko bestelako aukerak baliatzen dituzte, oso arriskutsuak. Farmakoak (Cytotec) erabili ohi dituzte; dosi desegokietan edo haurdunaldi aurreratuetan, emakumeen osasuna arriskuan jar dezaketen abortu oso mingarriak eragiten dituzte.

Bortxaketen ondoriozko haurdunaldien kasuan, lagundu egin dezake emakumearen osasun mentala zaintzeko Marokon abortuak ahalbidetzen dituen salbuespenak. Hala ere, oso zaila da, mediku askok uko egiten diotelako sexu-indarkeriazko gertakariei buruzko ziurtagiri mediko-legalak

egiteari, eta sailhestu egiten dute bortxaketa baten biktima direla egiaztatzea.

Emakume askok ez dute igarobidean zehar haurdun geratu nahi, migrazio prozesua oztopatzen duelako, antolakunde batzuen arabera: «Lehenik eta behin, Europara iritsi behar direlako; hori da euren proiektua. Bigarrenik, ez dagoelako lagundu ditzakeen beste inor. Eta, hirugarrenik, beste gizonek ez dituztelako onartuko» (Marokoko iparraldeko antolakundeko kidea, elkarrizketa).

## UGALKETA-OSASUNA ETA HAURDUNALDIEN KONTROLA ESKURATZEA

Marokon, ofizialki, lehen mailako osasuna doakoa da emakume guztientzat. Edonola ere, entitateek hauteman dute oztopo asko daudela, eta, doakoa izan arren, migrazioak beltzak artatzeko orduan aurreiritziak daudela. Batetik, kontsultak doakoak dira, baina sendagaiak eta osasun-probak ordaindu egiten dira. Hiriaren edo herriaren arabera, askotan ez dago amatasunik osasun-zentroetan, eta batzuetan urrun dauden hirietara joan behar izaten dute. Elkarrizketatutako antolakundeen arabera, Marokoko ospitaleak ez daude ondo antolatuta, ezta arreta duina emateko behar adina baliabide materialekin ezta giza baliabideekin hornituta ere.

Printzipioz, bermatuta dago haurdun dauden emakumeentzako arreta, baina

kontrol- eta jarraipen-zerbitzuak garestiak dira, eta kudeatzeko zailak. Askotan, kostuak erakundeek hartzen dituzte beren gain, emakumeak artatuak izan daitezten. Ondorioz, Saharaz hegoaldeko emakumeek antolakunde eta entitate sozialekin batera joan behar dute, baina hori ez da beti posible. Gainera, askotan ez dute informazio hori eskuratzeko aukerarik izaten, eta haiek zein haiekin doazen migrazioleak ospitaleetan atxilotuko dituzten beldur dira.

## SEME-ALABAK INSKRIBATZEKO ZAILTASUNAK

Antolakundeek, halaber, kontaktzen dute ere Saharaz hegoaldeko emakumeek zailtasunak izaten dituztela beren seme-alabak Marokoko ospitaleetan jaiotzen direnean jaiotza-ziurtagiria lortzeko. Horrek arazo handiak ekar diezazkieke; adibidez, penintsulara iristen direnean eta inolako ziurtagiririk ez badute, ezin dute haiekiko seme-alabatasunik frogatu. COFMIMAK azaltzen duenez, emakume asko, dirurik ez dutenez, jaiotza-agiririk gabe ateratzen dira ospitaleetik, eta gero ezin dituzte seme-alabak erregistro zibilean inskribatu. Ospitaleratze-gastuak ordaindu ezin dituztenez, normalean ez diete jaiotza-akta ematen. Normalean, hilabete bateko epea ematen diete ordaindu dezaten eta akta lortu dezaten, baina emakume askok ez dute epe horren berri.

Haurrak gerora legeztatzen saiatzea oso zaila izaten da.

### **HAURDUNALDIA, GURUTZATZEKO ESTRATEGIA GISA**

Elkarrizketatutako hainbat antolakunde adierazi dute haurdunaldia igarobiderako estrategia izan daitekeela, baita penintsulara gurutzatzean edo helmugan ere. Adibidez, haurdun daudenez, bestelako bortizkeria batzuk jasateari utz diezaiokete, hala nola indarkeria sexuala edo fisikoa. «Haurdun daudenean haiei begiratzeko modua aldatzen da», elkarrizketatutako antolakundearen arabera.

Zentzu horretan, emakume batzuk behartuta daude haurdun dagoen gorputza estrategikoki erabiltzera. Haietako batzuk haurdun geratzen saiatzen dira, edo gutxi gorabehera hertsatuta "animatzen" dituzte, bidaiatzeko aukera gehiago izan ditzaten. Penintsulara itsasoz gurutzatzeko orduan, migratzaileek badakite haurdun dagoen emakume bat badago edo haur txikiak baditu, Itsas Salbamendua lehena go iritsiko dela. Haurdun dauden edo adin txikiko haurrak dituzten emakumeei ontzi pneumatikoan edo pateran sartzen uzten diete, penintsulara iristeko aukera gehiago izateko. Hala ere, hilabete gutxi dituzten haurrak badira, ez diete jgotzen uzten, zarrata handia egin baitezakete. Horrek esan nahi du emakumeek, gutxienez, urtebete itxaron behar dutela muga inguruetan,

hala nola Tangerren edo Nadorren, gurutzatu ahal izateko. Hortaz, oso estrategia mugatua da. Izan ere, emakume askok diote adingabe oso txikiak edukitzeagatik uko egin behar izan dietela itsasarte gurutzatzeko aukerei, paterak ez zituztelako gutxieneko baldintzak betetzen eta ez zutelako beren haurren bizitza arriskuan jarri nahi. Ondorioz, mugako zonaldeetako egonaldia luzatzen da, eta haien biziraupenaz gain, seme-alabenez ere arduratu behar dute. Testuinguru gogorak dira, bizitzeko eta bizileku egokia bilatzeko; baldintza prekarioetan eta pilituta bizitzera behartuta daude.

### **HILEKOA PATERAN GURUTZATZEKO OZTOPO GISA, ETA ANTISORGAILUEN ERABILERA**

Genero-harremanek eragina dute ere emakumeen hilekoarengan. Debekatuta dago hilekoa izatea penintsulara pateran igaro bitartean. Superstizio kontua da, baina baita pragmatismo kontua ere. Esaten da hilekoak zorte txarra dakarrela, eta marrazoak erakarri ditzakeela. Horrek, zalan-tzarik gabe, emakumeen gorputzen gaineko kontrol osoa dakar. «Emakume askok kontaktu didate paterara igo baino lehen, chairmanak emakume bati eskatzen diola eskua beste emakumeen kuleroetatik pasatzeko, hilekoa ez dutela egiaztatzeko. Hori ere indarkeria da», dio Tyzslerek.

Horren aurrean, emakumeak hilekoa izatearen beldur dira, eta pilula antisorgailuak hartzen dituzte inolako osasun-kontrolik gabe, hilekoa ez izateko. Batzuetan, antisorgailu kutxa oso bat hartzen dute, eta horrek ondorio larriak izan ditzake haien osasunean.

### **MUGAK ZEHARKATUTAKO AMATASUNAK**

Antolakundeek kontaktzen dutenez, azkenaldian, beren ardurapean adingabeak dituzten Saharaz hegoaldeko emakumeen amatasuna zalantzan jartzen da. Horietako askok ez dute dokumentaziorik; batzuek galdu egin dute edo bidaiari zehar lapurtu diete, edo gorago esan bezala, Marokon jaio diren haurrak dira eta ez dute jaiotza-ziurtagirik. Behartuta daude DNA proben prozesu oso bat pasatzera, hurrengo atalean azalduko duguna.

Novact-eko Maria Solerrek azpimarratzen duenez, emakumeen migrazioak eta salerosketa sareak lotzearen ondorioz, elikatu egiten dira ama migratzaileek beren seme-alabak zaintzeko moduei eta beren emantzipazio-estrategiei buruzko aurreiritzia eta estereotipoa. Horrela, haurren eskubideak eta bizitza pribatua eta familiako bizitza edukitzeko eskubidea urratzen dira. Halaber, honakoa dio:

*«Emakume migratzaileek pairatzen duten diskriminazioaren eta estigmaren beste*

*froga bat da uste dela haurdunaldia nazionalitatea lortzeko estrategia dela; horregatik, agintariek haurtxo horiek "aingura ume" deitzen dituzte. Hala ere, Espainian nazionalitatea lortzeko mekanismoa dela eta, haur bat Espainiako Estatuan jaiotzeak ez dakar amak nazionalitatea eskuratzea; izan ere, haurrak ere ez du nazionalitatea automatikoki eskuratzen, gurasoena hartzen baitu. Ikuspuntu horren ondorioz, ideia hau zabaltzen da: emakume migratzaileek beren seme-alabak migratzeko tresnatzat hartzen dituzte. Horrek elikatu egiten du emakume migratzaileek beren seme-alabak zaintzeko moduari buruzko aurreiritzia eta estereotipoa».* (SOLER, ELKARRIZKETA).

### 3 // ERAKUNDE-INDARKERIA

Antolakundeek hainbat erakunde aipatzen dituzte, zeinetan emakumeek etengabeko diskriminazioa eta indarkeriak pairatzen dituzten. Lehenengo eta behin ospitaleak eta osasun-zentroak aipatzen dituzte; bertan ez dituzte artatzen bakarrik baldin badoaz. GADMetik azaltzen duten moduan, osasun-arreta eskuratzeko entitate sozial batzuek lagunduta joan behar dute; izan ere, osasun-zentro batzuetako langileak mesfidati agertzen dira migratzaile eta erre-fuxiatuei arreta emateko orduan. Orokorean, nabarmentzen dute sendagaiak eta probak ordaindu behar dituztela; hori da, hain zuzen ere, emakumeak laguntzen dituzten antolakundeen ardura. Bigarrenik, indarkeria poliziala. Talía Ardanak (APDHA)

azpimarratzen duenez, lehen, emakumeek bazekiten emakume izateak hegoalderako deportazioetatik salbu jartzen zituela. Izan ere, hasieran, sarekadetan ez zituzten emakumeak deportatzen. Hala ere, gizonak atxilotuak izan zitezkeen edozein unetan, eta Rabatera edo hegoaldeko beste edozein hirira eramaten zituzten. Ondorioz, bizikideen artean nolabaiteko mendekotasuna sortzen zen; izan ere, emakumeak ziren elikagaien bila irteteko ardura zutenak, eta gainerakoen beharrak asetzeko ardura zutenak.

Edonola ere, atxilotze-politika hori aldatu egin da, eta gaur egun emakumeak eta are haurrak eta haurtxoak ere atxilotzen dituzte. Polizia, pisetara sartu, eta emakumeak atxilotzen ditu hegoaldera deportatzeko. Emakume batzuek kontatzen dutenaren arabera, hilabete bakarrean hegoaldera hiru aldiz deportatu ditzakete (Mujeres en Zona de Conflicto-ren proiektu bateko parte-hartzaile izandako Saharaz hegoaldeko emakumeekin egindako topaketa, Tangerang).

### 4 // INDARKERIA EKONOMIKOA

Antolakundeek nabarmentzen dute emakumeek, gurutzatu aurreko egonaldian zehar bizirauteko, indarkeria mota ugari jasateko arriskua dutela, baina indarkeria ekonomikoa oso argia dela. Izan ere, ez dute aukerarik, lan-baldintzen prekarizazioagatik eta lan hiperfeminizatuak eskura dituztelako. Gorago esan bezala,

emakumeak hirietan bizitzen saiatzen dira, basoak eta kanpalekuak saihesteko eta askotariko indarkerietatik babestuago egoteko. Horrek kostu ekonomiko aipagarria dauka, eta mendekotasun handiagoa eragiten du ostatua ordaindu ahal izateko diru-sarrerak lortzeko alternatibak bilatzerakoan. Emakumeek oso aukera gutxi dituzte, eta behartuta daude ezkutuko ekonomietan lan egitera: eskean aritzea, Marokoko familientzako etxeko langile egoiliar aritzea eta prostituzioa.

Aukera ekonomiko eskasak direla eta, emakume asko eskean aritzen dira. Mujeres en Zona de Conflicto elkartearen arabera, indarkeria arrazista eta diskriminazioa pairatzeko arrisku handia daukate kaleetan. Hain zuzen, emakumeetako askok nahiago dute atez ate eskean aritzeko modalitate berria jardun. Diru-sarrera gehiago lortzeaz gain, batzuetan janaria ere ematen diete, eta ez da kalean publikoki egotea bezain bortitza.

Etxeko langile egoiliarrei dagokienez, emakumeak erdi esklabo moduan explotatzen dituzte, gutxienez 10 orduko lanaldia daukate eta tratu iraingarria jasotzen dute; ez diete jaten ematen eta hilean 200 eurora iristen ez den soldata daukate. Nagusiki, etxeko langile egoiliar gisa aritzen dira hiri handietan, hala nola Rabaten eta Casablancan, familiekin lotura egiten duten pertsonen bidez; pertsona horiek etekina ateratzen dute bitartekari gisa.



Mujeres en Zona de Conflicto elkarte-  
tik, badakite ere Saharaz hegoaldeko  
emakumeek barazkiak eta frutak —pipe-  
rrak, tomateak eta mugurdiak— jasotzen  
lan egiten dutela, hala nola Agadirren.  
Baldintzak oso kaskarrak dira: 8 eta 10  
ordu artean makurtuta egon behar dira,  
eta egunean 7 euro baino gutxiago jasot-  
zen dituzte. Kontraturik gabe lan egiten  
dutenek, askotan, hilabete amaieran or-  
dainduko ez dietela esaten diete. Emaku-  
meek bizi duten laneko babesgabetasun  
egoera oso handia da.

Azkenik, emakumeek ez daukate kontrolik  
irabazten duten diruarengan, ezta diru hori  
erabiltzeko aukerarik ere. Maiz, diru hori  
sareei eman behar izaten diete, eta eurek  
kudeatzen dute. Egunerokoan bizirauteko  
edo janaria erosteko emakumeek kudeat-  
zen dute dirua zuzenean, baina eskurat-  
zen duten diru gehiena sareetako nagusiei  
eman behar izaten diete, edo bidaietan la-  
guntzen dieten gizoni. Horrek mendeko-  
tasuna eragiten du emakumeengan, baita  
independentzia ekonomiko eza ere.

## 5// BESTELAKO INDARKERIAK

Garrantzitsua da adieraztea Saharaz he-  
goaldeko emakumeek pairatzen duten  
arrazismoa, Marokoko egonaldia baldin-  
tzatzen duena. Arrazismoa oso zabaldua  
dago, eta emakumeentzako oztopo bi-  
lakatzen da etxebizitza edo lana bilatzeko  
orduan. Haietako askok ez dituzte beren

seme-alabak ikastetxera eraman nahi, ja-  
kin badakitelako jarrera eta eraso arrazis-  
tak pairatuko dituztela bertan. Elkarrizke-  
tatutako emakumeen arabera, saiatzen  
dira egunez kalera ez ateratzen eta hiritik  
ez ibiltzen, ez soilik poliziaren sarekaden  
beldur direlako, baizik eta eraso arrazistak  
jasaten dituztelako ere, esaterako, kalean  
eskean daudenean. Mujeres en Zona de  
Conflicto elkarteak jaso duenez, emaku-  
meei tu egiten diete, harriak botatzen diz-  
kiete, eta gizon marokarrek ez dituzte  
errespetatzen.

Mehdi Alioua soziologoak eta GADEMeko  
kide eta fundatzaileak adierazten duenez,  
garrantzitsua da adieraztea migrazioaren-  
ganako beldur irrazionala ez dela soilik  
magrebtarra; europarra eta mundu-mai-  
lakoa da: «Pertsona beltzen aurkako arra-  
zismoak norabide berria hartu du Saharaz  
hegoaldeko Afrikako pertsonen immigra-  
zioaren ondorioz. Ez da soilik igarotzearen  
kontua; atzerriko populazioen kokalekuak  
sortzen dira, Magrebeko jendarteetan  
gertatzen direnak, eta hango komunita-  
teen eraldaketan de facto parte hartzen  
dutenak. Horrek tentsioa eta antsietatea  
sortzen du, eta, ondorioz, beltzen aurkako  
arrazakeria indartzen duen xenofobia ere».

## 6 // AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK


Emakumeek jasaten dituzten askota-  
riko indarkeriak izendatzeaz eta gara-

tzeaz gain, garrantzitsua da ere aipatzea  
emakumeek horiei aurre egiteko eta bi-  
zirauteko baliatzen dituzten estrategiak.  
Tyszler-en hitzetan (2018), «garrantzitsua  
da praktikan jartzen diren estrategiak  
ikustea, zaurgarriago bihurtzen dituen  
muga-kontrol gehiagori aurre egin be-  
har dietenean. Emakumeek desaban-  
taila gisa ikusten dituzte beren gorputz  
femeninoak, migrazio bidean zehar sufri-  
mentu bikoitza eragingo diela uste dute.  
Baina, horrekin batera, biziraupen- eta  
erresistentzia-estrategiarako tresna ere  
izan daitezke.

Estrategia indibidual zein kolektiboez ari  
gara. Estrategia indibidualen artean, na-  
barmentzekoak dira gizon baten babesa  
bilatzea bidaietan zehar, bidaiako senarra  
edo mutil-laguna, eta espiritualtasuna,  
erresistitzen jarraitzeko tresna gisa. Mu-  
jeres en Zona de Conflicto eta beste  
antolakunde batzuek diotenez, haurrak  
baldintza egokietan hezteko eta zain-  
tzeko oztopoak oztopo, seme-alabak  
dituzten emakumeek aurrera jarraitzera  
eta borrokatzera bultzatzen dituen in-  
dar bat daukate. Beste estrategia bat  
da marokoartzat jotzea, lurreko muga  
gurutzatzeko makillatuz eta zapia jarritz.  
Emakumeek, gainera, beren gorputzak  
estrategikoki erabiltzen dituzte, haurdun-  
aldiaren bidez edo sexu-harremanak  
izatea onartuz —nahiz eta onespenez ez  
egon—, bestelako indarkeriak saihesteko  
eta Europara iristeko desira bete ahal iza-

teko. Baina, estrategia indibidualez gain, aurre egiteko estrategia kolektiboak daude. Horien artean, nabarmentzekoak dira adingabeak dituzten emakumeen arteko elkarlaguntza, kanpalekuetara joan behar ez izateko hainbat emakumeren artean pisu bat alokatzea, eta emakume bat erasotzen dutenean mugan dauden mobilizazio kolektiboak. △

Muga



# ERAKUNDEEN JARDUNA MUGALDEKO ESPAZIOETAN

Urteak dira giza eskubideen aldeko hainbat antolakunde hegoaldeko mugari erreparatu diotela. Izan ere, penintsulara bertatik sartzen saiatzen diren migratzaile eta errefuxiatuen giza eskubideen urraketa larriak gertatzen diren gunea da.

Hala, CEAREk eta beste antolakunde batzuek etengabe salatu dituzte, hainbat txosten eta adierazpenen bidez, bero-beroan egindako itzulketa delakoak, zeinak Espainiako gobernuak onartu egin zituen 2015ean, Herritarren Segurtasunerako Legearen —Mozal Legea— bidez. 2017ko urrian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) Espainia zigortu zuen, 2014ko abuztuan Melillatik kanporatuak izan ziren Mali eta Boli Kostako bi gazteren salaketagatik. Auzitegiaren arabera, itzulketa horrek Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 4. protokoloa eta 13. artikulua urratu zituen; izan ere, kanporatze kolektiboa izan zen, errekurtsio judizialik jartzeko benetako aukerarik eman gabe. Lehen aldia izan zen instantzia honek Ceuta eta Melillatik Marokora egindako halako kanporatzeei buruzko iritzia ematen zuela. Dena den, 2019ko otsailaren 13an GEEAko Areto Handiak

bertan behera utzi zuen Espainiari ezarritako zigorra, salatzaileak «beraiek ere legez kanpoko egoeran» jarri zirela iritzita, «Melillako hesitik Espainiara nahita sartzen saiatzeagatik».

Epai horren aurrean, CEAREk berretsi egin du pertsona asko —Saharaz hegoaldekoak bereziki— taldeka kanporatzen dituztela Hegoaldeko Mugan, abokatu-laguntzarik jaso gabe eta nazioarteko babesa eskatzeko benetako aukerarik gabe. Giza eskubideen antolakundeek urte luzez salatu dute itzulketek nazioarteko, Europako eta Espainiako araudia sistematikoki urratzen dutela, eta ez itzultzearen printzipioa urratzen dutela; izan ere, printzipio horrek debekatu egiten du inor kanporatzea, errefuxiatuei buruzko Genevako 1951ko Hitzarmenean aurreikusitakoarekin bat etorritik, jazarpena jasan dezaketen edo tortura edo tratu anker edo iraingarriak jasan ditzaketen herrialdeetara.

Marokotik penintsulara irteten diren ontzi asko itzuli egiten dira. Kasu batzuetan, Marokoko Errege Itsas Armadak atzematen ditu zuzenean. Beste kasu batzuetan, Guardia Zibilak geldiarazten du patera, nazioarteko

uretan edo espainiar edo marokoa uretan, eta itsasoaren erdian entregatzen dizkio bidaiariak Marokoko segurtasun-indarrei. Ez dago kidego batek edo besteak egindako jardueren erregistrorik. 2017an, APDHaren arabera, 3.000 eta 5.000 pertsona artean itzuli ziren Marokora, Espainiara itsasoz iristen saiatu ondoren. Guardia Zibilaren patruila-ontziak pateretara hurbiltzeak eta bidaiariak atxikitzeak beldur egoerak eta uretara erortzeko arriskua eragiten dute. Caminando Fronteras-en arabera, operazio hori da arriskutsuena migratzaileentzako, Ceuta eta Melillako itsas sarbi-dean. Kasurik larrienetako bat 2017ko abuztuaren 31ko goizaldean gertatu zen, zazpi emakume itsasora bota ondoren hil zirenean. Guardia Zibilak 40 bidaiari inguru zerratuzan patera bat blokeatu zuen, harik eta Marokoko txalupa batek bidaiariak marokoa lurraldera itzularazi zituen arte<sup>1</sup>. Maniobra behar bezalako arretarik gabe egin zen, eta gainera, erakunde armatuak ez zuen Itsas Salbamendua ohartarazi.

Itzulketei gehitu behar zaie Espainiak eta Marokok berraktibatu egin zutela migratzaileak berriro hartzeko akordioa<sup>2</sup>.

1992koa, 2018ko abuztuaren 22an, Ceutako hesian 116 pertsona itzultzeko, eta, ondoren, Melillan 55 pertsona itzultzeko. CEAREN hitzetan (2019), «gobernuak ziurtatu zuen itzulketak banaka egin zirela, abokatuaren eta interpretearen laguntzarekin, baina bai CEAREko talde juridikoak bai Defensor del Pueblak salatu zuten prozedura azkar horiek eragotzi egiten dutela detektatzea zaurgarritasun-egoeran dauden edo nazioarteko babes behar duten pertsonak, eta urratu egiten dutela beren bizitzak arriskuan egon daitezkeen herrialde batera, hala nola Marokora, ez itzultzeko printzipioa».

Hegoaldeko Mugan sistematikoki gertatzen den beste giza eskubideen urraketa nagusietako bat da Saharaz hegoaldeko edozein pertsonarentzat, Ceuta eta Melillako muga-postuetan, ezin dela nazioarteko babes-prozedurara sartu. CEAREk (2019) adierazi duenez, «bizitza arriskuan jartzera kondenatzen dituzte, Espainiako lurraldera itsasoz edo mugatik salto eginez iristeko».

Txosten berean, halaber, salatzen dute Ceutan eta Melillan, oztopoak oztopo, babes eskatzea lortu zuten pertsonak mugitzeko askatasuna galdu zutela. Asilo eskatzaile gisa egiaztatzen dituen dokumentazioan honako hau zehazten da: «Ceutan/Melillan bakarrik balio du», nahiz eta Espainiako lurralde osoan askatasunez zirkulatzeko eskubidearen aldeko epai ugari

egon, CEAREk aurkeztutako errekurtsoen ondoren. Melillaren kasuan, muga hori marokoar eta aljeriar jatorriko pertsonen ezartzen zaie batez ere.

## 1 // CEUTA ETA MELILLARA IRISTEA

Giza eskubideen aldeko hainbat erakundek, hala nola Amnesty Internationalek, Human Rights Watchek, Iridiak eta Jesuiten Migratzaileentzako Zerbitzuak egindako txostenek, besteak beste, azken urteotan salatu dute Hegoaldeko Mugaren bidez sartzen diren migratzaile eta errefuxiatuei arreta emateko baldintzen prekaritatea eta arbitrariotasuna.

Zentzu horretan, Women's Link World-wideko Gema Fernandezek adierazi duenez, Hegoaldeko Mugan utzikeria instituzionala dago, intentzizkoa dirudiena, «arreta prekarizatu dadin eta gainezka dagoen eta kudeatzeko ezintasunaren sentsazioa sor dadin. Baina errealitatean, Europa-Espainia-Maroko-Afrika mugak nahikoa garrantzi dauka instituzioak dagokien moduan jardun daitezten, ez bakarrik Estatuak, baizik eta inplikaturako Europako eta nazioarteko erakunde guztiak». Horren ondorioz sortzen dira praktika txarrak eta Saharaz hegoaldeko emakume askoren zaurgarritasun batzuen identifikazio eskasa.

Ceuta eta Melilla errealitate bakartzat hartu ohi badira ere, egia da bi hiri autonomoen

1 Eldiario.es, 2017. *"Itsaso zabalean dauden etorkinak blokeatu eta Marokora itzultzen dituela onartu du Gobernuak"*.

2 Espainiaren eta Marokoren arteko akordioa, pertsonen zirkulazioari, igarobideari eta legez kanpo sartutako atzerriarrak berriro hartzei buruzkoa

egoera ezberdina dela, bai iristen diren pertsonen profilenatik, bai aplikatzen diren migrazio-politiken praktikengatik.

CEAR-en arabera (2020), 2019an egonkor mantendu zen Ceuta eta Melillako hiri autonomoetara itsasoz iritsitako migrazioaileen kopurua (1.512), eta jaitsi egin zen lehorretik jo zutenena (6.345). Jaitsiera hori bereziki nabarmena izan da Ceutan; izan ere, %31,2 jaitsi zen etorreren kopurua 2018ko datuekin alderatuta, eta Barne Ministerioak mugako perimetroa blindatzeari eta itsasorako bideak desbideratu izanari egotzi zitzaion datu hori. Horrela, Melillan, bereziki, gora egin zuten Chafarina uharteetara iritsitakoek, eta tradizionalki migrazio-bide hori erabiltzen zuten pertsonen jatorria (Saharaz azpikoak) ugaritu zen: Yemen, Bangladesh, Egipto, Siria eta Palestinako pertsonak ere gehitu ziren.

Saharaz hegoaldeko emakumeak Melilla eta Ceutara heltzen direnean etorkinak behin-behinean hartzeko zentrori (CETI) eramaten dituzte. CETIak establezimendu publikoak dira. Lehen harrerako tresna gisa sortu ziren, eta oinarriko zerbitzu eta prestazio sozialak ematera bideratuta daude, hala nola ostalua eta mantenua, arreta psikosoziala eta sanitarioa, laguntza legala eta aisialdiko jarduerak, hiri autonomoetara iristen diren migrazioaile eta errefuxiatuei zuzendutakoak.

## MELILLA

Giza eskubideen aldeko hainbat erakundek salatu dutenez, Melillako CETIa gainezka dago, sistematikoki. 2019an, Melillako CETIaren batez besteko betetze-maila %170koa izan zen, hau da, 1.330 pertsonakoa. 2019ko abenduaren 31n ere %205ekoa zen (1.607 pertsona), Tunisia, Aljeria, Maroko, Egipto eta Bangladesheko nazionalak penintsulara eramateko blokeoaren ondorioz. Guztira, 6.855 pertsona hartu zituen iaz CETIak, gehienak Tunisiakoak (%19), Siriakoak (%17), Marokokoak (%13), Gineakoak (%8) eta Aljeriakoak (%8), eta beste herrialde batzuetakoak (Palestina, Boli Kosta, Mali eta Yemen). 2019an bertan bizi izan ziren pertsonen %45 emakumeak izan ziren. Azken urteotan aldatzen joan da CETIan bizi izan diren pertsonen profila. Elkarriketak egin aurreko hilabeteetan gora egin zuen Saharaz hegoaldeko emakume adingabeen kopuruak. Lehen, gehienak Saharaz hegoaldeko gizonak ziren, gazteak eta ezkongabeak, baina hori aldatu egin da azken 7 urteetan. 2013tik aurrera areagotzen hasi ziren Siriako pertsonen eta familien etorrerak. Gaur egun jaitsi egin da siriarren presentzia, eta beste nazionalitate batzuen handitu.

Sistematikoki gainezka egoteak esan nahi du bizigarritasun-baldintzak prekarioak direla bertan bizi direnentzat, eta, batez ere, emakume eta haurrentzat. Emakumeak

eta gizonak bananduta daude, eta, betetze-mailaren arabera, familiek espazio berean ostatu har dezakete, edo ez. Emakumeei eta adingabeei ostalua ematea lehenetsuneko da; beraz, gainokupazioa dagoenean, gizonak karpa batean egiten dute lo.

CETIko osasun-arreta zerbitzua mediku eta erizain banak osatzen dute. Iridiaren arabera (2017) ez dago pediatria zerbitzurik, adingabe asko egon arren. Haurdun dauden emakumeak Melillako ospitaleko ginekologia zerbitzura bideratzen dituzte. Hiri autonomoan ez dira haurdunaldiak borondatez eteten; beraz, CETIko egoiliarrek haurdunaldi bat eten nahi badute, penintsulako zentroetara bideratzen dituzte.

Defensor del Pueblo hainbat gomen-dio egin ditu CETIan sexu-indarkeria eta genero-indarkeria prebenitu daitezkeen, eta horri erantzuteko protokolo bat izan dezan. Hala ere, badago genero-indarkeriaren arloan jarduteko protokolo bat, eta haren aplikazioak egungo Genero<sup>3</sup>, Indarkeriari buruzko Legeari erantzuten dio. Baina luge horrek bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria baino ez du barne hartzen, eta babesetik kanpo uzten ditu hainbeste pertsona bizi diren zentro batean gerta daitezkeen indarkeria-kasu ugariak.

## PENINTSULARA LEKUALDATZEAK

Elkarrizketatutako antolakunde gehienek adierazi dute arazo kezkarrietako bat dela penintsulara lekualdatuak izateko irizpideak argiak ez izatea. Astero, zerrenda bat argitaratzen da; zerrenda horretako pertsona-kopurua penintsulako harrera-plazen arabera da. Oso denbora tarte gutxiarekin ematen zaie lekualdaketa berri. Melillaren kasuan, irteerak asteazketan izaten dira, eta, oro har, astelehenean abisatzen dute; baina antolakundearen arabera, batzuetan asteazkenean bertan abisatzen dute. Irteera-data zehatza ez jakiteak sortzen duen ziurgabetasunak pertsona horien egoera psikikoa kaltetzen du: antsietatea, inoiz irtenge ez direlako beldurra, pertsona batzuk bai eta beste batzuk ez irteteko arrazoien inguruko zalantzak, etab.

### MELILLA, EMAKUMEENTZAKO ITXARONLEKUA

Erakundeak bat datoz esatean CETIa ez dela emakumeentzako gune segurua, baina azken urteotan aldaketa batzuk egon dira zaugarritasun-egoerak hautematearekin lotuta.

Melilla geldialdia egiteko lekua da Saharaz hegoaldeko emakume askorentzat. Liliana Suarez Navaz Madrilgo Unibertsitate Autonomoko ikerlari eta irakasleak azaldu duenez, Melillara iristen diren emakumeak

«igarobidean» daude. Haren arabera, hasieran espazioa atsedenerako denbora bezala bizi dezakete, baina denborak aurrera egin ahala, penintsulara igarotzea lortzen duten ala ez, urduriago jartzen dira. Igarobidean dauden emakume horiek «alerta egoeran daude etengabe. Bortxatuak izan diren eta izaten jarraitzen duten emakumeak dira, horietako asko oraindik zelatatuak direlarik». Horregatik, bereziki zaila da Melillan emakumeekin lan egiten duten antolakundearen zeregina.

Elkarrizketatutako antolakundearen arabera murriztu egin dira Melillako CETIko egonaldiak, baina egia da, halaber, penintsulara igaro arte itxaroten emandako denborak eragina duela emakumeen osasun emozionalean. Antolakundeak bat datoz: zentroan ematen duten denborak aurrera egin ahala, nabari da egoiliarren egoera fisiko eta emozionala kaltetu egiten dela.

Egoera emozionalari dagokionez, elkarrizketatutako erakundeek adierazi dute CETIan bizi diren emakume beste aniztasun dagoela:

*«Batziek "harresi" bat dute eta oso zaila da eraistea, eta beste emakume batzuen kasuan harritu egiten zara gai batzuen inguruan hitz egiten duten hoztasunarekin. Eta, gero, horietako gehienek bizirauteko duten gaitasuna dago. CETIko egonaldia etenaldi bat da bere bizitzan, eta zenbat eta*

**3** 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.



*denbora gehiago igaro, orduan eta animo gutxiago izaten dute. Etengabeko presioa da CETIaren barruan sentitzen duten kontrol guztiagatik, eta horietako askok telefono bidezko presioa ere pairatzen dutelako; hala nola Marokon dagoen norbaitena, non dauden eta zer egiten ari diren jakin nahi duena. Etengabeko presioa da».* (MELILLAKO ANTOLAKUNDEA, ELKARRIZKETA).

CETIa kontrol handieneko gunea bihurtu da bertan bizi diren emakume askorentzat, uneoro behatzen dituztelako. Baina zentroan lan egiten duten antolakundeen arabera, emakumeek laguntza eskatzeko modua aurkitzen dute, behar izanez gero: «Adibidez, buruko min handia duten uneak, hilekoa... Normalean lagunduta joaten dira, baina erizaindegira bakarrik joaten dira, eta, beraz, komunikaziorako gunea bihurtu daiteke».

Bulegoak CETItik kanpo dituzten antolakundeek ere adierazten dute, kontrol horren ondorioz, zailtasunak daudela emakumeak zentrotik kanpoko jardueretara hurbil daitezzen. Kanpoan egoteak kontrola murriztu dezake, baina zentrotik irten nahi izatea da korapilo nagusia.

Elkarrizketatutako antolakunde guztiek adierazi dute haien arteko koordinazioa hobetu behar dela, eta adierazi dute hobekuntzak egon direla gai jakin batzuetan, hala nola sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako lanean. Zentzu

horretan, nabarmendu beharra dago Gobernu Ordezkaritzako Genero Indarkeriaren Unitateak sustatutako koordinazio-mahaia.

#### SEXU-ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETAREN BIKTIMAK

Ceuta eta Melillan ez dago pisurik sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak babesteko. Antolakundeen arabera, egongo balira ere, ez lirateke seguruak izango; Melilla Acogek hala dio: «[Pisuek] ez lukete funtzionatuko, oso hiri txikia delako. Beste baliabide espezifiko bat sortzeak balioko luke soilik emakumeek bi edo hiru egun bertan pasako balituzte, gero penintsulara bidaltzeko; bestela, ez. Emakumeek denbora gehiago egon behar badute, zailagoa da, hemen dena ikusten delako, dena jakiten eta entzuten delako. Melilla ez da toki segurua beraientzat».

Giza eskubideak defendatzen dituzten antolakundeek urteak daramatzate salatzen CETIetan bizi diren salerosketaren biktimek bizi duten babesgabetasuna. Badirudi egoera hori aldatzeko zenbait urrats ematen ari direla. Elkarrizketatutako antolakunde guztiek diotenez, lehen salerosketaren biktimen existentzia bera ukatzen zen, eta gaur egun zentroaren kudeaketan lantzen da salerosketa. Antolakundeek adierazi dute urratsak ematen ari direla CETIen barruan gaiari

buruz jarduten duten eragileen arteko koordinazioan eta zenbait informazio partekatzean. Hala ere, uste dute oraindik lan handia dagoela egiteko alde horretatik, biktimak babesteko lanketa integrala egin ahal izateko.

Saharaz hegoaldeko emakume bat CETIan sartzen denean, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima posibletzat jotzen da zuzenean. Elkarrizketatutako antolakunde batzuen arabera, horren ondorioz, iristen diren emakume batzuen egoera pertsonalak ez dira artatzen. Alboratu egiten da beren istorio, kontakizun eta beharren aniztasuna, eta estigmatizatu egiten dira Saharaz hegoaldeko emakumeak. Edonola ere, zenbait antolakundek planteatzen dute urratsak ematen ari direla kasuak banan-banan aztertzerantz bidean, erantzun bereziak eman ahal izateko.

Antolakundeen ustez, salerosketaren zantzuak dituzten emakume asko iristen dira Melillara.

*«Salerosketaren zantzu asko daude: haien jatorrizko herrialdeak, errepikatzen diren ibilbideak, ezkontza behartuak, Marokotik igarotzean pairatzen duten lan-esplotazioa, etab. Hainbat eredu errepikatzen dira. Denboran zehar pertsona berdinekin kontakizun bera errepikatzeak, salerosketaren biktima izan daitezkeenaren zantzuak ditu. Jakina,*

*emakume guztiak ez dute bizi izandakoa salerosketa gisa identifikatzen».* (MELILLAKO ANTOLAKUNDEA, ELKARRIZKETA).

Melilla igarobidea da oraindik ere; ez da migrazio proiektuaren helmuga. Hori kontuan hartu behar da emakumeen zaugarritasun egoera aztertzeko orduan:

*«Salerosketaren balizko biktimak detektatzeko orduan, penintsulan alda daitezkeen beste zantzu batzuei adi egon beharra dago. Haietako asko jabetzen dira zorraz, baina normalean ez dakite nola egingo den ordainketa; ez dute haiek kudeatuko ez erabakiko ere. Hona iristean, badakite istorioaren bukaera dela. Jarraituko duela, baina beste modu batean. Badakite bizitza ez dela erraza, baina beren lanaren eta gorputzaren jabe dira, lehen baino gehiago».* (MELILLAKO ANTOLAKUNDEA, ELKARRIZKETA).

Elkarteetako teknikariek halako profilekin lan egitea konplexua dela planteatzen dute, esplotazioa oraindik ez baita eman. Hortaz, helburu nagusia da emakumeek ahalik eta informazio gehien eskuratzea Melillan, hala, esplotazio egoeran daudenean, zenbait baliabide izan ditzaten. Antolakundeek nabarmentzen duten beste arazoetako bat da kontrolatzailearen figura dagoela CETlaren barruan; horiek ere salerosketaren biktima izan dira kasu askotan, edo hala izaten jarraitzen dute. Horrek izugarri zailtzen du antolakundeek emakumeekin egiten

duten lana, inoiz ez baitaude bakarrik.

Identifikatutako beste zailtasun bat da normalean emakumeak taldeka ateratzen direla CETlitik; ondorioz, gerta daiteke baliabide berberetara joatea, kontrolatzaile lanak egiten dituen barne. Elkarrizketatutako antolakunde baten hitzetan, «lau emakume elkarrekin baldin badoaz, baliteke horietako bat kontrolatzailea izatea. Suposatzen da baliabide horretara doazela bakarka lan egin ahal izateko, taldearen presioa ez sentitzeko, erabakiak hartzeko. Espazio horretan bakarrik egoteko beharra dute, eta beste emakumeekin badoaz zaila izan daiteke lanketa indibiduala egitea».

#### LGTBI PERTSONAK CETIAN

Txosten honen xedea ez bada ere, aipatu nahi dugu CETlan bizi diren LGTBI pertsonen egoera. Nazioarteko babesa eskatu duten gizon homosexualak eta transak gizon heterosexualengandik bereizitako geletan bizi dira, emakumeentzat eta familia duten emakumeentzat gordetako CETlaren eremuan. CETla elkarlanean aritzen da Melillako Lesbiana eta Gay-en Elkartearekin (AMLEGA). 2017an, Defensor del Pueblo, jasotako kexen ondorioz, nazioarteko babesa eskatzen zuten LGTBI pertsonen penintsulara lekualdatzeko lehentasuna emateko gomendatu zuen<sup>4</sup>:

*«[...] aipatutako kolektiboko pertsonen eta hiri autonomoetako CETletan bizi direnen kexetan agerian jartzen da hitzezko indarkeria, eta batzuetan indarkeria fisikoa, beren lehentasun afektibo-sexualagatik zentro barruan eta kanpoan pairatzen dutena; ez dago jasota inolako ebaluaziorik egoera zaugarria bizi duten argitzeko. Pertsona horiek, eta baita ordezkatzeko dituzten beste kolektibo batzuek eta gobernu kanpoko erakundeek ere, penintsulara azkar lekualdatzeko beharra aipatzen dute, uste baitute zentroak eta pertsona horiek dauden inguruneak eragin kaltegarriak dituztela interesdunengan, hiri autonomoen ezaugarri bereziak direla eta. Eskatzaile batzuek salaketak jarri dituzte erasoak pairatzeagatik, eta kasu guztietan, beldurra adierazten dute bizi duten egoeragatik. Batzuek ziurtatzen dute beren herrialdeetatik ihesi atera zirenean sexu-orientazioagatik pairatzen zuten jazarpeneren pareko egoera dela».*

#### CEUTA

Ceutako CETlak, 2019an, 510 pertsona hartu zituen; edukieraren mugan zegoen ia-ia, 512 plaza baititu. Edukiera egonkor mantendu zen, gutxi gorabehera. Urtea 1.866 pertsona hartuta amaitu zen; Aljeria (%56) eta Ginea (%27) ziren horietako gehien jatorrizko herrialdeak.

Hauek dira CETlan lan egiten dute

4 Ikus <https://www.defensordelpueblo.es/resoluciones/priorizar-el-traslado-a-la-peninsula-de-los-solicitantes-de-proteccion-internacional-que-pertenezen-al-colectivo-igbti-y-residen-en-los-ceti-de-ceuta-y-melilla-tras-la-evaluacion-individual-correspon/>.

5 Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroa (Centro de Inteligencia contra el Terrorismo y el Crimen Organizado).

6 Egoera hori aldatu egin da 2020ko udaberrian zehar, CETIra doan errepidean argiztapena jarri baitute.

antolakundeak: ACCEM CEAR, CEPAIM Gurutze Gorria, Fundación Cruz Blanca, Fundación Psicólogos Sin Fronteras eta UNHCR; azken horrek ez du bulegorik, baina badu presentzia zentroan. Genero-indarkeriari buruzko lantalde bat dago, eta sexu-esplotaziorako salerosketari buruzko beste bat, administrazioari buruzko funtzionarioez osatuta.

CETIko salerosketako lantaldeak uste du zentrorira iristen diren Saharaz hegoaldeko emakumeen %90ek dituztela sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izatearen zantzuak. Detektatzen direnean, baliabide espezializatueta bidaltzen dituzte, eta penintsulara ahalik eta lasterren eraman ditzaten saiatzten dira. Emakume horien jatorriak Nigeria (Edo estatua), Ginea Konakry eta Kongoko Errepublika Demokratikoa dira.

CETIko lantaldearen arabera, egoiliarren batez besteko egonaldia lau eta sei hilabete artekoa da, aljeriarrena eta nazioarteko babesa eskatzen dutenena izan ezik; horiek hiri autonomoan harrapatuta geratzen dira.

Ceutako CETIlan genero-indarkeriaren aurka jarduteko protokoloa dago, baina oinarrian Genero Indarkeriaren Legea zorrotz aplikatzeko ikuspegia dago. Nahiz eta Defensor del Pueblak gomendio ugari egin —bi CETIei zuzenduak—, ez dago indarkeria prebenitzeko mekanismorik bikotekideak edo bikotekide ohiak ez diren

gizonek erasotzen duten kasuetarako, ezta zentroaren baldintzak kontuan hartzen dituenik ere, non askotariko istorio eta espazioetatik datozen pertsona ugari bizi diren.

Elkarrizketatutako erakundeek salatu dutenez, profil horretako emakumeak egon arren, Ceutan ia ez dago salerosketaren biktima gisa identifikatutako emakumerik, eta horrek agerian uzten du babes-sistema ez dela eraginkorra.

Algeciras Acoge-k dio sistema, zentzu horretan, huts larria egiten ari dela. Antolakunde horrek adibide gisa adierazi du «2013tik 2017ra arteko azterketa konparatibo bat atera dutela CITCO ren<sup>5</sup> balantzean, eta horren arabera, Ceutan 24 kasu zeudela identifikatuta 2017an sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima gisa, eta gainerako urteetan, bat ere ez. Baina, Ceutan galdetuta, esan digute han ez direla identifikatu, zantzu batzuk egon direla eta CETItik penintsulara eraman dituztela. Erakundeek eurek zifra ezberdinak ematen badituzte, zein da errealitatea? Erakunde publikoak ez dira ados jartzen; erakunde-indarkeria gehiago da».

Melillako CETIlan gertatzen den moduan, erakundeak bat datoz esatean penintsularako lekualdaketak egiteko irizpideak ez direla aski argiak. Era berean, denbora-tarte gutxirekin abisatzen

diete irtengo direnei, eta hortaz, ez dute arratsalde bat ere izaten CETlan egin dituzten lagunak agurtu ahal izateko.

Elkarrizketatutako antolakundeentzat zaila da CETla bezalako espazio batean emakumeei arreta integrala eman ahal izatea. Cruz Blanca Ceuta fundazioak planteatzen du garrantzitsua dela emakumeekin konfiantzazko harremanak ezartzea eta haiekin lan egitea, baina horrek lan handia eskatzen duela: «Geletako atea jo ahal izatea, zer moduz dauden ikustea, haiekin gertuko tratua izatea eta motibatzen laguntzea eta konfiantzazko lotura sortzea, hemen dauden bitartean ondo egon daitezen, emozioak kudeatu ditzaten eta jardueretan parte har dezaten».

CETlan denbora igaro ahala, emakumeen osasun emozionala kaltetu egiten da, eta horrek nabarmen eragiten du bertako ekintzen parte-hartzean. «Lehen hilabeteetan asko etortzen dira. Lau hilabete igaro ostean, jardueretara ez etortzen hasten dira; egun osoa ohean ematen dute —gaixo nago, nekatuta nago— asko nabaritzen da, 4 hilabetetik gora aldaketa handia dago» (Cruz Blanca Ceuta fundazioa, elkarrizketa).

Erakunde horrek planteatzen du CETlko baldintzak ez direla errazak emakumeentzat, zentro horretan askotariko

premiak dituzten profil ugari daudelako, eta haiekiko ziurgabetasun handia dagoelako. Haiekin lan egin duten emakume batzuek salatu dutenez, «CETlan jende asko badago, gauez komunera joateak beldurra ematen die, noizbait iruzkinak edo sexu-jazarpenerako egoerak bizi izan dituztelako, eta horrek gogorarazi egiten dizkielako bidean bizi izan dituzten beste esperientzia traumatiko batzuk».

Ceutako CETla hiritik urrun dago, goragune batean. Horrek are gehiago zailtzen du egoiliarrek irtetea, batez ere neguan, eta are zailagoa da bidearen argiztapen ezagatik. Elin elkartetik adierazi duten bezala, «adibidez, behin, neska talde batekin jarduera batetik bueltatzean, bat-batean gizonak hurbiltzen hasi ziren (euren komunitatekoak zein beste komunitateetakoak) eta asko beldurtu gintuzten; hain ilun egoteak asko beldurtzen zuen. Ez dut pentsatu nahi zer izan behar den bakarrik joateak, edo bi joateak». Elkarte askok, gainera, nabaritzen dute Ceutako hirian CETlaren inguruko kezka txikia dela; izan ere, oso hiri militarizatu da, eta «zentroan gertatzen denari bizkarra emanda bizi da».

Bereziki kezagarria da tramitera onartutako LGBTBI eskatzaileen egoera, horiek ere ez baitituzte penintsulara eramaten, nahiz eta CETla ez den haienzako lekurik egokiena, eta Defensor

del Puebloren gomendioa izan arren.

## 2 // ANDALUZIAKO KOSTALDERA IRISTEA

Espainiako kostaldeetako portuetara iristen diren pertsona guztiak, Itsas Salbamenduko ontzietatik datozen unetik, Polizia Nazionalaren edo Guardia Zibilaren esku uzten dira, lurralde-mugapearen arabera, atxilotu gisa; agente guztien jarduna baldintza horietan egiten da. Beraz, izapideak, Espainiako Gurutze Gorriak emandako arreta humanitaria eta sanitarioa barne, 72 orduko epearen barruan egin behar dira, hau da, Espainiako ordenamendu juridikoan aurreikusitako prebentziozko atxiloketaren gehieneko epearen barruan. CEAREk adierazi du zenbaitetan kostaldera heltzen diren pertsonen eskubideei buruzko informazioa kolektiboki ematen dela, eta ez indibidualki.

Giza eskubideen nazioarteko antolakundeek, hala nola Human Rights Watch-ek, salatu dute polizia-establezimendu batzuek «ez dituztela betetzen giza duintasunarekin bat datozen estandarrak».

Pertsonak iristen direnean, itzulketarako administrazio-espediente bat hasten da, salbu eta egoera bereziki zaurgarrian dauden pertsonen kasuan, adingabeen kasuan edo nazioarteko babesa eskatu dutenen kasuan.

Lehen arreta Espainiako Gurutze Gorriko larrialdietako berehalako erantzuna emateko taldeek (ERIE) eskaintzen dute. Talde horiek langile eta boluntarioz osatuta daude, eta kide kopurua artatu beharreko pertsonen kopuruaren arabera da. Talde horrek esku hartze sanitarioko protokolo bat egiten du hasieran, iritsi berrien osasun-egoera egiaztatzeko. Iridiaren txostenean (2018) adierazi bezala, lehen arretan, laguntza mediko xeheagoa behar duten kasuak identifikatzen dira. Emakumeei haurdunaldi-test bat egitea eskaini ohi zaie. Osasun-laguntza gehien behar duten pertsonak erizaindegira pasatzen dira artatuak izateko, eta egoera larrienean daudenak osasun-zentrora eramaten dituzte; gainerakoek, lehen arreta jaso ondoren, edatekoa, berokia, arropa lehorra eta higie-nekit bat jasotzen dute.

Hainbat antolakundek, hala nola CEAREk eta Iridiak, txostenak egin dituzte berriki helmuga-portu bakoitzean egiten den praktikari buruz, eta bertako arreta-baldintzei buruz; asko aldatzen dira lurralde batetik bestera. Txosten horietan adierazten da ez dagoela baldintza egokirik arreta egokia eskaintzeko, eta gune batzuetan ez dagoela eskubide jakin batzuk eskuratzeko aukerarik, hala nola abokatu-laguntza.

Halaber, iristen diren emakumeengan bereziki eragiten duten praktikak aipatzen

dituzte, hala nola Afrikako hizkuntzetako interpretetik eza. Itzulpenetarako, ontzi berean bidaiatzen duten pertsonak erabili ohi dira. CEAREk salatu duenez, «praktika hau arriskutsua izan daiteke, batez ere salerosketaren biktima izan daitezkeen eta tratuariekin bidaiatzen duten emakumeentzat». Ohikoak ez diren hizkuntzekin gertatzen den beste irregulartasun bat da ingelesez eta frantsesez hartzen dela deklarazioa, eta pertsona atxilotuek hizkuntza horiek ezagutzen dituztela diote, baina ez Polizia Nazionalaren aurrean deklaratzeko bezain ondo.

Elkarrizketatutako zenbait antolakundek adierazi dute oso garrantzitsua dela eragileen arteko koordinazioa hobetzea, emakumeek istorio bera etengabe kontatu behar ez dezaten:

*«Eta horren orde, saiatzea nolabait koordinatzeko eta informazioa trukatzeko mekanismo bat lantzen, betiere haien baimenarekin, arrisku handiagoan jarri gabe eta kalterik eragin gabe. Agintariak gero eta gehiago jabetzen dira gai horiek landu behar dituztela, eta emakumeak eta neskek zaugarritasun eta arrisku askorekin datozela. Baina oraindik ere informazio asko falta zaigu kasu horietan nola jokatu eta nola esku hartu jakiteko, berriro traumatizatu gabe, mindu gabe eta arriskuan jarri gabe».*

(ELKARRIZKETA)

lido beretik, Algeciras Acoge-k planteatu

du beharrezkoa dela «diziplina anitzeko talde bat egotea kostaldeetan, iritsierak artatzeko; hala, indarkeria motaren bat edo egoera zaugarrien bat detektatzen bada poliziarenera jo behar ez izateko, baizik eta baliabide espezializatu batera bideratzea, eta bertan egin beharreko identifikazioa egitea». Hori funtsezkoa da, gainera, emakumeek beren kontrolatzaileekin espaziorik partekatu behar ez izateko.

## **SEXU-ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETAREN BIKTIMAK IDENTIFIKATZEA<sup>7</sup>**

Kostaldera iristen diren pertsonak babesteko erronka handienetako bat da koordinazioa hobetzea bertan jarduten duten eragileen artean. Horrek neurritz kanpo eragiten dio sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak identifikatzeari. Hala azaltzen du Algeciras Acoge-ko Encarna Marquezek: «Segurtasun-kidegoen arteko deskoordinazioan ere galtzen gara. Emakumeei ezertarako balio ez dieten paper, idazki eta kanpainetan galtzen gara». Erakunde horrek adierazten du garrantzitsua dela sustatzea emakumeek hiru zifra-telefono-zenbakia eramatea, eta ez bederatzikoa, buruz ikastea erraza dena eta europarra dena, emakume horien mugikortasunari erantzuteko. Halaber, Immigrazio Illegaleko Sareen eta Dokumentu faltsuen Unitate Zentralak (aurrerantzean, UCRIF) salerosketaren biktimak identifikatzeko

egiten dituen elkarrizketetan abokatu-laguntzarik ez dagoela salatu du.

Andres Garcia Berrio Iridiako zuzendarikidearen iritziz, elementu kezka-garrienetako bat da Hegoaldeko Muga gurtzatzen duten Saharaz hegoaldeko emakumeen estigmatizazio itzela.

*«Korrelazio hori egiten da, emakume, Afrika beltzeko eta migratzaile izatearen eta salerosketaren biktima izateko ia probabilitate osoaren artean. Baina, aldi berean, ez dago haientzako esku-hartze sistema egokirik. Erabateko aurreiritzia dago, emakumeen garrantziaren ukapena, paternalismo basatia, eta, horren ondorioz, antolakunde batzuek —hainbat lekutan ikusi dugu hori— beste batzuei ukatu edo zaildu egiten diete emakumengana iristea. Antolakundeek aztertu egin behar dugu zein ikuspegitik eta zein planteamendutik egiten dugun lan, nahiz eta guztia borondate onez egin. Esku hartzeen ikuspuntua berrikusi beharra dago».*

Gurutze Gorriko Rosa Floresek honakoa nabarmentzen du: «Bereziki Granadan eta Almerian, lehen bertara iristen baitzen jende gehiena pateretan, langileek salerosketaren inguruko prestakuntza berezia daukate». Floresek adierazi duenez, lantaldeek salerosketaren errealitateari buruz ikasi ahala, langileek beren adierazle propioak egin dituzte:

*«Helburua da pertsona bakoitzaren egoera baloratzen joateko seinale objektiboak erreparatzea, galdera askorik egin behar izan gabe. Hainbeste emozio, aztoramen eta desorientazio uneetan, ez da ulertzen nor den nor. Geure buruak aurkezten saiatzen gara informazioa eskatu beharrean, pertsonen eskaeretan arreta jarri eta ingurunea ahalik eta atseginena izaten saiatuz. Horrela, emakumeak eta beren seme-alabak harrera baliabideetara iristen direnean, pertsonak konfiantzazko lotura bat ezarri ahal izango du, edo epe ertainean babeserako esku hartzea hasi ahal izango da».*

Gurutze Gorriaren arabera, honako 3 zaurgarritasun egoera nagusiak hartzen dira kontuan: adingabetasuna, nazioarteko babesa eskuratzeko beharra eta salerosketa.

Elkarrizketatutako antolakundeek diote beharrezkoa dela Poliziak eta Segurtasun Indar eta Kidegoek prestakuntza hobea jasotzea salerosketaren inguruan. CEAR Sevillako Mercedes Alconadaren ustez, «poliziarantz 59 bis-aren<sup>8</sup> ikuspegia da nagusi, nazioarteko babesaren gainetik. Askotan izaten ditugu eztabaidak salerosketaren biktima baten asilo eskaera formalizatzen dugunean: zergatik ekartzen didazun hau, 59 bis bada. Hortaz, asko dago egiteke».

Hala, Alconadak praktika polizial bat aipa-

<sup>7</sup> Sexu-esplotazioa bideratutako salerosketaren biktima identifikatuak agintariek ofizialki hala identifikatu dituztenak dira. Horri esker, 2011ko azaroan, Gizakien Salerosketaren Biktimekin Jarduteko Esparru Protokoloan ezarritako babes-neurriak eskura daitezke. Esparru-protokolo horrek honakoa ezartzen du: "Gizakien salerosketaren biktimak berariazko prestakuntza duten polizia-unitateek identifikatuko dituzte; hain zuzen, prestakuntza izango dute salerosketaren prebentzioan eta borrokan eta biktimak identifikatu eta laguntzearen inguruan. Unitate horiek, pertsona bat gizakien salerosketaren biktima dela pentsatzeko arrazoizko zantzuak daudela uste duten unetik hasita eta identifikazio-prozesu osoan zehar, beharrezko neurriak hartu beharko dira pertsona horren eskubideak babesteko, ustezko tratuarien inguruko pertsonarik ez dagoela bermatzeko, laguntza mediko eta soziala emateko eta, ahal den neurrian, beharrezko laguntza juridikoa emateko". Halaber, ezartzen du, ustezko biktima atzerritarra denean eta egoera irregularen dagoenean, ez zaiola zehapen-espediterik irekiko Espainiako lurraldean agiririk gabe dagoelako, eta ez dela kanporatuko, ezta itzularaziko ere, baldin eta alde zuretik zehapen hori erabaki bada.

<sup>8</sup> Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 59 bis artikulua (Atzerritarren Legea) salbuespenezko inguruabarrenetik bizileku- eta lan-baimena emateko aukera aurreikusten du; dela sareen aurkako ikerketaren helburuetarako lankidetzagatik, dela ekintza penalgatik, dela biktimaren egoera pertsonalgatik.

tzen du, hain zuzen ere Atzerritarren Legeak salerosketaren biktimak dokumentatzeko eskaintzen duen prozedura lehenestea, Asiloaren Legeak nazioarteko babesaren aitopenaren bidez eskaintzen dituen aukeren gainetik. 59 bis baimena aldi baterakoa eta berriztagarria da, eta, praktikan, poliziaren lankidetzak baldintzatu ohi du. Asilo Legeak ez ditu eskaintzen ikerketa edo prozesu penal batean parte hartzeak ematen dituen segurtasun-neurriak, hala nola nortasun berria edo poliziaren jarraipena izatea. Baina nazioarteko babesaren esparruak eta horri lotutako baliabideek aukera ematen diete bizirik atera diren emakumeei salerosketa sarean aurrean autonomia garatzeko; hala nola laguntza ekonomikoak, enplegurako eskubidea, prestakuntza, administrazio-erregulartasuna eta askatasunez eta segurtasunez mugitzeko aukera, besteak beste. Eta ez dago identifikazioaren menpe, eta ez du baldintzatzen ikerketa polizialaren helburuekin elkarlanean aritzeak.

Proyecto Ödos sareak egiaztatu du zailtasunak daudela gizakien salerosketaren biktimak identifikatzeko prozesuan. Cristina Manzanedok dioenez, «emakume askok zantzuak dituzte, baina desagertu egiten dira. Lehen fase horretan ez da posible identifikatzea. Bereziki kezagarria da adingabeekin datozenen egoera. Izan ere, beraiek desagertzeaz gain, beren seme-alabak

ere desagertu egiten dira. Guk geratu daitezten nahi dugu, eta esku hartze bat egiten dugu, trukean ezer eskatu gabe, baliabidean jarrai dezaten. Lege-esparruak dioen horri balioa eman nahian, hau da, oneratzeko eta hausnartzeko aldi baten beharrari, salerosketari buruz hitz egin gabe». Manzanedoren arabera, salerosketa egoeran egon daitezkeen emakumeekin lan egiteko, ezinbestekoa da denbora hartzeko aukera izan dezaten, atsedean hartzeko, eta sarearen kontrako salaketari buruz hain azkar erabaki beharrik ez izatea. Antolakundeek eskaria da emakumeek oneratzeko eta hausnartzeko epealdiaz legeak ezartzen duen moduan gozatu ahal izatea, baina gutxitan egin daiteke.

Novact-eko Maria Solerrek dio biktimak babesteari dagokionez mekanismo askok huts egiten dutela:

*«Salerosketaren biktima izan daitezkeen emakume gehienak ez ditu Polizia Nazionalak detektatzen; aitzitik, antolakundeek detektatzen dituzte, emakumeak CIE-etan edo harrera baliabideetan daudenean. Izan ere, salerosketaren biktimen babesak Espainiako sisteman duen gabezia nagusietako bat da salatzearekin erabat lotuta dagoela, eta salatzea ia ezinezkoa da iritsiera bezalako zaurgarritasun handiko une batean. Bestalde, salerosketaren biktimak identifikatzeko protokoloek ez dute ia emaitzarik, eta delituaren*

*jazarpenaren ikuspegia lehenesten da, biktimen babesaren gainetik. Ezinbestekoa da salaketa bat aurkeztea emakume bat salerosketaren biktimatzat har dadin, eta, beraz, babes-mekanismoak aktiba daitezten; baina salaketa jartzeak arriskuan jartzen du bere segurtasuna, eta, ondorioz, bere gain hartzen du erantzukizunaren pisu guztia. Nahiko zitala da babesa poliziarekin lankidetzan aritzeari lotzea. Ikuspegi hori guztiz bat dator migrazio-politika osoarekin: lehenik eta behin, delituaren aurkako borroka egiten da; gero, ikusiko dugu horrek nola eragiten dien iristen diren pertsoneri, zer zaurgarritasun dituzten, nola aurre egiten diogun horri. Lehentasuna ez da, sekula, eskubideak eta babesa bermatzea».*

Solerren adierazpenek zerikusia dute sexuesplotaziorako salerosketaren biktimei laguntzen dieten antolakundeek urteetan mahai gainean jarri duten praktika batekin. Atzerritarren Legeak aukera ematen du salerosketaren biktimak identifikatzeko eta dokumentatzeko, kontuan hartu gabe pertsona hori egoera onean dagoen eta poliziarekin lankidetzan aritzea erabakitzen duen ala ez. Baina praktika polizialak emakumeak urrats hori ematera bultzatzen ditu, beren egoera legezatzeko. Horrek zerikusia du Kontseilu Europarraren 2004ko<sup>9</sup> Zuzentarauaren ikuspegi nagusiarekin —immigrazio irregularren aurka borrokatzera bideratutako araua—, baimen horiek ematea sareak salatzearekin lotzen baitu.

Gizakien salerosketaren biktimak detektatzeko<sup>10</sup> beste zailtasunetako bat epeak dira; izan ere, oso laburrak dira, emakume askok Frantziara, Belgikara, Alemaniara edo beste herrialde batzuetara migratzen jarraitzen dutelako, eta gutxi dira geratzen direnak. Ildo horretan, funtsezkoa da akonpainamendu lana, eta konfiantzazko lotura sortu ahal izatea emakumeekin. Hori, batzuetan, ezinezkoa da, askok mesfidantza handia sentitzen dutelako harrera guneetan arreta ematen dieten pertsonetik, eta epe laburrean lan egiten delako.

Adina zehazteko probei dagokienez, planteatzen da, oraindik ere, zehazgabetasun handia ikusten dela protokoloan. CEAR-ek adierazi duenez, gaur egun, eskumuturraren proba egiteaz gain, beste hiru proba ere egiten dira, baina ez dago hori nahitaez ezartzen duen idatzizko dokumenturik, eta probintzia baten edo bestearen arabera aldatzen da.

Adingabeen kasuan salerosketa zantzuak baldin badaude, Floresek dio saiatzen direla arreta adingabetasunean jartzen, neskatoentzako estrategia bermatzaileagoa eta babesleagoa delako:

*«Ahaleginak eta aurrerapenak gorabehera, bide luzea geratzen da oraindik identifikazio prozesuak ez daitezen mugatu unean uneko elkarizketetara, eta haurtzaroaren,*

*kulturaren eta generoaren ikuspegiak zeharka txertatu daitezten. Horregatik, eta neskatoen interes gorenaren mesedetan, uste dugu lehentasunezkoa dela beren adinerako egokia den ballabide batean babestuta egotea eta detektatutako salerosketa-zantzuez ohartaraztea, babeszentrotik eta Adingabeen Fiskaltzatik arriskua baloratu dadin. Neskatoa espazio seguru batean dagoenean, bere onera etorri denean, eta abar, agian, une horretan, baloratu ahalko luke —edo harekin batera baloratu liteke— ea egokia den Segurtasun Indar eta Kidegoek identifikatzea, eta delituen jazarpenean laguntzea».*

Beste antolakunde batzuek, halaber, azpimarratu dute ez dagoela sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimentzako zentro espezifikorik. Helduentzako zentroetan neskatoei esleitutako plaza batzuk daude, baina, diotenez, ez dira nahikoak eta ez da irtenbide egokiena, adingabe hauek premia espezifikokoak dituztelako (adibidez, hezkuntzarako sarbidea) eta bestelako laguntza fisiko, psikologiko eta psikosoziala behar dutelako. Neskato horiek tutoretzapeko beste adingabe batzuk bizi diren pisu edo zentroetan hartzen badituzte, espazio irekietan bizitzen hasten dira; bertan, askotan ez dira kontuan hartzen haien behar psikologiko bereziak, eta ez dira fisikoki edo psikologikoki urruntzen erasotzaileengandik. Eta erasotzaileek hari sotil eta ikusezin horiei tira egitea nahikoa dute neskatoak berriro esplotatzeko.

<sup>9</sup> Kontseiluaren 2004/81/EE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, hirugarren herrialdeetako nazionalak bizileku-baimena emateari buruzkoa, baldin eta gizaki-salerosketaren biktima badira edo legez kanpoko immigrazioari laguntzeko ekintzaren baten xede izan badira, eta agintari eskudunekin lankidetzan jarduten badute.

<sup>10</sup> Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima bat detektatzea da salerosketaren balizko egoera iradokitzen duten seinaleak aitortuz hasten den prozesua. Adierazle horiek aitortzea funtsezkoa da delitua deskubritzeko eta biktimak babesteko, kasu horietan, salaketa, oso salbuespenezko kasuetan gertatzen baita. Detekzioa hainbat egoeratan gerta daiteke, non salerosketan espezializatutako eta espezializatu gabeko agenteek esku hartzen duten: estatuko segurtasun-indarrek jardutean, herrialdean sartzeko unean, ustezko biktima bat antolakunde sozial batekin harremanetan jartzean osasun-, gizarte- edo hezkuntza-zerbitzu batera jotzearen ondorioz. Detekzioaren ondorioz, estatuko segurtasun-indar eta -kidego eskudunek identifikatzea gerta daiteke.



Aurreko atalean azaldu bezala, pertsona bat kostaldera adingabe batekin iristen denean, seme-alabatasun probak egiten dizkiete. Antolakundeen arabera, normalean, probaren emaitzek luze hartzen dute, eta, batzuetan, iristen direnerako, emakumeak jada ez daude penintsulan. Antolakunde batzuek diote emakume horiek probaren emaitzak izan gabe mugitzeak erabateko zaurgarritasun-egoeran uzten dituela, ez dutelako ahaidetasuna egiaztatzen duen ziurtagiriirik.

Amaranta fundaziotik harrera pertsonaliza-tuagoa egiteko beharra dagoela diote, emakumeen beharrak harreraren erdi gunean jartzeko, baina gero eta zailagoa da hori, antolakundeek egin behar dituzten kudeaketa guztien ondorioz: «Harrera oso pertsonalizatua izan behar da, eta etengabe lagundu behar da. Kudeaketa guztiaren kontua beharrezkoa da, baina laguntza askoz errealaagoa izan behar da».

### 3 // MUGEK ZEHARKATUTAKO AMATASUNAK

Hegoaldeko Mugako korapilo nagusietako bat, ardurapean adingabeak dituzten emakume askorentzat, seme-alabatasuna zehazteko froga da. Emakume bat Espainiako lurraldean adingabe batekin sartzen denean, automatikoki biei DNA proba egiten diete, eta proba hori amatasuna edo aitatasuna egiaztatzeko da soilik. Probak

lotura biologikoa erakusten ez badu, automatikoki kenduko diote adingabea, adingabeen zentro batera eramango dute eta tutoretzapean egongo da. Giza eskubideen hainbat erakundek azken urteotan salatu dituzte zentro horiek Melillan dituzten baldintza eskasak eta, kasu batzuetan, bertako hormen artean gertatu diren abusuak. Praktika hori oso egoera zaurgarrian uzten ari da haur eta gazte asko, baita, ama biologikoak ez izan arren, haien hazkuntzaren erantzule diren emakumeak ere.

Kasu batzuetan, egia da emakumeek haienak ez diren adingabeak gurutzatzen dituztela sareek hala eskatuta, «dela haurrarekin komertzializatzeko, sexu-esplotaziorako, organoak erauzteko edo eskean aritzeko. Haur horren benetako ama harrapatzeko ere izan daiteke, horrela, beste herrialde batera joatera behartzeko» (Melillako elkarte, elkar-riketa). Edonola ere, ez da hala kasu gehienetan; aitzitik, adingabeen ardura zuzena duten pertsonak izan ohi dira, seme-alaba biologikoak ez izan arren. «Herrialde askotako ohitura da komunitateko jendeak haurrak bere gain hartzea, haien gurasoek abandonatu badituzte edo hil egin badira. Halaber, bidean aurkitzen dituzten haurrei ibilbidean gertatzen zaizkien kontuengatik ere arduratzen dira». Laura Serrano Melillako CEAREko abokatuak dio aztertzen ari direla egoera honi nola heldu,

«agian ez direlako ama biologikoak, baina errealitatean txikitatik "adoptatu" dituzte haurrak. Emakume horrentzat bere alaba da, baina "adopzio" hori paperen bidez frogatzea oso zaila izan daiteke».

Antolakunde batzuek, hala nola Algeciras Acogek, salatu dute ohikoa dela sareek adingabeak erabiltzeari erreferentzia egitea, normalean merkantzia bihurtzen direlako, baina oso garrantzitsua da administrazioaren zeregina ere salatu eta aztertzea, ez baitu inolako erraztasunik ematen familia berriz elkartzeko .

Emakumeen migrazioa eta salerosketa sareen loturari dagokionez, hala dio NO-VACTeko Maria Solerrek:

*«Emantzipatzeko estrategiei eta ama migratzaileek seme-alabak zaintzeko duten moduari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak elikatzen laguntzen du, eta hauren eskubideak eta bizitza pribatu eta familiarra edukitzeko eskubidea urratzen du. Salerosketaren biktima zantzuak zituzten emakume nigeriarren etorrerak gora egin zuenez, Atzeritarren Fiskaltza DNA probak egiten hasi zen lotura biologikoa egiaztatzeko. Lotura biologikoa dagoela egiaztatzen bada, eta ama salerosketaren biktimatzat hartzen ez bada, agintariak adingabearentzat arrisku-faktorea dela interpretatzen dute, eta seme-alabak amarengandik bereizten dituzte. Bereizketa saihesteko,*

*salerosketaren biktima gisa identifikatu behar dute beren burua. Funtsezkoa da agintariek ulertzea hori ez egitea normaltzat jo behar dela, dauden egoeraren aurrean».*

«Europako jendarteetan aurreiritzi handiak daude salerosketaren biktima diren emakumeei buruz, migratzaile izateagatik, jatorri etnikoagatik edo prostituzioan aritzeagatik, besteak beste», salatu du Women's Link Worlwidek. *Amak salerosketa sareetan* (Madres en las redes de trata, 2018) txostenean, antolakunde honek adierazi du emakume horiek seme-alabak zaintzeko duten gaitasunari buruzko ideia estereotipatuengatik eta familia-eredu egokiari buruzko begirada eurozentrikoaren ondorioz, praktika instituzional jakinak sortzen ari direla, eta hain zuzen ere, salerosketaren biktima diren emakumeek ama gisa dituzten eskubideen aurkakoak direla. Aipatu txostenean jasotakoaren arabera, «antolakunde sozialek ikusten dute tutoretza-erabaki asko ikuspegi estereotipatuetan oinarritzen direla; hain zuzen ere, emakume horiek haurrak zaintzeko duten gaitasunari buruz — arriskutsuak balira bezala seme-alaben segurtasunerako, haien erantzukizunetik kanpo dagoen salerosketa sare batek gauzatzen dien sexu-esplotazioko egoera-rako— eta ama onak izateko haien bizitzen egokitasunari buruzko ikuspegietan». △

# SAHARAZ HEGOALDEKO EMAKUMEEK NAZIOARTEKO **BABESA** **ESKURATZEA**

## 1 // NAZIOARTEKO BABESA ESKURATZEA MAROKON

Maroko da migratzaile eta iheslari askoren egungo helmuga, eta han jarraitzen dute Europara igarotzeko zain dauden bitartean. Marokoko erresumak duela bost urte Asilo Lege bat iragarri zuen, baina oraindik ez dute onartu. Ondorioz, nazioarteko babesaren onuradun potentzial asko babesgabetasun-egoeran daude. 1. atalean azaldu den moduan, kezkarria da Marokon migratzaileen eta errefuxiatuen aurkako errepresioa areagotu izana. Ez da leku segurua jatorrizko herrialdeetan pairatzen duten giza eskubideen urraketetatik ihesi datozenezat.

Gaur egun, Marokon, UNHCR arduratzen da, Rabateko bulegoaren bidez, nazioarteko babes eskaerak kudeatzeaz eta asilo estatutuak emateaz. Baina, elkarrizketatutako hainbat antolakundek adierazten duten moduan, UNHCRk emandako estatutu bat edukitzeak ez ditu gehiegi hobetzen emakumeek Marokon dituzten bizi-baldintzak.

COFMIMaren arabera, Marokon estatutua onartuta duten pertsona urriek jasotzen dituzten laguntzak hutsalak dira; horrek herrialdean dituzten bizi-baldintzak prekarizatzen ditu, are gehiago adingabeak ardurapean dituzten emakumeen kasuan. Elkarrizketatu dugun entitate baten hitzetan, «laguntza pixka bat ematen diete hilabete batzuetan, eta gero auzo pobreenetan amaitzen dute eta kalean indarkeria jasaten dute, irainak. Ez dute ezer eskuratzeko ahalmenik. Eta horiek estatutua daukaten pertsonak dira». COFMIMak adierazi du herrialdean asiloa eskatzen duten emakumeek indarkeria matxistarekin lotutako arrazoiengatik eskatzen dutela, hala nola behartutako ezkontzengatik edo bikotekidearen indarkeriagatik; era berean, sexu-orientazioagatik jazarriak diren LGTBI pertsonen babes-eskaerak daude.

Elkarrizketatu ditugun antolakunde guztiek diote errefuxiatuentzako oso prozesu motela dela, itxaropen gutxikoa. Ainanik (AMDH) dionenez, oztopo nagusietako

bat da UNHCRk bulegorik ez edukitzea mugako perimetroetatik hurbil, «eta bertan daude nazioarteko babesa eskatu dezaketen pertsona gehienak». Zentzu horretan, elkarrizketatutako antolakundeetako batek honakoa dio: «Nola liteke Marokon UNHCR Rabaten egotea, eta ez Nadorren? Norbaitek asilo eskaera egin behar duen bakoitzean, autobusez joan behar du, oso urrutira. Oso agerikoa da oztopoak daudela: egitura eta gune guztiak migrazioak geldiarazteko egin dituzte, ez pertsonak babesteko».

Salerosketaren biktima izatearen zantzuak dituzten emakumeen kasuan, prozesua are konplexuagoa da. Virginia Rodriguez Romo Mujeres en Zona de Conflicto-ko kidearen arabera, prozesu motela izan ohi da, Rabateko UNHCR-ren bulegora joan behar direlako, eta elkarrizketarako hitzorduak bost edo sei hilabete berandutzen direlako. Azpimarratzen du emakumeek epealdi horretan babesgabe geratzen direla, migratzaile beltzen aurkako errepresioa errepikakorra den herrialde

batean. Epealdi horretan, emakume asko «penintsulara gurutzatzen saiatzen dira, ez dutelako guztiz ulertzen zer den asiloa eskatzea ezta zein onura dituen ere. Izapidea irekita izan arren, aukera izanez gero, gurutzatu egiten dute».

Jazarriak direla frogatzea zaila denez, babesa lortzeko aukerak mugatzen dira. Emakume askok ihes egin dute ezkontza behartuetatik, baina haien eskaerak ez dira ontzat hartzen, zaila delako frogatzea jazarriak izan direla:

*«Ezkontzaren frogak eskatzen dituzte, eta arriskuan daudelako frogak. Nola frogatu arriskuan zaudela? Nola frogatu indarkeria fisikoa eta sexuala pairatu dituzula? Jatorrizko herrialdean egindako salaketa bat aurkeztu behar dute, baita polizia ezer egin ez duelako froga ere. Hori guztia gorabehera, asiloa da, oraindik ere, gutxieneko babesa jasotzeko Marokon eskuratu dezaketen baliabiderik onena».* (RODRIGUEZ, MZC, ELKARRIZKETA).

Edonola ere, gogoratu beharra dago penintsulara gurutzatzea lortzen badute, nazioarteko babesteko estatutuak baliogabetu egiten direla.

## **1 // NAZIOARTEKO BABESA ESKURATZEA HEGOALDEKO MUGAN**

2019an zehar 7.020 asilo-eskaera egon

ziren mugako postuetan, Barne Ministerioaren datuen arabera. Lurralde espainiarrean erregistratutako 118.264 eskaeren %5,9 baino ez.

### **MELILLA ETA CEUTA**

Melillan, 2019an, 4.273 pertsonak eskatu zuten nazioarteko babesa (2018an baino %23 gehiago). Nabarmen igo ziren Tunisiako (1.044) eta Egiptoko (165) pertsonen eskaerak, eta beherakada hauteman zen Siria, Palestina eta Yemengo pertsonen eskaeren artean; neurri handi batean, lurreko mugak gurutzatzea zailagoa zelako.

Melillan asilo-bulegoa martxan dagoen arren, ez diete sartzen uzten Saharaz hegoaldeko pertsonen. Ceutako asilo-bulegoa —Tarajalgo mugako postuan kokatua, eta ofizialki 2015ean inauguratu zena—, ez da funtzionatzen hasi 2019ko irailaren 1era arte. Martxan jarri zuten abuztuaren 30eko hesiaren jauziaren ondorioz. Bulego horrek erregistratu zituen, mugako tramite azkarraren bidez, hiri autonomoan sartu ziren Saharaz hegoaldeko pertsonen bi taldeen nazioarteko babeseko eskaerak. Lehenengo taldeak abuztuaren 30ean gurutzatu zuen hesia, eta iraileko lehenengo bi asteetan 148 eskaera erregistratu ziren; horietatik soilik 19 onartu zituzten izapidetzeko. Bigarren taldea azaroaren 18an sartu zen hirian, Tarajaletik eta furgoneta bidez, eta ondorengo

egunetan 52 eskaera jaso ziren; horietatik 4 gizonen eta 16 emakumeren eskaerak, lagundutako bi adingabe barne, onartu zituzten izapidetzeko.

Ceutara sartzen diren taldeenganako jarrera-aldaketa hori ulertzeko kontuan hartu behar dira Herriaren Defendatzaileak, CEARek eta beste erakunde sozial batzuek gobernuari zuzendutako kritika gogorrak, 2018ko abuztuan Saharaz hegoaldeko 116 pertsonaren itzulketa azkarraren ondoren, Marokora. Hori bera errepikatu zen Melillan bi hilabete geroago, Espainia eta Marokoren arteko berriz hartzeko 1992ko Aldebiko Akordioa aplikatuz.

Saharaz hegoaldeko pertsonak aldi batez asilo-bulegora sartzearen ondorioz, 2019an gora egin du hiri autonomoan nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen kopuruak, 348tik 577ra.

Gogoratu beharra dago hesia gurutzatzeko jauzi horietako batzuk prozedura judicial bihurtu direla. Hala gertatu zitzaizen 602 pertsonako talde bateko 9 kideri, 2018ko uztailaren 26an Ceutako hesitik jauzi egin baitzuten. 2019ko urriaren 30ean Ceutan dagoen Cadizko Probintzia Auzitegiak urte eta erdiko kartzela-zigorra ezarri zien desordena publikoko delituengatik eta kalteengatik, eta, gainera, hainbat gauza ordaindu behar izan zituen erantzukizun zibilagatik.

Oso esanguratsua da bi hiri autonomoetako muga-postuetan asiloa eskatu zuten Saharaz hegoaldeko pertsona guztiek lurraldean modu irregularrean sartu ondoren eskatu izana. 2019an gertatutakoak agerian uzten du, beste behin ere, postu horietan ezin dutela zuzenean nazioarteko babesa eskuratu, Marokoko agintariak muga gurutzatzea eragozten dietelako.

Saharaz hegoaldeko pertsonak ezin dute Ceuta eta Melillako mugako postuetan sartu nazioarteko babesa eskatzeko, eta horrek modu askoz arriskutsuagoan sartzera behartzen ditu. Amnesty Internationalek dioen bezala, bideragarria den aukera bakarra hesia saltatzea, ibilgailuetan ezkutatzea edo itsasoa ontzi arriskutsuetan gurutzatzea da, baita igerian ere; azken bi aukera horiek emakumeek baliatzen dituzte batez ere. Aukera horiek guztiek arrisku biziari jartzen dute haien osotasun fisikoa eta, kasu askotan, haien bizitza ere.

#### ESKATZAILEAK MELILLAN

Orain dela gutxi arte, Melillan, babesa eskatzen zutenak ez zituzten penintsulara eramaten eskaera ebatzi arte; praktika hori ez da pizgarria izan Melillan babesa eskatzeko orduan. Iridiak adierazten duen moduan (2017), 2015az geroztik, murriztu egin dira penintsulara joateko itxaronaldiak, batez ere hainbat erakundek (besteak beste, CEAREK) egindako presio- eta eragin-lanagatik.

Dagoeneko ohiko praktika ez den arren, oraindik ere egiten da Aljeriatik eta Marokotik etorritako eskatzaileen kasuan. SJMK berriki egindako txosten baten arabera (2019), dirudienez, praktikahorren helburua da magrebtarren eskaerak ez sustatzea.

Saharaz hegoaldeko emakume gutxiak eskatzen dute asiloa CETlan, nahiz eta horietako asko errefuxiatuak izan. Ikerketa hau egin zen unean, nazioarteko babesa eskatzen zuten emakume gehienak Maroko, Aljeria eta Ginea Conakrykoak ziren.

Afrika beltzetik datozen emakume gehienek babesa zergatik eskatzen ez duten azaltzen duten kontu ugari daude.

SJMK, 2019ko txostenean, asilo-elkarrizketetan akats larriak jasotzen ditu, hainbat arrazoiengatik, hala nola interpretazio egokirik ez egiteagatik eta «abokatu-laguntza mugatua eta pasiboa emateagatik: abokatuaren eta eskatzailearen artean ez zen elkarrizketen aurretik bilerarik egiten eskatzailearen eskubideei buruzko informazioa eman eta elkarrizketa prestatzeko, eta elkarrizketa amaitzean agertzen ziren, dokumentazioa sinatzeko bakarrik».

Beste antolakunde batzuen arabera, arazoetako bat da Espainiako Asilo Legea ezartzean, oraindik ere, interpretazio

oso mugatuak egiten direla babesa eskatzeko arrazoiei dagokienez, eta horrek eskatzaile asko baztertu ditzake.

Saharaz hegoaldeko pertsona askok ez dute CETlan nazioarteko babesa eskatzen, Frantziara edo Belgikara iritsi nahi dutelako. Laura Serrano CEAREko abokatua da Melillan. Haren hitzetan, garrantzitsua da «azaltzea ez dela hain erraza, itzularazi egin ahal dituztela, eta eskubidea dutela Espainiako Estatuan babesa eskatzeko. Baina hor sartzen dira jokoan beren ezagunek asiloari buruz kontatzen dizkieten buloak edo informazio partzialak. Guretzako, funtsezkoa da asiloari buruzko informazio argia eta zuzena izan dezaten».

Emakumeen kasuan, jazarriak izateko hainbat arrazoi daude, etnikoak zein politikoak. Baina badaude ere genero arrazoiengatik jazartzen dituzten emakumeen kasu asko:

*«Emakume asko indarkeria matxistatik ihesi iristen dira, hala nola ezkontza behartuak, indarkeria edo ablazioa. Hala ere, maiz, oso barneratuta edo normalizatuta dauzkaten kontuak dira, eta zaila da babesa eskatzeko motibo gisa ikus ditzaten. Bestalde, emakume askok ez dakite zer den asiloa. Hortaz, entitateek sentsibilizazio eta kontzientziazio lan garrantzitsua egiten dugu CETlra iristen diren pertsonekin. Informazio saiok antolatzen ditugu*

*emakumeak zentzora iristen direnean, eta egoiliarrei ere astero eskaintzen dizkiegu halako saioak».* (SERRANO, ELKARRIZKETA).

Emakume askoren kasuan, gainera, sareetatik jasotzen duten presioa gehitu behar diogu, asiloa eskuratzeko oztopo gehigarri moduan. Antolakundeek diote kontrol horrek eragotzi egiten duela emakume askok nazioarteko babesa eskatzea, «sareak ez dielako eskatzen utziko».

Beste arazoetako bat da eskatzaileen hizkuntzen interpreteak falta direla. Serranok adierazi bezala, «askok frantsesa zertxobait ulertzen dute, baina gehienetan ezinezkoa da guztia ulertu dezaten. Ez dago interprete presentzialik, adibidez, bambara edo pula hizkuntzetarako; soilik frantseserako, arabierarako eta ingeleserako. Ez dago Afrikako jatorrizko hizkuntza bat ere ez; ondorioz, asko dira beren burua aditzera eman ezin duten pertsonak». Zentzu horretan, kontuan izan behar da babesa eskatzeko elkarrizketa funtsezkoa dela errelatoa sinesgarria izan dadin. Izan ere, eskatzaile gehienek ez dute dokumenturik jazarriak izan direla frogatzeko. Emakumeen kasuan, are zailagoa da: «Errelatoa da funtsezkoa, beren bizi-istorioa. Nola frogatu daitezke tratu txarrak, salaketarik jarri ezin den herrialde batean? Ba, jakina, gertatutakoa kontatuz eta zergatik babestu ez dituzten

azalduz. Saharaz hegoaldeko pertsona gehienak ez dute dokumentaziorik, ezta identifikatzeko ere».

Emakumeek beren jazarpen istorioa normaltasunez eta sakontasunez kontatu dezaten, funtsezkoa da antolakundeen laguntza. Abokatuak dioenez, emakumeak Melillara iristen direnean «normalean horma bat dute aurrean. Horma hori pixka bat erortzean, hitz egiteko gai izaten dira, negar egiten dute, baina normalean, gelditu behar izan dugunean, pixka bat gelditu arren guztia kontatzen dute. Funtsezkoa da guztia kontatzea poliziarekin elkarrizketa daukatenean. Ablazioaz galdetu behar zaie, normalean beraiek ez dutelako aipatzen».

Antolakunde guztiak diote, emakumeak, eskuarki, mesfidantza handiarekin iristen direla CETIra, eta horrek entitateekin duten harremanari ere eragiten diola. Emakumeek oztopo komunikatibo eta emozional asko hautsi behar dituzte ahalik eta informazio gehien emateko, beren proiektu pertsonal eta kolektiboari eragingo dioten erabakiak hartu ahal izateko. Bestalde, garrantzitsua da kontuan hartzea erronka handia dela indarkeria matxisten inguruko kontzeptualizazio eta sinesmen anitzekin lan egitea. Hala dio CEAREko abokatuak:

*«Frantsesez komunikatzen gara gehienbat. Hizkera moldatzen saiatzen gara, adibide zehatzak ematen, motiboak azaltzeko.*

*Emakumeekin egiten ditugun informazio saioetan generoa, ablazioa eta abarri lotutako zehaztasunak kontatzen dizkiegu. Esaten diegu beren herrialdeetik ospa egitera behartu dituen arrazoiez gain, beste arrazoi batzuk ere garrantzitsuak direla. Bidean gertatu zaizkien gauza batzuen ondorioz ere baliteke beren herrialdeetara itzuli ezin izatea, edo nahi ez izatea. Hori aipatzen dugunean, kasu askotan, ireki egiten dira, eta bidean bizi izan dutena kontatzen dute: adibidez, ontzira igotzeko dirua lortzeko, batzuk prostituzioan aritu behar izan direla. Beste batzuek ez dute ezer kontatzen, edo esaten dute ez zaiela ezer pasatu. Gertatu zaiena guri kontatzeko konfiantza dutela sentitu dezaten, edo gertatu dena imajinatzen dugula ohartu daitezen, modu bat honakoa esatea da: Badakigu batzuek hau egin behar izan dutela... (eta ihes egiteko arrazoiak edo bidean pairatu ahal izan dituzten gehiegikeriak aipatzen dugu), eta haiek, identifikatuta sentitzen direnean, baietz esaten hasten dira».*

Emakumeentzako, nazioarteko babesa eskuratzeko oso prozesu birbiktimizatzailea izan daiteke:

*«Orokorrean, emakume gehienak oso behatuak sentitzen dira. Eta horretan eragina dauka, baita ere, pertsona askori gauza bera errepikatu behar izateak, eta galdera berberei behin eta berriz erantzuteak; horrek nekatu egiten ditu. CETIra iristen direnean beren istorioa kontatu behar*

dute, eta penintsulara iristen direnean berriro kontaktu behar dute. Ondorioz, beren kontakizuna gero eta hotzagoa bihurtzen da. Batzuetan, hainbeste aldiz kontaktu ondoren, esanahia ere galtzen du istorioak». (MELILLAKO ANTOLAKUNDEA, ELKARRIZKETA)

### ESKATZAILEAK CEUTAN

Claudia Assens CEAREko abokatuaren arabera, Ceutako CETlan gaur egun babesa eskatzen duten pertsona gehienak magrebtarrak dira (Maroko, Aljeria eta Tunisia), baita siriarak eta afganistandarrak ere:

«Saharaz hegoaldeko pertsona gehienek ez dute nazioarteko babesa Ceutan eskatzen, 2009ko Asilo Legeaz geroztik ezartzen den mugimendua murrizteko politikagatik. Nazioarteko babesa bertan eskatzen dutenak denbora luzez geratzen dira atxikita, urtebete inguru. Saharaz hegoaldeko jendeak badaki hori, eta hortaz, ez dute babesa bertan eskatu nahi.

CEAREko zerbitzu juridikoak urteak daramatza traba horren aurkako errekurtsioa jartzen, eta Andaluziako eta Madrilgo justizia auzitegi nagusiek hainbat erabaki eman dituzte; horien arabera, asilo eskatzaileei aitortu egiten zaie lurralde nazional osoan zirkulatzeko askatasuna.

Nik azaldu egiten diet nola jokatzeko dugun mugimendu murrizketa horren aurrean.

Beraiek badakite hori gertatzen dela, eta ez dauka zentzurik ukatzeak. Hain zuzen ere, kontaktzen diegu zein bide legal dauzkagun zirkulatzeko eskubidea defendatzeko. Bide administratibotik errekurritu dezakegu jarduketa hori, eta, gero, kautelazko neurriak eskatu Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiari, zeinak guztiak onartzen baititu; neurri horiek penintsulara lekualdatzeko baimena ematen dute. Beste gauza bat da profil oso zaurgarrien kasuan Administrazioa tematzea, eta, azkenik, auzitegiaren erabakia iritsi aurretik lekualdatzeko baimena ematea». (ASSENS, ELKARRIZKETA).

CETira iristen diren Saharaz hegoaldeko emakume asko errefuxiatuak dira, baina ez dute nazioarteko babesik eskatzen, abokatuak azaldu duenez:

«Penintsulara igarotzeko zain dauden pertsonen egoera mentala oso bestelakoa da, oraindik ere igarobidean baitaude. Askoz zailagoa da haiei informazioa helaraztea eta haiek barneratzea, eta babesa eskatzeko eskura dituzten prozedurekiko interesatzea; izan ere, oraindik ez dira iritsi buruan duten helmugara. Uste dut hori dela Saharaz hegoaldeko pertsonengana iristea zailagoa egiten duen arrazoietakoa bat. Adibide bat jartzearen, ezkontza behartu baten biktima izan den eta hiru seme-alaba dituen emakume bat elkarrizketatu dut gaur; senarraren erasoan ondorioz orbainak ditu gorputz osoan.

Gehiago jasan ezin zuenean, bere herrialdea uztea erabaki zuen; gainera, bere migrazio-kontakizunaren arabera, salerosketaren biktima izan delako zantzuak ere badaude. Beharbada oraindik ez da esplotazio elementu hori eman, baina arriskua badago. Penintsulara eramaten dutenean, Ceutara sartzea erraztu zion sarea berarekin harremanetan jartzen bada eman zioten telefonoaren bidez, esplotazioa gertatzeko elementu guztiak bat egingo dute.

Baina emakume horrek ez du inoiz Ceutan nazioarteko babesa eskatzeko asmorik agertu. Eta hemen eskatuko balu, gero bere lekualdatzea borrokatuko genukeen; egia da denbora behar dela hori ebatzi dadin, baina lekualdaketa baldintzak oso ezberdinak dira. Izan ere, asilo-profila izanik, babesa hemen eskatzen ez duten emakumeak harrera-gune humanitario batera eramaten dituzte, hiru eta sei hilabete artean; bertan, informazio juridikoa eta prozedura eskuratzeko aukera mugatua da. Gainera, babesa eskatu nahi izanez gero, hitzordua une horretan eskatu beharko luke, eta hilabete asko behar dira hitzorduak eskuratzeko. Gerta daiteke emakume hori harrera-zerbitzurik gabe geratzea eskaera egin arte, zerbitzua kolapsatuta dagoelako. Aldiz, babesa Ceutan eskatuko balu, penintsulara joango litzateke txartel gorriarekin, bigarrenarekin ziurrenik, hau da, lan egiteko eskubidearekin, eta nazioarteko babes baliabidera

*joango litzateke zuzenean. Harrera-baliabide bat, laguntza ekonomikoa eta lan egiteko eskubidea izanik —dagoeneko asilo prozeduraren fase aurreratuan dagoelako—, ziurrenik, gaitasun gehiago izango luke bizimodu independentea egin ahal izateko, eta, beraz, zailagoa izango litzateke Ceutara eraman duten sareen eskuetan erortzea». (ASSENS, ELKARRIZKETA).*

#### BABESA ANDALUZIAKO KOSTALDEAN

Arestian azaldu bezala, pertsona gutxi eskatzen dute nazioarteko babesa Espainiako kostaldera iristen direnean.

CEARek, Iridiak eta beste antolakunde batzuek adierazten duten moduan, iritsiera portuaren arabera da jasotzen den abokatu-laguntza. Antolakunde hauek hegoaldeko mugari buruz egindako azken bi txostenen arabera, eredurik onena Malagan ezartzen dena da; bertan, Abokatuen Elkargoko abokatuek esku har dezakete itzulketara espedienteak jaso aurretik, eta hala, zaurgarritasun egoerak detektatzen saiatu daitezke. Hortik aurrera lan egin dezakete, eta asilo eskubideari buruz informazioa eman.

Iridiak Hegoaldeko Mugari buruz egindako ikerketaz honakoa dio Garcia Berriok:

*«Nabari zen non zeukan CEARek presentzia gutxiago, Almerian esaterako...*

*Ez zegoen nazioarteko babesaren logikatik berehala jarduteko protokolorik. Zenbait tokitan atxilotu egiten zituzten edo autobusean eramaten zituzten, eta denbora asko igarotzen zen esku hartzeko aukera izan arte. Eta hori, egoeraren arabera edo salerosketaren biktima posibleak ziren arabera... Atzerritarrentzako zentro itxi batean (CIE) edo harrera zentro batean sartu arte. Hortik abiatuta hasi behar zen lana».*

Itsas bideei buruzko txostenean, Iridiak salatu du ez dagoela mekanismorik sexu-esplotaziorako salerosketa egoeran dauden emakumeak detektatzeko, nahiz eta operadore gehienak «oker dauden esaten dutenean itsas bideetatik iristen diren emakume gehien-gehienak salerosketaren biktima direla, eta ez dituzte sortzen salerosketako benetako kasuak detektatzeko mekanismo eraginkorrak».

Elkarrizketatutako antolakunde guztiek adierazi dute sexu-esplotaziorako salerosketaren aurrean, erakundeen jardunean, gailendu egiten dela delitua jazartzeko ikuspegia, biktimak babesteko ikuspegia gailendu ordez. Ondorioz, zailtasun nabarmenak daude emakume horiek babesteko orduan.

Biktimak identifikatzeari dagokionez, salerosketaren biktima potentzial guztien %5 detektatzen da soilik. Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroaren (Centro de

Inteligencia contra el Crimen Organizado, CICO) arabera, datuek argi eta garbi erakusten dute, azkenean, identifikatutako biktimen kopurua oso txikia dela arrisku egoeran detektatutako pertsonekin alderatuta, nahiz eta sexu-esplotaziorako salerosketak guztizkoaren %80 hartzen duen.

Algeciras Acoge-ren arabera, «kostaldean arazo larria dago abokatuen arreta indibidualizatuarekin», eta delitua jazartzeko ikuspegi hori salatzen dute. Encarna Marquez eta Rocío Sierrak ezagutzen dituzte «ezkontza behartuengatik edo mutilazio genitalagatik nazioarteko babesa eskuratu duten emakumeak. Askoz errazagoa da emakume horientzat CIEko nazioarteko babesa eskatzeko elkarrizketari aurre egitea, zonalde horretan UCRIFen operatiboan egiten ari diren identifikazio elkarrizketa egitea baino».

Gurutze Gorriko Rosa Floresek adierazten du identifikazio-prozesua edo -elkarrizketak gogorrekiak direla iritsi berri diren emakumeentzat. Floresek dio entitateek nahiko argi antzeman ditzaketela kasuak, «baina identifikazio formala eskaintzen edo lantzen dugunean, eta hori egiteko poliziarengana joan behar dutenean, ez dute nahi. Ez du funtzionatzen. Salerosketaren aurka Borrokatzeko Espainiako Sareak identifikazio-eredu mistoak planteatzen ditu; horietan, entitate espezializatuak protagonismo handiagoa



izango lukete, beste herrialde batzuetan egiten den bezala. Batzuetan ez da nahikoa identifikazio elkarrizketara laguntzea».

Gurutze Gorriak lehenbiziko esku hartzea egiten du kostaldera iristen diren pertsonekin; horiek poliziaren zaintzapean daudenean, hain zuzen. Horrek esan nahi du ezinezkoa dela esku hartzea zehatza eta bizia izatea; izan ere, «ziurgabetasun handiko unean daude, oso laburra da esku hartzeko denbora tarte, emakume eta haur guztiak edo ia guztiak harrera zentroetara joango dira. Gure ustez, egokiena, larritasuna murrizten saiatzea da; horretarako, gai mingarriei ez heltzen saiatzen gara, horiek arretea integraleko baliabideetan modu egokiago eta seguruagoan landu ahal izango direlako».

Floresek dio, arestian aipatutako guztiagatik, ez dutela informazio askorik ematen babes-mekanismoei buruz, salbu eta ikusten badute adierazle argiak daudela bai adingabetasunari dagokionez bai jatorrizko herrialdeari edo zonaldeari dagokionez, lesio edo orbain fisikoak badaude:

«Kasu horietan gehiago azpimarratzen dugu nazioarteko babeserako eskubidea, behin eta berriz esaten diegu esplizituki eska dezatela segurtasun indarrekin hitz egiten dutenean... Ez dago denborarik pertsona bakoitzari azaltzeko zer arau aplikatzen

zaion, zer prozedura jarraitu behar den, eta abar. Testuinguru-adierazleen eta behaketa parte-hartzailearen arabera, azaldu egiten dugu, baldin eta jazarpen arrazoiren batengatik beren herrialdeak utzi badituzte, nazioarteko babeserako eskura dezaketela, eta aukera duten bakoitzean hala esan dezatela gomendatzen diegu. Gauza bera egiten dugu bakarrik dauden haurrak direla uste dugunean. Beldurrik ez izateko esaten diegu, eta adina galdetzen dieten bakoitzean adingabeak direla esateko».

Muga gurutzatu duten emakumeekin Arreta Humanitarioko Programako baliabideetan lan egiten duten antolakundeentzat, funtsezkoa da konfiantzazko harremanak sortzea, behar duten informazio guztia eman ahal izateko. Zentzu horretan, elkarrizketatutako antolakunde baten arabera, «zaila da haiekin espazioak partekatzea harreman hori, konfiantza hori, sortu ahal izateko, informazioa emateko, eta beste aukera batzuk baloratu ditzaten Frantziara joateaz gain, zertara doazen oso ondo jakin gabe».

CEAR Sevillako Alconadaren ustez, zaila da ere lan egitea salerosketa jasan duten eta penintsulara Arreta Humanitarioko Programaren bidez sartu diren emakumeekin. Abokatuaren iritziz, zailtasun ugari daude: hizkuntza ez menperatzea, emakumeetako asko beldurtuta egotea, oso gazteak izatea, eta, aurreko atalean adierazi bezala, horietako askok oraindik

esplotazioa pairatu ez izana. Aipatzen du ere profil horretako emakumeekin lan egiten duten operadoreek generoari eta nazioarteko babesari buruzko formakuntza defizita daukatela. «Horri gehitzen badiogu Administrazioak ez daukala irizpide argirik salerosketaren biktimentzako nazioarteko babes prozedurak egitean, hor daukazu konbo osoa. Gainera, poliziaren lehentasuna, oraindik ere, mafien aurkako borroka eta immigrazio irregularren kontrola da...».

Salerosketaren biktima izatearen zantzuak dituzten emakume askok ez dute nazioarteko babeserako eskatu nahi:

«Ez dute asiloaz ezer jakin nahi; erabat obsesionatuta daude hatz-markaren kontuarekin. Guk hatz-markaren kontuaz hitz egiten diegu, Dublineko kontuaz, baina normalean ez dute asiloa eskatu nahi... Guk esaten diegu hobe dela nazioarteko babesaren bidea, 59 bis Legea [Atzerritarren Legea] baino, batez ere esplotatuak izan ez direnean, eta ezin dutenean daturik eman sarea salatzeko, ikerketa baterako. Asiloaren bidea gomendatzen diegu; haietako askok ezkontza behartuak, ablazioa edo antzekoak alegatzen dituzte. Esaten diegu prozedura has dezaketela, baina ez dute inondik ere nahi, Espainiako lurraldean izapiderik ez hasteko agindua dutelako. Agertu diren moduan desagertu egiten dira». (ALCONADA, ELKARRIZKETA).

Adierazi du Arreta Humanitarioko Progra-

maren bidez sartzen diren emakumeetatik ia inork ez duela nazioarteko babesik eskatzen. Jasotzen dituzte emakumeen deribazio batzuk, salerosketaren biktimentzako baliabide espezifikoetatik datozen emakumeen %10 inguru izan daitezke. Ez da asko». Nahiz eta emakume asko nazioarteko babesaren onuradun potentzialak izan, Alconadak adierazi du ez dutela babesa eskatzen, horietako askori sareek agintzen dietelako ez eskatzeko. «Sareen arabera, eskaerek arrastoa uzten dute sisteman, eta beraiek ez dute arrastorik utzi nahi, euren helmuga Frantzia delako». Gainera, esan behar da iristeko prozedurek eragotzi egiten dutela nazioarteko babeserako eskubideari buruzko informazio indibidualizatua lortzea. Alconadaren arabera, «zoritxarrez, asiloari buruzko informazioa dutenek sareengandik lortu dute. Hau da, sareek esaten diete zer eskatu behar duten, nola eskatu behar duten eta noiz eskatu behar duten. Ezagutzen dituzte prozedurak, baliabideak eta laguntzak, sareek eman dizkietelako jarraibideak. Beste batzuek asilo hitza entzun eta ihes egiten dute, sareak inolaz ere asiloa ez eskatzeko esan dielako».

CEAR Sevillako abokatuaren arabera, funtsezkoa da uztartzea, batetik, Gizakien Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloan ezarritako prozedura, eta, bestetik, asilo eskubidea.

Halaber, aipatzen ditu ere adingabeen zentroetan dauden haur eta gazteek babesa eskuratzeko dituzten zailtasunak:

*«Adingabeak babesteko zerbitzuei bide luzea geratzen zaie asiloaren arloan. Nazioarteko babesari buruzko informazio asko behar dute; izan ere, beraientzat ez da aukera bat, ez dute erabiltzen. Are gehiago, izapidetutako dokumentazioarekin datorren profilen bat iristen bazaie, asko kostatzen da eskaera aurrera ateratzea, uste dutelako ez dela egokiena haien tutoretzapean dagoen pertsona batentzat. Printzipioz, nik ulertzen dut asilo eskubidea baztertzeko erabiltzen duten argudioa: ez dela praktikoa, ez dagoelako bermatuta. Eta haiek bai "bermatu" diezaikete adingabeari lanerako ez den egoitzartela tutoretzapean dagoen bitartean, atzemitarren bulegoekin dituzten akordioei esker. Baina, jakina, pertsona batzuek behar espezifikoak dituzte, hala nola salerosketaren biktima izandako adingabeek, eta haientzako, asiloa da bide zuzena».* △

**1** Dublingo Hitzarmena akordio bat da, Europako Batasuneko estatu kideen artekoa; haren bidez ezartzen da zein estaturi dagokio asilo eskaera bat aztertzea, estatu kideetara sartzeko inguruabarren arabera —normalean, eskatzailea Europako Batasunera sartzen den herrialdea—.

Gaur egun, Dublin III Erregelamendua dago indarrean (604/2013 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena); 2014ko urtarilaren 1etik dago indarrean, eta IV.a negoziatzeko bidean da.

2015ean Europako Batzordeak iragarri zuen Europako Asilo Sistema Bateratua (EASB) erformatzeko prozesua hasi zuela, "bidezkoagoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa" izan zedin, Dublingo Erregelamenduaren erreforma barne hartuta. Azkenaldiko negoziazioen ardatza Grezia-Turkia muga kudeatzea izan da, baina oraindik ez da adostasunik lortu —txosten hau itxi den unean— egin nahi den erreforma integrala gauzatzeko.

# AZALEKO BEGIRADA BAT BESTE **KOLEKTIBO** **BATZUEN** EGOERARI

Nahiz eta txosten honen ardatza Hegoaldeko Mugatik igarotzean Saharaz hegoaldeko emakumeek jasaten dituzten indarkeriak izan, ikerketan zehar, espazio horretan eta, zehazki, Ceuta eta Melillan, giza eskubideen urraketak pairatzen dituzten beste kolektibo batzuen egoera behintzat zirriboratzeko beharra planteatu zen.

Egunero, milaka pertsona igarotzen dira bi hiri autonomoetako mugetatik, mugaz gaindiko langile informal gisa bizirautean saiatzeko<sup>1</sup>. Emakumeei dagokienez, batez ere salgaien garraioan, etxeko lanetan eta prostituzioan aritzen dira.

Ez dago datu zehatzik eufemistikoki merkataritza atipikoa deitutakoa egiten duten emakumeen (ezta gizonen) kopuruari buruz, hau da, hiri autonomoetako industrialdeen eta Marokoko mugako Tetuan eta Nador probintzien artean egiten den salgaien garraioari buruz. Antolakunde sozialek eta giza eskubideen aldeko antolakundeek 9.000 emakume inguru direla kalkulatu dute —jarduera horretan aritzen diren pertsona guztien %30—,

3.000 inguru Ceutan<sup>2</sup> eta 6.000 inguru Melillan.

Emakume horien profila askotarikoa da APDHaren arabera (2012tik alor horretan esplotazio-baldintzak ikertzen eta salatzen diharduen antolakundea). 30 eta 60 urte bitarteko pertsonak dira, baina badaude ere hezkuntza-maila guztietako emakume gazteagoak eta zaharragoak. Guztiek komunean dute familiaren ekonomia-ereta ardurapean dauzkaten pertsonen zaintzaren erantzule bakarrak direla, haien egoera zibila edozein dela ere —ezkongabeak, dibortziatuak edo alargunak—, APDHak frogatu duenaren arabera.

Emakume zamaketarien jarduna ez dago arautua, eta ekonomia informala baita dago; hortaz, ez dute kontratuzko harremanik, lan-eskubiderik ezta gizarte-prestaziorik ere. Beren kontura edo komisio bidez lan egiten dute. Tarajaleko industrialdean (Ceuta) edo auzo txinatarrean (Melilla) edo han apartatutako kamioietan biltzen dituzte fardelak, eta Marokoko lurralderaino eramaten dituzte, bertan

bezeroei emateko. 90 kilo ere eramaten dituzte bizkarrean, edo etxean egindako gurditxo batzuetan (derrigorrezkoak Ceutan, 2018tik aurrera). Garraio bakoitzeko 3 eta 5 euro artean jasotzen dituzte, fardo bakoitzeko, eta salgaiaren arabera egunear 20 eta 35 euro artean, hainbat antolakunde bildutako testigantzen arabera.

Zamaketariak orduak eman behar dituzte zain, eguzkitan zein euripean. Ez Marokoko ezta Espainiako aldean ere, ez dago komun publikorik, edateko urik ezta estalperik ere. Oro har, Espainiako mugako pasabideak 6:00etatik 14:00ak arte ireki ohi dira salgaiak eramateko, baina ohikoa da zirkulazioa hainbat orduz etetea aldi baterako itxierengatik, Marokoko aldean, batez ere. Orduetgiaren baitan igarotzea lortzen ez duten zamaketariak hurrengo egunera arte geratu behar dute Ceutan eta Melillan, modu irregularrean, bisaren salbuespenaren arabera ez dutelako eskubiderik gaua Espainiako lurraldean igarotzeko.

Halaber, ez dago datu zehatzik etxeko

langile diharduten emakume marokoarren kopuruari dagokionez, eta gehienak kontraturik gabe eta Gizarte Segurantzaren alta eman gabe daude lanean; beraz, ez dute lan-eskubiderik edo osasun-laguntzarik bermatuta. Hala, Ceutan, 2019. urte hasieran, soilik 1.300 emakume zeuden kotizatzaile gisa izena emanda; guztien (4.000 emakume inguru) herena, Gobernu Ordezkaritzaren, sindikatuen eta ikertzaileen kalkuluen arabera. Melillan, datu ofizialen arabera, 2019ko azken hiruhilekoan, 1.576 emakume atzerritar zeuden Etxeko Langileen Erregimen Berezian; APDHak 3.000 etxeko langilera igo du kopurua. Beste antolakunde batzuen arabera, 6.000 eta 7.000 emakume artean dira.

Emakume horien soldata eguneko 20 eta 30 euroren artekoa da kanpo-langileak badira,<sup>3</sup> eta hileko 200 eurokoa langile egoiliarrek badira. Azken horien artean, gainera, familiek “hartutako” adingabeen fenomeno dago; hezkuntza eskainiko dietela hitz ematen diete, baina, azkenean, etxeko lan guztiak egiten dituzte, eta batzuetan ezin dira kalera irten eta egoera irregularrean daude.

Mugak egunero gurutzatzen dituzten beste emakume batzuk prostituzioan aritzen dira, batez ere kalean. Emakume horiek, eskubide falta eta egoera prekariora izateaz gain, estigmatizazioa ere pairatzen dute; familiaren ekonomiaren arduradun

bakarrak izan ohi dira, eta normalean, seme-alabak edo beste senide batzuk dituzte ardurapean. Melilla Acoge-ren datuen arabera, 2017an, 1.000 emakume inguru zeuden egoera horretan. Haien bezeroen artean, Melillako herritarrek, marokoarrak eta Segurtasun Indar eta Kidegoak daude. Ceutan, zenbait kolektiboren arabera, 250 eta 500 emakume artean aritzen dira prostituzioan.<sup>4</sup>

Egunero lan egiteko muga gurutzatzen duten milaka emakume marokoarrez gain, badago jatorri marokoarreko emakume kopuru zehaztugabe bat, Nador eta Tetuan probintzietatik datozenak, eta Ceutan eta Melillan modu iraunkorrean bizi direnak, dokumentatuta eta erroldatuta egon gabe.<sup>5</sup> Haietako askok hamarkadak daramatzate horrela. Beste asko espainiarrekin ezkondu daude<sup>6</sup>, eta espainiar lurraldean jaiotako seme-alabak dituzte. Beste batzuk bi hiri hauetan jaiotako dira, baina ez daude erregistro-zibilean inskribatuta, eta urte luzez lanean egon diren arren ez dute erroldatzea lortu.

Kontsultatutako antolakundearen arabera, emakume horiek zailtasun handiak dituzte beren egoera legezatzeko, ia ezinezkoa baita errozte sozialagatik bizileku-baimena lortzea (hiru urteko egonaldia eskatzen dute). Besteak beste, froga gisa soilik errolda onartzen delako<sup>7</sup>, eta tramite horretarako, penintsulan ez bezala, ez du balio pasaportea aurkezteak, bisa eskatzen baitute.

<sup>1</sup> Tetuan eta Nador probintzia mugakideetan bizi diren marokoarrek ez dute bisarik behar.

<sup>2</sup> 2019ko urrian, Rabatek itxi egin zien Tarajal Ilko muga salgai irregularrei, autoz zein oinez garraiatutako fardelei.

<sup>3</sup> Ikerketan bildutako informazioaren arabera, kopuru horiek soldata ona direlako iritzia dago. Ez zen zehaztu zenbat orduko lanaldiak ziren.

<sup>4</sup> 2019an, Cruz Blanca fundazioak 500 emakume inguru aipatu zituen: hilabete batzuek pisuetan lan egiten duten latinoamerikarrak eta egunero muga zeharkatzen duten marokoarrak, bezeroak batez ere kalean erakartzen dituztenak.

<sup>5</sup> Ez da zifrarik topatu.

<sup>6</sup> Batzuetan, Marokon familia-loturak dituzten ceutiar eta melillarrak dira. Ezkontza horiek Marokon egiten dira, eta ez dira hiri autonomoetako erregistro zibilean inskribatzen. Emakume horietako askok indarkeria eta etxeko esplotazioa pairatzen dituzte, ez bakarrik senarren aldetik, baita beste senide batzuen aldetik ere.

**7** Erroldatzeko ezintasunak eragina du ere hainbat eta hainbat haurrengan, betekizun hori eskatzen baitzaie eskolatzeko.

**8** Legeak, ordea, beste jazarpen-kausetan (arrazaz, erlijioa, nazionalitatea, talde soziala eta iritzi politikoak) agertzen ez den baldintzapekotasuna ezartzen du, adierazten baitu generoak eta sexu-orientazioak, berez, ezin dutela jazarpena eragin, baizik eta "jatorrizko herrialdean nagusi diren inguruabarren" arabera izango dela.

**9** 2019ko otsailean, ikerketa-bidaian zehar, adingabe horiekin lan egiten duten antolakunde eta kolektiboek kalkulatu zuten egoera horretan zeuden haur eta nerabeak, Ceutan, 70 eta 100 artean zirela, eta Melillan, 80 eta 100 artean.

Gainera, elkarteek salatu dute, batzuetan, abokatuek prozesuan egiten dituzten kudeaketaren kostuak handiegiak direla, eta bitartekari batzuek ere iruzur egin dietela, lan-kontratu bat lortzeko orduan adibidez.

Emakumeekin lan egiten duten antolakundeekin egiten diren elkarrizketa ia guztietan aipatzen denez, emakumeen jatorria edo administrazio-egoera edozein dela ere, zaila da genero-indarkeriari heltzea eta biktimei laguntza eta babesa eskaintzea. Hala, salatzen dute ez dagoela bitarteko eta baliabide nahikorik arazo horri aurre egiteko, eta, gainera, Ceuta eta Melillako ezaugarri espezifikoek larriagotu egiten dutela egoera (mugaldeko hiriak, penintsulatik isolatuak, sozialki eta ekonomikoki oso bereziak, familia- eta bezero-lotura handiak dituztenak, etab.). Ondorioz, zaila da, adibidez, urruntze-aginduak betetzea edo biktimentzako zentro eta etxeetan anonimotasuna gordetzea. Askotan, emakumeak beren erasotzaileengandik urrundu ahal izateko modu bakarra penintsulara bidaltzea da, baina bertan, hala ere, ez dute babestu ditzaketen familiarik edo lagunik.

Egindako elkarrizketa askotan, gainera, adierazi da CETIko (etorkinak behin-behinean hartzeko zentroa) emakume askok, batez ere marokarrak eta aljeriarrak, ihes egin dutela jatorrizko herrialdean pairatzen zuten genero-indarkeriatik (fisikoa eta sexuala) edo ezkontza behartuetatik.

Espainiako Asilo Legeak generoagatiko edo sexu-orientazioagatiko jazarpena asiloa edo nazioarteko babesa eskuratzeko arrazoi gisa jasotzen duen arren<sup>8</sup>, esparru horretan lan egiten duten erakundeen arabera, oso zaila da emakume horiek estatus eta babes hori lortzea.

CETIlan bizi diren LGTBI pertsona askok ere ihes egin dute beren jatorrizko herrialdeetatik genero-arrazoiengatik edo sexu-orientazioagatik. Gehienak magrebtarrak dira (marokarrak gehienak), gizon homosexualak eta emakume transexual batzuk. Melillako zentzoko zuzendaritzak hainbat modulutan bildu ditu pertsona horiek, emakumeentzako eta familientzako eremuen ondoan, nolabaiteko intimitatea eta babesa eskaintzeko. Ceutan saiatzan dira pertsona horiek erizaintza modulua ondoan jartzen, gaixoentzat edo pertsona zaurgarrientzat dagoen modulu osagarri batean. Dena den, toki librean daudenean egin daiteke soilik; bestela, gizona esleitutako eremuetan egoten dira. Emakumeen eta familien txandan sar daitezke jantokira. Bi zentroetan, hainbat antolakunderen arabera, irainak eta mehatxuak pairatzen dituzte sexu-identitate edo -orientazioagatik. Gainera, CETItik kanpo ere erasoak gertatu dira.


Azkenik, atal honetan garrantzitsua da aipatzea bi hiri autonomoetan eskubide urraketa gehien pairatzen dituen kolektiboetako bat: bakarrik dauden haurrak eta

nerabeak. Txosten eta erakunde ugari salatatu dute haien egoera Ceutan eta Melillan; izan ere, dozenaka (Marokotik etorritako haurrak eta nerabeak) kalean bizi dira, arrazismoa, indarkeria eta sexu-abusuak pairatzen dituzte, eta ferry batean sartu eta penintsulara noiz iritsiko zain daude. Horietako askok, gainera, mendekotasunak pairatzen dituzte, hala nola kolarekiko eta bestelako substantziako, edota, are gehiago, beren burua mutilatzen dute.

Ceuta eta Melillara iristen direnean, bi hiri autonomoetan dauden adingabeentzako zentroetara bideratzen dituzte. Melillan, haur eta nerabe horietako gehienek ihes egin dute La Purísima adingabeentzako zentrotik, pilaketak, osasungarritasunik eza eta tratu txarrak direla eta; izan ere, kolektibo eta elkarteek askotan salatu dituzte baldintza horiek, adingabeen testigantzen bidez.

Oro har, bi hirietan, haur eta nerabe askok ez dute zentro horietan geratu nahi, eta nahiago dute arriskatu eta penintsulara joaten saiatu, ez dutelako ez hezkuntza- ez bizi-itxaropenik: hezkuntza formala ez egotea edo hura eskuratzeko ezintasuna, egoitzabaimenak ezin tramitatzea zentro horietan dauden bitartean, tutoretzapean egon arren, edo adin-nagusitasuna betetzen dutenean. Melillako PRODEIN eta Ceutako Maakum antolakundeek behin eta berriz salatu dute, azken urteotan, adingabeek pairatzen duten marjinalizazioa eta kriminalizazioa. △

Begirada





# EPILOGOA

Txosten hau idazteko bide luzea urratu dugu. Diseinu metodologikoa hasi genuenetik hura maketatu arte, Hegoaldeko Mugak aldatzen jarraitu du. Zoritxarrez, ez dirudi mugako zonalde horretan garatutako migrazio-politikaren helburua denik gurutzatzen duten migratzaile eta errefuxiatuen eskubideak bermatzea. Espainiako Gobernua, muga gizatiarrago eta seguruagoa —segurua norentzat?— eraikitzeko mezuazabaltzen duen bitartean, Marokoko aldean labanadun beste hesi bat eraikitzen ari da, eta beltzen aurkako errepresio-politika ezartzen jarraitzen du, Europako Batasuneko funtsekin finantzatua.

Badakiguz delaware posible Hegoaldeko Muga gurutzatzen saiatzen diren emakumeen irudi finko bat erakustea. Hala ere, ez da gure asmoa: gure helburu bakarra da zenbait zertzelada eskaintzea, mugako espazio hau ikuspegi zabalago batetik ulertzen laguntzeko, eta migrazio-proiektuak burutu nahi dituzten emakumeen bizitzetan nekropolitikak duen eragina mahai gainean jartzeko.

Ikerketa taldea osatzen dugunoi feminismoak bizitza zeharkatzen digu. Begirada horrek zirpriztindu egin du landa-lana, informazioaren analisia eta baita txostenaren idazketa bera ere. Hasieratik,

gure “izaera zuriaz” oso kontziente izan gara, eta badakigu ere jasotako informazioa pribilegiozko jarreratik lantzen dugula. Laurok bizi izan gara beste herrialde batzuetan, eta gure pasaporte europarra beti izan da atea irekitzeko giltza, inoiz ez atea ixtekoa. Ez dugu beste batzuen orde hitz egin nahi; ez da inoiz gure asmoa izan. Baina urteak daramatzagu, antolakunde gisa, biztanleriaren desplazamendu behartuak aztertzerakoan begirada feminista txertatzeko lanean, eta argi pixka bat eman nahi dugu mugako espazio batean —non giza eskubideen urraketak egiturazkoak diren— zapalkuntza arrazista eta patriarkalaren erregimenak elkarlotzen diren moduei buruz.

Elkarrizketatutako antolakundeek ere badute interesa h Hegoaldeko Mugan gertatzen denari buruzko ikuspegi feminista eta antiarrazista txertatzeari buruz. Asko dira txosten honi eskuzabaltasun handiz ekarpenak egin dizkietenak, azterketa zehatzak eginez, muga gurutzatzen duten emakumeei lagunduz eskuratu duten ezagutza zabal partekatuz. Baina, batez ere, partekatu dutena kezka handia izan da, bidean pairatzen dituzten indarkerien larritasunarengatik eta erakundeen erantzun eskasarengatik.

Landa-lanean hauteman dugun moduan, antolakundeak oso kontziente dira Hegoaldeko Mugan gertatzen denaren azterketari buruzko begirada feminista txertatzeko beharraz; antolakunde horietako asko, zentzu horretan, urratsak ematen ari dira. Hala ere, oso lan konplexua da. Mugako zonalde honetan gauzatzen diren praktika batzuen argitasun falta eta arbitrariotasuna direla eta, oso zaila da gertatzen ari denari buruzko informazio fidagarria lortzea, ikuspegi feministatik aztertu ahal izateko. Nabarmendu nahi dugu, halaber, txostenerako elkarrizketatutako zenbait antolakundeak aipatuak ez izateko eskatu dutela. Horrek agerian uzten ditu dauzkaten zailtasunak, batez ere Marokon, Melillan eta Ceutan, eta egiten duten lanak dakartzan inplikazioak.

Ezin ditugu homogeneizatu mugaldeko zonalde hau gurutzatzen duten emakume beltzek egiten dituzten bideak. Emakume horietako bakoitzaren atzean istorio bat dago, ihes egiteko hainbat arrazoi; normalean, hainbat kausa pilatzen dira, baliabide gehiagorekin edo gutxiagokorekin egiten duten bidaia bat —eta, ondorioz, autonomia handiagoa edo txikiagoa izango dute—, eta baita arrisku- edo gogortasun-maila ezberdinak ere. Hala ere, ondorio edo gogoeta batzuk atera ditzakegu, gure

salaketa- eta intzidentzia-lana hobetzeko..

## ANALISIAREN ERDIGUNEAN KOKATzea MIGRAZIO-POLITIKA

Ikerketa prozesua hasi genuenetik, beldur asko sentitu ditugu. Beldur nagusietako bat izan da txostenaren edukia aitzaki gisa erabiltzea, migratzaileak eta errefuxiatuak kriminalizatzeko edo mugak ixteko politika justifikatzeko. Jendartean eta erakundeetan diskurtso xenofoboak onartuta eta normalizatuta dauden honetan, ezin dugu alboratu xenofobia pizteko emakumeen eskubideen ustezko defentsaz etengabe egin den erabilera, egile eta ekintzaile batzuek *purplewashing* (zuriketa morea) deitzen dutena. Ohikoa da eskuin eta eskuin muturreko agintari politikoek salerosketa sareen aurkako borrokaren diskurtsoa baliatzea mugak ixtea justifikatzeko eta gizon migratzaileak iruditerian kokatzeko, haiengandik defendatu beharreko biolentoak eta arriskutsuak izango balira bezala.

Elsa Tyszler (2018) bezalako autoreek adierazi dutenez, helburu politikoetarako erabili ohi da emakume beltzen ustezko zaugarritasunari buruzko narratiba: «Beren migrazio propioaren biktima pasibo gisa erakusten dituzte, migrazioa, berez, ahula denean eta gizon beltzek menderatua; hortaz, askatuak izan behar dira». Horrela, erakunde askoren asmoa da beren politikak emakumeen eskubideen aldekoak izatea,

eta bide horretan, «indarkeria exotizatzen dute, beste biolento batzuek —Saharaz hegoaldeko gizonen— eragindako zerbait balitz bezala. Horrela, esklabotzaren eta erregimen kolonialen inguruan garatutako estereotipoak berraktibatzen dituzte, menderatu, kontrolatu eta zibilizatu behar den figura barbaroari buruz». Tyszlerrek, halaber, adierazten du erakundeetatik emakume zaugarriaren irudia erakusten dela, «kontrol sozialeko objektu bihurtzeko, arlo humanitarioaren eta segurtasunaren arteko mugan». Horrela, emakumeen aurkako indarkeria gogortzen duten migrazio-politikak sustatzen dituztenak libratu egiten dira indarkeria beraren gaineko erantzukizunetik.

Migratzaileen aurkako arrazakeria eta xenofobia defendatzen dutenek erabilera interesatua egin ez dezaten, funtsezkoa iruditzen zaigu analisiaren erdigunean kokatzea Espainiako Gobernuak eta Europako Batasunak sustatutako migrazio-politika. Txosten honetan agerian geratu da, Hegoaldeko Mugaren esternalizazioa eta militarizazioaren eraginez, larriagotu egiten ari dela emakumeek igarobidean pairatzen duten indarkeria. Edozein igarobide legal eta seguru galaraztearen ondorioz, emakumeek gero eta autonomia gutxiago dute bidaian zehar, eta muga militarizatu horiek gurutzatzen lagunduko dieten besteren menpe daude. Bidea segurtasun handiagoko baldintzetan egin ahal izateko babeslearen (edo babesleen) figura sartzea,

berez, migrazio-estrategia bat da, baina, era berean, indarkeria matxisten aurrean emakumeak egoera oso zaugarrian jartzen ditu. Arduragabekeria litzateke “mikro” mailako ikuspegitik egindako analisisian geratzea, bidean pairatutako indarkeria esperientziaz soilik hitz egitea, eta errealtate horri begiratzea soilik migratzaileen eta errefuxiatuen arteko genero desperekotasunetik.

Begirada interseksionala txertatu behar dugu, ikusarazteko nola zapalkuntza-sistema patriarkal, arrazista, kolonial eta kapitalistak bat egiten duten mugako espazioan, eta jabetzeko errealtate anitzak eta oso biolentoak sortzen dituztela muga gurutzatzen duten pertsonentzat. Horrela, “makro” mailako prisma horretatik, analisiaren erdigunean jarri behar dugu —eta, hortaz, salaketaren erdigunean—, muga *kudeaketaren* ondorioz, emakumeek ezin dutela bidaia modu autonomoan egin, eta, beraz, arrisku handiagoa dutela indarkeria pairatzeko. Gainera, ezin dugu ahaztu emakume migratzaileek eta errefuxiatuek jasaten duten indarkeria, hain zuzen ere, mugako agenteek (poliziak) gauzatzen dutela. Hortaz, funtsezkoa da ikuspegia zabaltzea, horrela, indarkeria horien azken erantzuleak kokatu ahal izateko: migratzaileen eta errefuxiatuen giza eskubideak kontuan hartzen ez dituen kudeaketa militarizatuaren ardura duten gobernuak. Eztabaida bertan kokatzeak gure lana bideratzen lagunduko

digu, ez baitu ezertarako balio indarkeriari heltzeko protokoloak egiteak egungo migrazio-politikak mantentzen badira.

### ETENGABEKO INDARKERIAK

Txostenean zehar ikusi den moduan, sexu-indarkeria egiturazko elementua bihurtu da Europarantz doazen emakume migratzaile eta errefuxiatuen bidean. Emakume beltz gehienentzat, trafiko eta salerosketa sareak, maiz, Europara heltzeko aukera bakarra dira, erabat militarizatutako mugak gurutzatu ahal izateko, eta gero eta gogorragoak eta arriskutsuagoak diren bideak zeharkatzeko. Horrela, emakumeen gorputzaren kontrola —eta harenganako abusua— etengabekoa da muga gurutzatzeko antolaketan, eta beste botere-harreman batzuek ere eragina dute, hala nola klaseak eta arrazak. Azkenean, gorputza, migrazio-estrategiaren parte izaten da, eta ondorioz, bidean zehar, xantaia eta sexu-indarkeria presente daude, norberaren zein besteen bizipenetan.

Hainbat antolakunde eta ekintzailek emakumeen egoera espezifikoak salatu eta ikusarazteko egin duten ezinbesteko lanari esker, gaur egun, ezin dugu Europarako bidez hitz egin indarkeria matxistak aipatu gabe. Baina sexu-indarkeria eta harengandik eratorritakoa —ugalketa-askatasunarekin lotutako indarkeria asko— ez da Hegoaldeko Muga gurutzatzen duten emakumeek pairatzen duten indarkeria mota bakarra.

Ezin dugu ahaztu muga hau gurutzatzen duten emakume beltz gehienek itsasoko bidea hartzera behartuta ikusten dutela beren burua —ba al dago egoera biolentoagorik?—. Ikerketan zehar, Tangerren gurutzatzeko aukeraren zain zeuden emakume talde bat elkarrizketatzeko zortea izan genuen; horietako batzuk hainbat aldiz saiatuak ziren gurutzatzen. Bidaiko bizipenak eta Marokoko egoera kontatu zigutenean, arrazakeria, itzulketak —guztiak hegoaldera itzuliak— eta egunero pairatzen zuten poliziaren errepresioa aipatzean adierazi zuten minik handiena. Horrexek atsekabetzen eta kezkatzen zituen gehien, eta izugarri baldintzatzen zuen haien egunerokotasuna, eta kalera atera eta edozein diru-sarrera lortzeko aukera muga gurutzatzea ordaindu ahal izateko. Adibide bat besterik ez da, baina balio du ikusarazteko mugako espazioetan ematen diren elkarlotutako indarkeriak: sexu-indarkeria, indarkeria fisikoa, ugalketa-askatasunaren aurkakoa, erakunde-indarkeria, indarkeria arrazista, indarkeria polizia, etab. Gure ustez, emakumeen bideari sexu-indarkeriatik soilik begiratuta, errealitate ugari ezkutuan geratzen dira, izugarri baldintzatzen dituztenak emakume beltzen ibilbideak.

### ARGITASUN HANDIAGOA HEGOALDEKO MUGAN GERTATZEN DENARI BURUZ, GURE ZEREGINA HOBETZEKO

Ikerketa prozesu osoan zehar, egiaztatu dugu ez dagoela argitasunik mugako eremuan gauzatzen diren praktika batzuei buruz. Hegoaldeko Muga esternalizazio- eta militarizazio-politiken laborategia izan da, eta hori praktika instituzional bihurtu da Melillan, Ceutan eta Andaluziako kostaldeetan, migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideak urratzen dituen: «bero-beroa» egindako itzulketak, zirkulazio askea mugatzea, abokatu-laguntzaren falta, CETIak gainezka egotea, giza eskubideei eta generoari buruzko prestakuntza falta, etab. Mugako zonalde honetan, halaber, badago ere nolabaiteko arbitrariotasuna jarduketari dagokienez; argi geratzen da hori Andaluziako kostaldean, non jarduketak asko aldatzen diren helmugaren arabera. Arbitrariotasun horrek argitasun falta eragiten du toki bakoitzeko protokoloek dagokienez, eta horrek, aldi berean, zaildu egiten du antolakunde sozialen analisi lana, salaketara eta intzidentziara zuzendua. Informazio objektiborik ez badago ere, badirudi bide luzea dagoela egiteke Ceutan, Melillan eta kostaldean erakundeen jardunak kontuan har ditzan iristen diren emakumeen beharrak.

Antolakundeok ere asko dugu hausnartzeko Hegoaldeko Muga gertatzen denari buruz. Ikerketa prozesuan begirada dibergenteak sumatu ditugu, errealitatea aztertzerakoan dugun joerari lotutako gaiei buruz. Kasu batzuetan, emakume beltzei buruzko narratiba hegemonikoak indartzen dituzten

estereotipoak sumatzen ditugu. Seguruenik, guk geuk ere indartu egin ditugu batzuetan. Borroka antirrazistarentzat une historikoa den honetan, pentsamendu eta aktibismo dekolonialaren ekoizpen izugarria dagoen unea izanik, badirudi beharrezkoa dela birpentsatzea nola begiratzan eta izendatzen ditugun besteak, eta nola aztertzan dugun mugako erregimena, egitura kolonialaren zati gisa. Halaber, Hegoaldeko Muga gurutzatzen duten emakumeen jatorrizko herrialdeetako errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta politikoa askoz hobeto ezagutzea premiazkoa da.

### **SALAKETAREN ETA ARRETAREN ARTEKO OREKA ZAILA**

Kezkatuta gaude, Marokon, migratzaileak eta errefuxiatuak laguntzen dituzten antolakunde sozial askok, lan egiteko zailtasunak dituztelako. Marokon, aregotu egin da migratzaileen eta errefuxiatuen aurkako errepresioa, eta Europara iristeko itxarongela bihurtu da herrialdea. Testuinguru horretan, antolakundeek ere zailtasun handiak dituzte errepresioaren ondorioz. Are gehiago, kontuan hartuta oinarritzko eskubide batzuk bermatzeko lana dutela. Emakume migratzaileak beldur dira kalera irten, atxilotuak izan eta hegoaldera itzuliak izateko, eta, ondorioz, ez dira antolakunde sozialetara hurbiltzen. Kolektiboek, gainera, arreta lehenetsi behar dute intzidentzia-lanaren gainetik, azken horrek beren zereginean izan ditzakeen ondorioengatik.

Bestalde, ikusi dugu, Ceutan zein Melillan, antolakundeentzat —baita guretzat ere— zaila dela Estatuko Harrera Sistemaren inguruan salaketa- eta intzidentzia-lana egin ahal izatea. Badakigu oso oreka zaila dela, baina oso argi dugu funtsezkoa dela emakume migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzeko lana intzidentzia- eta salaketa-lanarekin uztartu ahal izatea —eta hori modu artikulatuan egitea Hegoaldeko Mugan lan egiten duten beste antolakundeekin—, harrera gizatiarragoa eta integralagoa lortzera bidean.

### **SEXU-ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETARI BURUZKO EZTABAIDA LASAIA ETA SAKONAREN BEHARRA**

4. atalean azaldu den bezala, Hegoaldeko Mugan lan egiten duten antolakundeek askotariko ikuspegiak dituzte, are polarizatuak ere, sexu-esplotaziorako salerosketari buruz. Beharrezkoa da gaiari buruzko eztabaida serio eta sakonari heltzea.

Garrantzitsua da ulertzea, salerosketa, delitua izateaz gain, giza eskubideen urraketa larria dela. Hainbat eskubideren aldibereko urraketa, alegia. Ez soilik eskubide sexualen urraketa, baizik eta bizitzeko eta segurtasunerako eskubidearena, osotasun fisikoarena eta mugitzeko askatasunarena ere. Lan-eskubideen urraketa da (soldata jasotzeko

eskubidea, atsedenerako eskubidea), eta tratatu krudel, iraingarri, anker eta torturatzailea da, edo izatera iritsi daiteke.

Badakigu ez dela erraza gaiari buruzko eztabaida sakona abiaraztea. Lehenik eta behin, gure ustez, garrantzitsua da ahalik eta azterketa lurreratuena egitea, nahiz eta zaila den datu fidagarriak lortzea, fenomenoaren izaera klandestinoa dela eta. Normalean, trafikoa eta salerosketa nahasten dira, edo salerosketa kontzeptuan sartzen da lan sexual guztia, eta horrek ere ez du laguntzen fenomeno argitzera bidean; izan ere, emakume askok bidaia ordaintzeko erabiltzen dute lan sexuala, dirua lortzeko beste aukerarik ez dutelako.

Antolakundeen iritzi, lehen salerosketaren existentzia bera ukatzen zen, eta, gaur egun, Hegoaldeko Muga gurutzatzen duen Saharaz hegoaldeko edozein emakumek biktima izatearen zantzuak dituela baieztatzen da. Gure ustez, “dena da salerosketa” ikuspegi arriskutsua da, hainbat zentzutan. Ikuspegi horrek sinplifikatu eta homogeneizatu egiten ditu indarkeria egoera konplexu asko, igarobidean dauden emakumeen bizitzak zeharkatzen dituztenak.

Autore batzuentzat, hala nola Tyszler-entzat (2018), begirada horrek elementuak ematen dizkio bi figura oso sexista eta arrazista ekoizten dituen diskurtsoari:

salerosketaren biktima den Saharaz hegoaldeko emakumea, eta Saharaz hegoaldeko gizon trafikatzalea. Horrela, diskurtso horren bidez, «Afrikako beltzen mugimenduak kriminalizatzen dira, antolatutako mafiatzat hartzen dira, eta mugaren kudeaketa militarizatua justifikatzen da». Gainera, ezkutuan geratzen da migrazio-politikek duten erantzukizuna emakumeek pairatzen duten indarkeriaren jatorrian, baita espainiar nazionalitateko pertsonen esplotazio horren kontura ateratzen duten etekin ekonomikoa ere.

Halaber, kezka garria iruditzen zaigu fokua soilik sexu-esplotazioan jartzea. Badakigu gizakien salerosketak hainbat helburu dituela, hala nola lan-esplotazioa (nekazaritza eta etxeko lanak, besteak beste), eta, hala ere, alarma sozial handiena sortzen duena sexu-esplotaziorako salerosketa da. Kezka desorekatu horren atzean joera patriarkala dagoela uste dugu. Alde batetik, sektore feminizatuetakoa beste salerosketa mota batzuekin —hala nola etxeko enplegua— nolabaiteko permisibitate soziala planteatzen du. Bestetik, emakume bati gerta dakioken gauzarik okerrera sexu-indarkeria dela dioen ideia indartzen du. Sexu-indarkeriaren inpartuari pisua kendu gabe, ohartu behar gara emakumeen sexualitatearen iruditeria garbi eta ukiezinaren oinordetzaren indarrak, zeinaren arabera, gure gor-

putzek, komunitate osoaren ohorea gordetzen duten. Haien kontakizunetan, salerosketa jasan duten emakume askok, maiz adierazten dute gehiago sufritu dituztela konfinamendu-baldintzak, edo atseden hartu ezin izana, edo beren bizitzen gaineko kontrola ez izatea (non dauden ez jakitea, adibidez), sexu-esplotazioa bera baino.

Txostenean zehar planteatu den moduan, hutsune asko ditu gizakien salerosketaren biktimak babesteko sistemak. Gutxienean, paradoxikoa da, batetik, Hegoaldeko Muga gurutzatzen duten emakume beltz gehienak salerosketaren biktima direla dioen baieztapena, eta bestetik, biktima izatearen zantzuak dituzten emakumeen babesgabetasun ia erabatekoa. Fenomenoari delitua jazartzeko ikuspegitik heltzen zaio, eta horrela, ahaztu egiten dira biktimak eta haien erreparaziorako eta babeserako beharrak. Ehunka galdera ditugu geure buruari egiteko: erreparaziorako zer neurri hartzen dira? Zer eskaintzen die sistema honek salerosketa-egoeran dauden edo egon diren emakumeei? Enplegu-eskubidea? Zer motatako enpleguak? Nola biziraungo dute? Nola alokatuko dute etxebizitza bat? Norbaitek lagunduko al ditu osatze-prozesuetan? Zer eskatuko zaie beren seme-alabak ekarri ahal izateko? ... Hemen behar dutena ez da guk salbatzea. Gure auzo eta herrietako salerosketa sareetatik ateratzen diren

emakume gehienak beren kabuz irteten dira, eta 40.000-50.000 euroko zorrak ordaintzen dituzte. Ez ditu polizia askatzen. Badakite prezio hori ordaindu behar dutela, Europak ez dielako beste aukerarik eskaintzen. Ezin dira hegazkinez etorri, 400€ edo 500€ ordainduz Lagos-Madril txartela lortuta. Benetako babesa lortzeko, justizia eta eskubideen aitortpena lortu behar dira. Hain zuzen, beren bizitza arriskuan dagoen herrialdera ez itzultzeko eskubidea, baina baita oinarritzko eskubideak ere, indarkeriarik gabeko bizitza autonomoa eraikitzeko oinarri gisa.

## **HEGOALDEKO MUGA GURUTZATZEN DUTEN EMAKUME MIGRATZAILE ETA ERREFUXIATUEI BURUZKO NARRATIBA NOLA ERAIKITZEN DUGUN HAUSNARTZEA**

Lantaldeak, halaber, ohiko beste beldur bat izan du: mugako espazioak gurutzatzen dituzten emakume beltzak soilik biktima gisa irudikatzen dituen narratiba indartuko zuela txostenak, haien garrantzia eta erresilientzia ikusezin bihurtuta. Azaldu dugun moduan, migratzaile eta errefuxiatuentzako bide legal eta segururik ez dagoenez, haien joan-etorriak sistematikoki zeharkatzen dituzte indarkeriek, eta emakume beltzen kasuan areagotu egiten da hori. Badakigu indarkeria hori oso larria dela, baina horrek ez du esan nahi, emakume beltzei begiratzean, beren migrazio-proiektuei buruzko erabakiak

hartzen ez dituzten eta indarkeriari pasiboki aurre egiten dioten pertsona gisa irudikatu behar ditugunik, aurre egiteko estrategia pertsonal eta kolektiboak ez balituzte bezala.

Biktimizazio horren aurrean, migratzaileak kriminalizatzen dituzten narratiben aurrean, estereotipo matxista eta arrazisten aurrean, uste dugu beste ikuspegi bat txertatu behar dela. Guretzat ezinbestekoa izan da, eta bada, bizirik atera diren emakumeak direla gogoraztea, eta hori ikusaraztea. Honaino iritsi ez daitezen saiatu diren polizia eta militarren izugarriko hedapenari aurre egin diote, hainbat muga gurutzatu dituzte, eta indarkeria anitzei eta inpunitateari biziraun diete. Baliabide propioak daukate. Hona iristen diren emakumeak ez datoz ezerezetik, nahiz eta, narratiba nagusien arabera, boteretik eta iraganik gabeko pertsonak diren, eta beren jatorrizko herrialdeak leku beldurgarritzat hartzen dituzten arren... Emakume hauek beren kultura- eta hezkuntza-ondare propioa dakarte, beren ingurune eta familietako eredu eta erreferentzia positiboak dituzte, bizi-proiektuak, itxaropena eta erabakitasuna, eta burutzen duten bidaiak eskatzen dien sormena eta trebetasunak garatu dituzte. Erresilientzia eta indar handia daukate, inizatiba gaitasuna daukate, babesa eta baliabideak bilatzen dituzte, ondo egoteko estrategiak garatzen dituzte, lan egin nahi dute, eta iristen diren jendartean

parte hartu nahi dute. Emakume beltzek, beren bizi-esperientziei eta ezagutzei esker egiten diote aurre bideari. Migratu, biziraun, erbesteratu, eta beren istorio propioa berreraikitzen dute. △

# BIBLIOGRAFIA

- UNHCR (2002). *Directrices sobre Protección Internacional: la persecución por motivos de género en el contexto del Artículo 1.A (2) de la Convención de 1951 sobre el Estatuto de los Refugiados, y/o su Protocolo de 1967*. HCR/GIP/02/01, 2002ko maiatzak 7. <https://bit.ly/3ckoYDM>.
- (2006). *Directrices sobre Protección Internacional: La aplicación del artículo 1A(2) de la Convención de 1951 o del Protocolo de 1967 sobre el Estatuto de los Refugiados en relación con las víctimas de la trata de personas y las personas que están en riesgo de ser víctimas de trata*. HCR/GIP/02/01, 2006ko apirilak 7. <https://bit.ly/3ckoYDM>.
- (2009). *Consideraciones en materia de trata de personas desde la perspectiva del Derechos Internacional de los Refugiados y el mandato del ACNUR. Segunda reunión de Autoridades Nacionales en materia de trata de personas (OEA)*. 2009ko martxoak 25-27, Buenos Aires, Argentina. <https://bit.ly/2RL268R>.
- Amnesty International (2016). *En tierra de nadie: la situación de las personas refugiadas y migrantes en Ceuta y Melilla*. <https://bit.ly/3bjOzwz>.
- Antúnez Álvarez, M.; Driss Cotilla, N.; García Rodríguez, R.; Olcina Vilaplana, S. (2016). *De niños en peligro a niños peligrosos. Una visión sobre la situación actual de los menores extranjeros no acompañados en Melilla*. Melilla Harraga elkarte. <https://bit.ly/2xC5c8a>.
- Asociación Pro Derechos Humanos de Andalucía (APDHA) (2016). *Derechos Humanos en la Frontera Sur 2016*. <https://bit.ly/2RKwHr>.
- (2017). *Balance Migratorio Frontera Sur 2017*. <https://bit.ly/3evesLW>.
- (2017). *Derechos Humanos en la Frontera Sur 2017*. <https://bit.ly/3akoigi>.
- (2019). *Infancia Migrante. Derechos Humanos en la frontera Sur 2019*. <https://bit.ly/3exdhvl>.
- (2019). *Balance Migratorio Frontera Sur 2020*. <https://bit.ly/2ZWMNOe>.
- (2020). *Balance Migratorio Frontera Sur 2020*. <https://bit.ly/2ZWMNOe>.
- Caminando Fronteras (2017). *Tras la Frontera*. <https://bit.ly/3akozjk>.
- CEAR (2017). *Refugiados y migrantes en España: Los Muros invisibles de la Frontera Sur*. Madril. <https://bit.ly/2yqN40Q>.
- (2018): *Refugiados y migrantes en España. Los muros invisibles tras la frontera Sur*. <https://bit.ly/34JcmU3>.
- (2019). *Informe 2019: Las personas refugiadas en España y Europa*. <https://bit.ly/2RLA6II>.
- (2015). *Marruecos: Desprotección y vulneración de derechos de las personas migrantes y refugiadas a las puertas de Europa*. <https://bit.ly/2VBcaSP>.
- CEAR-Euskadi (2013). *Vivir sin miedo. La protección del asilo frente a la persecución por motivos de género*. Bilbo.
- (2014). *Asiloari buruzko hiztegia*. <https://diccionario.cear-euskadi.org/eu/> [Kontsulta: 2019ko maiatzak 15]
- (2014). *El camino sin fin: huellas de mujeres en la Frontera Sur. Informe de la misión de observación de los Derechos Humanos*. Bilbo.
- (2017). *#Refugiadas. La trata con fines de explotación sexual en el contexto de militarización y cierre de fronteras*. Bilbo.
- CEDAW (2014). *Recomendación general núm. 32 sobre las dimensiones de género del estatuto de refugiada, el asilo, la nacionalidad y la apatridia de las mujeres. Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea*. CEDAW/C/CG/32, 2014ko azaroak 14. <https://bit.ly/2RM0hIG>.
- Chikhaoui, N. (2015). Superar obstáculos en materia de igualdad: el caso de Marruecos. En *Quedarns de la Mediterrania*, 22. zk., 295-304. <https://bit.ly/34HA7fe>.
- Comisión de Observación de Dere-

- chos Humanos (CODH) (2014). *Vulneraciones de derechos humanos en la Frontera Sur – Melilla. Informe de la Comisión de Observación de Derechos Humanos*. <https://bit.ly/2XHGCgl>.
- Europako Batzordea (2012). Estrategia de la UE para la erradicación de la trata de seres humanos (2012 – 2016) /\* COM/2012/0286 final \*/ <https://bit.ly/2yjAvoe>.
- Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandataria (2013). *Informe del Relator Especial sobre las formas contemporáneas de racismo, discriminación racial, xenofobia y formas conexas de intolerancia, Visita a España, A/HRC/23/56/Add.2*. Nazio Batuen Batzar Nagusia. <https://bit.ly/3akCJAT>.
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (2011). *Protocolo Marco de Protección de las Víctimas de Trata de Seres Humanos*. <https://bit.ly/34Jfkb9>.
- Convenio del Consejo de Europa sobre la lucha contra la trata de seres humanos. Serie de los Tratados del Consejo de Europa, 197. zk. 16.V.2005, Varsovia. <https://bit.ly/2XJZ5Jl>.
- Convenio del Consejo de Europa sobre la prevención y la lucha contra la violencia hacia las mujeres y la violencia doméstica, Serie de los Tratados del Consejo de Europa, nº 210. 11V.2011, Istambul. <https://bit.ly/2XHH2ni>.
- Cortés Maisonave, A. (2019). Mujeres migrantes y refugiadas en la Frontera Sur: resistencias de género y violencias encarnadas. Anuario CIDOB de la Inmigración, 128-140. <https://bit.ly/2Kelg2E>.
- Cordero Ramos, N. eta del Águila Lara Palacios, M. (2015). Melilla, frontera Sur. Políticas públicas y prácticas institucionales con mujeres migrantes próximas a redes de trata. Non: J. M. Gómez eta Méndez, S. Méndez-Muros, N. García-Estévez eta M. J. Cartes-Barroso (Koord.), *Derechos humanos emergentes y periodismo* (285-299 or.). Sevilla: Universidad de Sevilla. Departamento de Periodismo II. <https://bit.ly/2XJZs74>.
- Cruz Roja Andalucía (2015). *Trata de mujeres subsaharianas que llegan a costas andaluzas en patera*. Cruz Roja Española.
- Defensor del Pueblo (2013). *Seguimiento del informe presentado en septiembre de 2012. La trata de seres humanos en España: víctimas invisibles*. Madrid. <https://bit.ly/2Vh6RZH>.
- Defensor del Pueblo (2016). *Estudio sobre el Asilo en España. La protección internacional y los recursos del sistema de acogida*. Madrid. <https://bit.ly/2xsHTOc>.
- Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (2014). Apoyando a las víctimas de trata. Las necesidades de las mujeres víctimas de trata con fines de explotación sexual desde la perspectiva de las entidades especializadas y profesionales involucrados. Propuesta para la sensibilización contra la trata. Madrid: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. <https://bit.ly/2wMf8LX>.
- Directiva 2011/36/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de abril de 2011, relativa a la prevención y la lucha contra la trata de seres humanos y a la protección de las víctimas y por la que se sustituye la Decisión marco 2002/629/JAI del Consejo. Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala. <https://bit.ly/2S17Prh>.
- Estatuko Fiskaltza Nagusia (2011). *Circular 5/11 sobre criterios para la unidad de actuación especializada del ministerio fiscal en materia de extranjería e inmigración*. <https://bit.ly/3ag3Jlf>.
- Freedman, J. eta Jamal, B. (2008). *Violence against Migrant and Refugee Women in the Euromed Region. Case Studies: France, Italy, Egypt & Morocco*. Euro-mediterranean human rights network. <https://bit.ly/2VhiUpY>.
- Fuentes Lara, C. eta Rosado Caro, A. (2020). No todos los días son 8 de marzo: las porteadoras ante la inacción estatal, la invisibilización y la prohibición. *Revista Mientras Tanto*. <https://bit.ly/2Wlsysb>



- Grupo de Expertos contra el Tráfico de Seres Humanos del Consejo de Europa (GRETA) (2016). *5º Informe General de GRETA: Necesidad urgente de proteger a niños de tráfico humano y explotación*. <https://bit.ly/3aeotJV>.
- Groupe antiraciste d'accompagnement et de défense des étrangers et migrants (GADEM) (2018). *Coûts et blessures. Rapport sur les opérations des forces de l'ordre menées dans le nord du Maroc entre juillet et septembre 2018. Éléments factuels et analyse*. <https://bit.ly/2wPGINO>.
- Herrera Sánchez, S. (2013). Atrapadas en el limbo. Mujeres, migraciones y violencia sexual. *Cuadernos Cristianismo i Justicia*, 187. zk. <https://bit.ly/2wMlwmp>.
- Human Rights Watch (2014). *Abused and Expelled. III-Treatment of Sub-Saharan African Migrants in Morocco*. <https://bit.ly/2RJ4xbG>.
- IRIDIA, NOVACT eta Fotomovimiento (2017). La frontera sur. Accesos terrestres. Hacia el restablecimiento de la legalidad en la Frontera Sur. <https://bit.ly/2RKPUEW>.
- (2018). Frontera Sur. Vías marítimas. 2018ko txostena. #DDHHFronteraSur. <https://bit.ly/2VDv5we>.
- Keygnaert, I., Dialmy, A., Manço, A., Keygnaert, J., Vettenburg, N., Roelens, K. eta Temmerman, M. (2014). Sexual violence and sub-Saharan migrants in Morocco: a community-based participatory assessment using respondent driven sampling. *Globalization and Health* 10, 32. <https://bit.ly/3eu12zE>.
- Maleno Garzón, H. (2016). Nuestros cuerpos son horizontes enredados en la frontera. *Revista Pueblos*, 69. zk. <https://bit.ly/3aaxOTe>.
- (2018). "Alzando Voces": Análisis de discursos y resistencias de las mujeres migrantes subsaharianas en Marruecos. Alianza por la Solidaridad.
- Medecins Sans Frontieres (2013). *Violence, Vulnerability and Migration: Trapped at the Gates of Europe. A report on the situation of sub-Saharan migrants in an irregular situation in Morocco*. <https://bit.ly/2xC2MX6>.
- Médicos sin Fronteras (2010). *Violencia sexual y migración. La realidad oculta de las mujeres subsaharianas atrapadas en Marruecos de camino a Europa*.
- Melilla Acoge estima que 1.000 mujeres ejercen la prostitución en la ciudad (2017ko maiatzak 5). *El Faro de Melilla*. <https://bit.ly/2SXecfE>.
- Ministerio de Justicia y Libertades de Marruecos, ONUMUJERES y Confederación Suiza (2015). *La traite des femmes et des enfants au Maroc*. <https://bit.ly/3agFWSb>.
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2009). *I Plan Integral de lucha contra la trata de seres humanos con fines de explotación sexual* (2009-2012). <https://bit.ly/3agIWOL>.
- (2015). *II Plan Integral de Lucha contra la Trata de Mujeres y Niñas con Fines de Explotación Sexual* (2015/2018). <https://bit.ly/3cp161W>.
- Plataforma CEDAW sombra España (2017). *Borrador de Informe sombra sobre refugiadas*. Errefuxiatuen lantaldea, 2017ko otsailaren 16a.
- Real Decreto 557/2011, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley Orgánica 4/2000, sobre derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social, tras su reforma por Ley Orgánica 2/2009. <https://bit.ly/3aiBNNF>.
- Red Española contra la Trata de Personas (2015). *Informe de la red española contra la trata de personas para la Coordinadora Europea de lucha contra la Trata*. <https://bit.ly/2VeFzmT>.
- Ruiz Jiménez Arrieta, I. (2017). El naufragio de Europa: reflexiones feministas en torno a la crisis de las políticas migratorias y de asilo. *Revista Europea de Derechos Fundamentales*, 29. ezohiko alea, 143-164. <https://bit.ly/2RKv74a>.

- Sánchez, G. (2017ko maiatzak 11). El Gobierno reconoce que bloquea a inmigrantes en alta mar y los devuelve a Marruecos. Eldiario.es. <https://bit.ly/2VAF0Tt>.
- Save the Children (2016). *Infancias Invisibles. Menores extranjeros no acompañados, víctimas de trata y refugiados en España*. <https://bit.ly/2XKer00>.
- Servicio Jesuita a Migrantes (2014). *Vidas en la Frontera Sur. Migrantes forzosos y refugiados en Marruecos y acceso a territorio español*. <https://bit.ly/2ymWbQi>.
- (2016). *Sin protección en la frontera. Derechos Humanos en la Frontera Sur: entre Nador y Melilla*. <https://bit.ly/2XJWeR2>.
- (2019). *Sacar del laberinto. Informe Frontera Sur 2018*. <https://bit.ly/2XKX3J1>.
- Tyszler, E. (2015). *Ceuta y Melilla. Centros de selección a cielo abierto a las puertas de África*. Migreurop, GADDEM, La Cimade eta APDHA. <https://bit.ly/2RMn86N>.
- (2018). "Somos luchadoras". Lo que nos enseñan las mujeres migrantes sobre las consecuencias de las políticas de externalización de la Unión Europea. Investigación en la frontera marroquí-española. Non: A. Cortés eta J. Manjarrez (Ed.), *Género, migración y derechos humanos* (231-261 or.). Bartzelona: Bellaterra.
- Unicef (2017). *Una travesía mortal para los niños. La ruta de la migración del Mediterráneo central*. <https://bit.ly/2wLcQwr>.
- Vega, E. (2020). El Sur, espacio-frontera. Mujeres a través. *Revista Con la A*, 68. <https://bit.ly/2Ai3euG>.
- Women's Link Worldwide (2009). *Los derechos de las mujeres migrantes, una realidad invisible*. <https://bit.ly/2XGpuTl>.
- (2010). *Mujeres migrantes en la clandestinidad. El aborto en Marruecos*. <https://bit.ly/34ltwkQ>.
- (2015). *La trata de mujeres y niñas nigerianas: esclavitud entre fronteras y prejuicios*. <https://bit.ly/2wMuosd>.
- (2018). *Madres en las redes de trata. Derechos robados*. <https://bit.ly/3aiED5g>.



Txosten honetan, nahiz beti ez den nabaria izan, hainbat pertsonak parte hartu dute; testigantza baliotsuak eman dizkigute, bidea erraztu digute eta eskuragarri ez zena eskura jarri digute.

Haiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu —antolakundeak, kolektiboak, ikertzaileak eta norbanakoak— landutako gaiari buruzko informazioa eta ezagutza partekatzeagatik. Melilla, Ceuta eta Marokoko antolakunde eta norbanakoei, beren kezkek eta ziurtasunak gurekin partekatzeagatik.

**Mugarik Gabe, Gipuzkoako SOS Arrazakeria, FeministAlde** eta **Ongi Etorri Errefuxiatuak** antolakundeei, txostenaren diseinua eta ondorioak gurekin kontrastatzeagatik. Silvia Piris Lekuonari, diseinuaren metodologian laguntzen jakiteagatik. Amanda Andrades Gonzalezi eta Itziar Gandarias

Goikoetxeari: bidaia hau oso desberdina zatekeen gure ondoan egon ez bazinete.

Espero dugu zuekin guztiekin lankidetzan jarraitu ahal izatea, mugen politikak gaur egun milaka emakumeren bizitzan daukan eragina eztabaidatzeko eta ulertzeko.







**CEA(R)** EUSKADI  
Euskadiko **Errefuxiatuen**  
Laguntzarako Batzordea